

SOPOKEL'en

Antzerkiak

II

Zallegi eta Plazaola'tar lokin'ek Ph. D.
eladeratik euskeraratuak.

INTXAUSPE ETXEKO LANAK

A.T.V.
1362

M - 4999
R - 1390

H.T.O.
1362




SOPOKEL'en

Antzerkiak

II

Aiatz, Tarakin'go Emaztekiak, Piloktete

Zallegi eta Plazaola'tar Iokin'ek Ph. D.
eladeratik euskeraratuak.



REPORT

Annual

1911

Presented to the Board of Directors

of the [Company Name]

SOPOKEL

Sopokel ospatsuaren zenbait antzerki euskal-baratzera ekarriak dizkitzut onezkero. Lenengo idaztia Mexiko'n argitarazi nizun. Bertan d'tuzu Antigone, Eletere, Oidipu Bakaldun eta Oidipu Kolono'n. Orain, berriz, bigarren idaztia argitarazi gogo dizut : bertan, « Aiatz », « Tarakin'go emaztekiak » eta « Piloktete » arkitu al izango dituzu. Lenik, ordea, Sopokel'aren berri azaldu nai nizuke.

Sopokel'en berri iakiteko bearrenik ditugu non, noiz yaio zan eta noiz il zan iakitea : Kisto'ren aurreko 499'garren urtetik 496'garren urteetako artean yaio ta 406'garren urtearen azkenaldera il zan. Arrezkero, beraren erriaren aldirik dirdaitsuenean bizi izan zan olerkari uren au. Izan ere, Atenai'ko gara bete ta ederrenean ageri dan gizonik beinena ta mardulena izan zan : oro dendu ta neurri.

Medikar guduak amaituak ziran bearrik : Kimon eta Perikel agintari aipatuen urtabe aintzatsuak ziran. Non-naitik inolako ogasunak parrastan Atenai'raturik ziran. Ara io zuten nondinaiko iakintsu, edertzale ta izlaririk bikainenak.

Parmenide, Elea'ko Zenon, Anaxagora, Protagora, Gorgia, Prodiko, Hipia, Trasimako, Sokrate, Perikel, Aspasia, Fidia, Euripide, Herodoto, Sopokel-eta Dioniso'ko antzokira ioaten ziran, Elade'ko eguzkia bere gingan zala eta garai artako giza-kumerik argienak alkarren leian bizi zirala argi ta garbi ageri zan Atenai ederrean.

Gizona izan, ordea, ta illen umeen zoriona mengela ta irai-zekoa izan bear, berberak maiz çsan oi zunez. Irurogei urteko edo zalarik Peloponesu'ko gudu gorria sortzen ikusi zun. Sikili'ko itzulian, tarteko izan ondoren, Atenai gainbera zioala gogan-beartu-edo bide zezakean. Dana dala, bere erriaren erabateko

azkena ikusterik ez zun izan, lainkoak ala naita. Atenai'ren auzo zan Kolonu'n yaioa zan. Ain zuzen ere, bere auzoa izneurtu ederretan goraiatu zun, « Oidipu Kolonu'n » antzerkian ageri danez. Atike'ko eskualderik ederrenetakoa bide zan. Orra beraren auzoaren iduri ximena :

« Kolono dirdaitsura eldu zera, arrotz ori ! Zaldiz aberats ta errialde ontako altsuena. Emen, urretxindor mintzo ederrak, usu gure artean izaki, txorrotxiotxi dagi, arruetako ostape muskarrean, ardo margodun untzorrian kokatuz ta Yainkoaren orritarte eldugaitz, mordo-ugari, oixeski, aize-ezkutu ta ekaitz-aterpean. Emen ibilli oi baita eten bage Dionisi birtxina, Yainko-ugazameen lagun. Ta zeruko intzez garaztaturik, egunoro lorez iazten da lilipopa kuskue-der, Yainko-eme andien aspaldiko pitxia ta urre dirdiradun hupa... »

Aberats okituak zitun gurasoak. Sopil ontzigiña zun aita ta iopu sail aundia zerabilen lanerako. Azibiderik ederrena eman al izan zion bere seme laztanari. Ezaguna dugu aren eres-irakaslea, Lanpuru, alegia. Garaiz iarri zuten soin-iñarkunetan, Atenai'n oi zanez.

Gaztaroan soñez eder ta adimenez azkarra zan mutil hura. Salamine'ko garaipena ospatu zuten erriko ialetan irraida-buru egin zuten gure Sopokel, guzien begi-betegarri. Ango txaloak mutil hura larrugorritan, olioaz blei blei, agertu zanean ! Guduketa ortan gudari ibili omen zan Eskil antzerkigille ospatsua ta garaipenaren egun argitsuan Euripide yaio omen zan, Sopokel mutilla irraidan ari zan bitartean.

Ageri danez, Sopokel ao-ederrak aurtzaro ta gaztaroa zorion betean igaro zitun. Uraren gaiñeko bitsean ta aren gaiñeko sitsean bizi zan. Atzebeldurrik ez zan gero. Buruz iantzia ta ari oneko gizona zan. Besterik izan zan Euripide'ren aurtzaro ta gaztaroa. Amaika bidar sartu bearra izan zun onek beatza ortz-agin artean ! Urteetan or or dabiltz biok : amabost urteetako alde zuten, zar-gazte aundia ez daukate, beraz. Urtez urte bestelako dira, ordea. Arbasoen ekanduei atxikirik iraun zun Sopokol'ek eskuarki. Ariurriz ta gogoz lenaldian areago begiak zorrotzen dizkio, etorkizunari baiño. Urak ez daroa iñoiz ere. Izatez narea zan, eta oin geldian bizi zan : oro dendu, sen eta gurbil. Soin-

gogoz garbal, baikor eta begi-betegarri ageri da. Beste inor baiño lainkozaleagoa da. Ikusbegian dun ikuskizun ia ukala gogoko zaio, ta dana iainkoen esku-begidunen argitan ikusten du. Antxiñako ipuietatik alde ona ateratzen badaki, idurimenaren edergarri, adimenaren asegarri, ta gogoaren betegarri.

Antzerki bideetan barna Eskil izan zun bide-aurreko ta irakasle. Eskil K.A. 525 urteantsu iaioa zan ; Sopokel baiño ogei ta amar bat urte zarragoa, beraz. Elkar ongi artzen zuten, Aristopan'en « Igelak » irri-antzerkiak darakuskigunez. Laster aurrea artu zion Eskil'i. 468 garren urteko norgeiagokan lenengo saria atera zun Sopokel'ek. Arrezkero, anitz eta agitz geiagotan sarizatua izan zan, eguzkiaren azpian izan dan antzerki-idazle bikaiñetetariko billakatu arte. Iurrogei urte aunditan iardunean iraun zun. Suida'k dionez, norgeiagoka ogeitalau aldiz atera zun bere burua garaile. Diodor'en esanez amazortzi bider, Karisti'k dionez ogei alditan, eta inoiz ez omen zan gelditu azkenengo. Euripide bizitan bost aldiz garaille atera omen zan ; onen aldean, Sopokel'en garaipen ugariak badute kanore.

Erriko azi-orrazi ta gora beretan ikusi-bearra izan zun Sopokel'ek. Iostorratza baiño txintxoagoa omen zan gizon au. Ontan ere alde ederra zun Euripide'ri buruz. Au gogoetatsu ta arazotsu ari zan idazten, idazti artean. Bitan izan bide zan gudalburu Sopokel : lenengoz K.A. 440 garren urtean, Samu'ko gudaldian, ain zuzen ere. Erriaren ederra izaki, 443/2 urtetan elendar egingoa burutu zun : Nikia'rekin gudalburu izan bide zan bigarrenez. lainkozale miña izaki, Alkon sendagile gurenaren opaz yaureskuntzaren arreta lepora zioten. Askelepi'ren ikasle izana zan Alkon ori. Berebiziko oneraspena izan omen zion Sopokel'ek Askelepi'ri. Onen goratarrez eresi bat ondu omen zun, eta andik geroago ere erriak abesten omen zun. Ori dala-ta, Epidauri'tik Askelepi'ren irudia Atenai'tarrek erakarri zutenean, Sopokel'enean egin zioten aterbe ta etxalegor. Arrezkero ilda gero, Dexiôn izenondo edertu ta ospatu zuten.

Xeetasunok iakingarri zaizkigu, noski, baiña axalekoak ditugu, izan. Aren mamia ezagun nai genuke : olerkariaren eguneango ekanduak, aren ariurria, aren aldarte, alegia. Sopokel'en etxeke berri badugu, noski. Alare uste aundirik ezin dezaiokegu

ezarri, Elendarrek esames zale itoak baitzenitun, Irri antzerkietan eleak eta beleak banatu zituten.

Nikostate zeritzan aren emazteak, eta seme-alabak izan zituten. Ipon antzerkigillea seme zun. Ipon gazte zalarik, Sikione'ko Teori urdangarekin senar-emazte bezala bizi izan ziran biok. Ariston semea izan zuten. Ariston'ek aldiz Sopokel gaztea sortu zun. Sopokel zarrak berebiziko laztanez erabilli omen zun birbiloba.

Senideok inñolako buruausteak ekarri omen zizkioten olerkari aipatuari, leikide zirala-ta, eletak zirala-ta, etiketak zirala-ta. Etxeko atsekabeon oiartzuna bederen gure belarrietaraño eldu da. Gaztetan irakurri baikenun Kikeron'en « Zartzaroa » (22 g.z.). Plutarku'k berebat badakar ori.

Arrezkero auxe dugu egia : Sopokel bere bizitzaldi osoan ez zan egon narerik. Bestalde, maitasunaren sugarra bere baitan ateman zun. Ain zuzen ere, aren antzerkietan bi elaide edo adiskide agertzen diranean, batak bestea laztan du eskuarki, elkar, ordea, ez dira maite izaten. Urteak ioan, urteak etorri, laztanaldi luzearen ondoren, illunaldi ta nekeak besterik ez diraute. Lengo lillura beintzat galdurik dute. Oroi Deianeire ta Tekmese. « Erkala » ren asieran ageri danez, maitasun zakar eta gordiñak zerabillen Sopokel gaztaroan. Zartzaroon, zorioneko agure illezuri izan bear, gaztaroko kezka-miñak itzuri ta uztarri aztuna uraturik.

Erodotu'ren adiskide miña zan Sopokel, eta aren eragiña ta aztarnak ageri dira Sopokel'en antzerkietan. Orduko gizon'ik ospatsuenekin iardunean ari zan. Iai eder eta dirdaitsuek zituten : an zebillen gure olerkaria atsegin, mazal eta burutsu, ezpain ertzean irria. Iztun eder eta mintzalari andi zan Sopokel : an zitun bere erritarrak agoa zabalik eta belarriak ernaturik begira.

Edegin oneko gizona zan ! Andia benetan. Esku-eutsi ta zi-koitzat salatu zuten. Aberastu-miñak kilikatzen omen zun aren gogoa. Gauzak dakarrenez, aldeztu ta zuritu nai izan dute gizon ikasiek. Nor ote izpidean ? Nork iakin ? Obe ote soiñak uzkurteza ? Dana dala, zillarraren ederra ezaguna bide du. Baita beraren itsusia ere. Sarri madarikatzen du zillar zuriaren gosea (*Antigone'n* 295 t.a., 1037 t.a.). Erriko seme xeak irabazi-galez diar-

dute aren antzerkietan. Besterik uste izatea, alperra litzake. Alagerta oi da eguneango iardunean eta oi ez bezelako azi-orrazietan.

Orduko gertariak aztertzeko begiak zabalik zitun. Zenbait iarduki zakar ondoren, lagun batzuk elkar ezin burutuz alde egiten dute. Alagerta ageri dira *Aiatz'en* (1038 t.a.), *Oidipu Kolono'n* (1665 t.a.). Euripide sakerrearen adiskide miña ez zan : erdizkaman egon ziran : aren oldozpen saskara ta zurrunbilloa ez zun eder. Alare, aren antzerkien azal berria erabat onartu zun erri alaiak. Arrezkero alako zerbait Euripide'gandik ietxi zun Sopokel'ek. Adibidez, Oidipu soiñeko zar zikiñez iantzita, ille adatsxerlo biurriak buruan ageri da (*Oidipu Kolono'n* 1254 t.a.). *Tarakin'go Emaztekiak* deritzan antzerkiaren sarrera Euripide'ren eduz egin zun, baita *Piloktete'ren* azkena ere. Beraz, naiz ta garako gizona izan, aren gogoak zabal iraun zun zernaitarako.

Egikizunik latzena bere antzea izan zun. Bikaiñagotu, arean. Baita berritu ere. Irugarren antze-laguna antzokiratu zun. Bearrezko zuten berrikuntza ori. Era berean, abeslarien kopurua areagotu egin zun. Amabi abeslari ziran taldeko. Sopokel'ek ordea, amabost iarri zitun. Talde-erdi bakoitza, seikoa zun, beraz, bakoitzak bere burua izaki. Beste aldakuntza batek jaso aundiagoa izan zun. Ordurarteko antzerki irukoitzak batekoitz biurtu zitun. Norgeiangoetara irukoitza aurkeztu bearra zuten antzerkigileak. Sopokel'ek naiz ta iru antzerki aurkeztu, batak bestearekin zer ikustekorik ez zun.

Beste zerbait oroiterazi bear dugu : antzestu bear zutenen lagunari ariurri ta berebizikotasunei begira idazten omen zitun bere antzerkiak, idazle zarrek diotenez. Auxe da berri-berria ! Oraingo idazleek besterik ez dute egiten. Alare, aren izneurtuetan ageri diran lagunek ur andiko arraiñak dira eskuarki : ian-txakurrik ez da ageri. Bakan-bakanetan nasi oi du bere mintzoa antzezlagunenarekin. Beraren bizitzaldiaren ondarrean zan. Gudua zala-ta, goi-barrenetako bazterretan minduru ta negar-otsa besterik ez zan aditzen. Piloktete idazten ari zan gure olerkari laztana. Ta guduaren galgarri erdiragarria begietan izaki, guk ere damurik maiz esan duguna berebiziko miñez idatzi zun : « guduak

beranez zantar bat ere ez, baina, beti onak eran oi ditu » (Pilo-
tete 436).

Era berean, zartzaroaren dordo ta nekeak aipatzen ditute
agure zar okituek, *Odipu Kolono'n*, esate baterako.

Ark idatzi zitun antzerkien kopuru zeatza ainbatzea gaitz
egiten zaigu : askotxo idatzi baitzitun. Eunez goitik, noski. Bi-
zantziko Aristopani'k eun eta ogei ta amar zenbatzen ditu. Oie-
tatik amazapi ez omen ziran Sopek'ek idatziak, naiz ta aren
izenpean agertu. Aburu ontara eun eta amairu idatzi zitun. Sui-
da'k Sopokel'en eun eta ogei ta iru antzerki zenbatzen ditu. Da-
na dala, askotzak egin zitun. Orainaldian, ordea, aren zazpi an-
tzerki oso besterik ez ditugu. *Aiatz, Antigone, Oidipu bakaldun,*
Elete, Tarakin'go Emaztekiak, Piloqtete ta Odipu Kolono'n,
alegia. Ta beste zenbaiten txatalak. Ditugunok, ordea, aski ditu-
gu idazlea, ez-ilkorren artean, goratzarrez ta elesariz edertzeko.

Dakigunez, Sopokel aurkeztu zan norgeiagoken taxu zeatza
nolarebait antola dezakegu, idazle zarren esanak bilduta : aur-
renekoz garaile K.A. 468'garren urtean izan zan. *Triptolemu* aur-
keztu zun, ausaz, Plini zarrak alde-alde bota zunez.

441'garren urtean *Antigone* antzerkiak inolako garaipen dir-
da:tsua izan zun. 438'garren urtean berriro garaile atera zan. Bi-
garren Euripide izan zan, beraren *Alkesti'rekin*. 431'garren urte-
ko sariketan aurrena Eurorion, Eskil'en semea, bigarren Sopokel
ta irugarren Euripide izan zan bere *Medeie* ospatsuarekin. 409'
garren urtean lenen atera zan Sopokel *Piloqtete'rekin*.

406'garren urtean il zan, zenbait astebete « Igelak » antzestu
aurretik. Iraizean aipatzen du Aristopan'ek ; aieru ditekenez, irri-
antzerki au Aristopane idazten ari zanean, il egin zan Sopokel.

401'garren urtean Aristo'nen semeak, Sopokel gazteak ale-
gia, aitonaren *Oidipu Kolono'n* antzeztezaki zun. Antzerki au
ga'n-gainetikotzat zeukaten antxiñakoek. Garai artan entzun zu-
ten azkenengoz Atenai'tarrek Sopokel'en mintzo ederra, beraren
aberria goستن eta aren erritarren biotz zabala goraiatzen. Az-
keneraiño kirmen iraun zun olerkariak.

Aren ilotza, aitaren illobian eortzi zuten, Dekeli'rako bidean,
erritik amaika estadi ortxe antxe. Aren illobiaren gainean seiren

bat ezarri omen zuten, Sopokel olerkariaren irudi ta edergarritzat. Bertan iauretxea eraiki zioten gizuren bailitzan, ta urtero opariak eskeiñi oi zizkioten.

Azkenik, auxe esan nai dizut : idazle edo antzerkigille danaren pozik aundienetakoa auxe duzu, ametsetan mamitu dun nor edo nor benetako bizitan-edo ikusi al izatea, alegia. Sopokel'ek sorterazi zitun Aiatz, Oidipu, Antigone, Tekmese, Deianeire ta abar berebiziko adorez betiko tankeratu ta bizieraziak dituzu.

Sopokel'en antzerkiak erabat artuta.

Eskil'arenak baiño askozaz ere liriku-ezagoak ta Euripide'renak baiño areago dituzu. Abeslari taldearen iardunak motzagoak dira eskuarki. Alare badu zer ikusi abeslarien iardunak, antzerkiaren arian. Orrelakorik ez duzu Euripide'ren abeslarien iarduna. Alde ori Aristotel'ek berak ateman zun. Abeslari-taldearen iardunetan ez, beste ataletan liriku atal gutxitxo ditu : alare, baditu zenbait lilluragarri ta arrigarri, adibidez, *Oidipu Bakaldun* deritzan antzerkian.

Ortik datorkio Sopokel'en antzerkiari eragiñagoa izatea. Sarraera eder, edo eztiaren ondoren, zenbait gertari azaldu oi ditu. Auxe du ederrenik : gertariok antzes-lagunen berebiziko ariurriak sorterazten ditute eskuarki, ta gertariok azkena ekartzen dute.

Sopokel'en antzerkietan auzi bat oi du gaitzat : antzerki irukoitzik ez du, Eskil'ek bezela, batekoitzak baizik.

Giza-naimen eta eragiñak ioan etorri andiagoa du Eskil'aren antzerkietan baiño. Alare, alabear aldakaitza beti onarturik, aren gizurenak bere kabuz ari dira, nork bere burua bere eskuko izaki. Bakan bada ere, zenbait alditan, alabear aldakaitz ori itzuri nairik ere, bere egiten dute, *Oidipu*'k esaterako.

Giza-ariurriak. — Eskil'ek baiño aztertuago ta sakonago du giza-gogo. Luze, zabal eta sakonean aztertu ondoren, guzian begietara oi dizkigu. Bigarren mailako egingoa duten gizalagunak ere txukun azalduta aurkezten dizkigu, *Ismene*, *Neoptolemu*, *erriko-seme* geznariak ta abar, esaterako.

Antzez-lagunon ariurria bide ainitzez bulartzen digu, aurkako agertuta (*Antigone* ta *Ismene*, *Eletere* ta *Kirisotemi*), naiz elkarizketaz edo etiketaz (*Kereon* eta *Antigone* ; *Oidipu* ta *Teiresi* ;

Odiseu ta Neoptolemu, Teuker, Menelau, Agamenon eta Odiseu).

Naiz ta ioera askotako ariurriak izan, bere artan beti bat gotorrik diraute. Egia esan. Eskil'aren antzez-lagunen ariurriak ere aldakaitz dituzu ; onengan, ordea, gertariak berak gutxi aldatzen dira, Sopokel'en antzerkietan berriz, gertariak aldakor dituzu, gizurenak, baiña, lengo lepotik dute burua, esate baterako, Antigone'k, Oidipu'k eta abar.

Egiazko gizakumeak dira, gaiñera. Ez dira zurrun, Eskil'aren gizurenak bezala. Elkar-laztan eta gorroto dute, ta gizakumeen biotzondoak oro bere ditute. Besterik ezean, oiu ta garraixi egiten dute miñaren miñez, erakusburuz, or duzu Piloktete, Oidipu, Erakel, Aiatz ta abar.

Gizakumezko ariurriak dira, geien bat. Erraldoi ta iainko txiki gutxi agertzen ditu. Bestetara azaltzen ditu Eskil'ek.

Alabañan, gizakumea izan bear luken bezalakoa azaltzen omen du Sopokel'ek, eta ez dan bezalakoa : Euripide'k ordea, alderantziz : gizakumea dan bezalakoa agertzen omen du, ez izan bear luken bezalakoa. Aren gizurenak naiz ta akatsak izan, beti dira uren, eta aitorseme. Iñoiz ere ez dira esku-eutsi, koldar, berekoi ta erabateko gaizto, Euripide'ren antzerkietan bezala.

Bereizgarri dira zenbait gizakume : *Oidipu* zuzen, egiti, zindo ta on duzu. Erriaren ona nai du, beste ezer baiño areago. Oldarkoi duzu, ordea, iainkoei buruz muturturik iartzen da. Goganbearrez ta aieru utsez, Kereon errudun uste du. Iaiotzaren kuxelu ostena ainbat laisterren agertzen ez diolako, esatekoak esaten dizkio morroiari. Gertari osoaren errudun bere burua dala atzematean, bere buruaren aurka iartzen da, ta aserre-sumiñez bere begiak erauzten ditu : *Oidipu Kolono'n* eztiago, itzalgarriago, ta buruzuriago ageri da.

Antigone, neskatz sendo ta kementsua da, iauntxoei buru egiteko beldurrik gabea. Berebat laztan eta biotz ederraren iabea. Anaiarenganako onginaia du gogor egitearen erro ta zergatikakoa. Ismene aizpari buruz gogorregi izan arren, betillun gertatzen da erio urreratzen zaionean.

Eritasunak lur-iotako gizona duzu *Piloktete* : erbestean bizi

bearrak minkaiztu egin du aren gogoa. Arerioei buruz gorrota beltza du ta etxera itzuli nai du. Erbesteratuen ariurria, benetan. Erritar bat arkitzean pozkario da, ta Neoptolemu laztan du. Maiz betillun, aserre ta etsi-etsirik dabil, azkenean, ordea, narerik ageri da.

Neoptolemu gazte aldakorra bere esanetara dakar Odiseu asmogin, asmatzaile ta amarrutiak, gero, ordea, garbaitu egiten da.

Aren *abeslari-taldearen eresiak* eder, guri ta bikaiñak dira : alare, Eskil'arenak aberatsagoak, iaukalagoak eta kementsuagoak dira eskuarki.

Dana dala, Sopokel'en eresi garbi, garden eta baretsuak Elade'ko olerkariari buruz dugun ustekizuna egiztatzan dute erabat. Eresi egin-egiñok Atenai dirdaitsuko eguzkipean abesteko egoki-egokiak dituzu.

Idaztankerari gagozkiola, Eskil'ena baiño argiagoa ta aratza-goa duzu Sopokel'ena, elkar-izketan batez ere. Malgu, etorkor, eta erreza duzu Sopokel, izneurtuaren uztarria arin eta legun eramanki. Betegiña bezin xaloa ta bakuna duzu, ta orobat neurri betea azaltzen du. Etorkor izan arren, etorri andiko olerkari duzu. Irudiz erlantz, itzez eder. Bein edo bein bekalde bakanen bat badarabil, Oreste'ren aurtzaia zaldi zar batekin alderatze-koan, adibidez.

Sopokel'en aintzak ez du itzalunerik izan mendez mende ta gizaldiz gizaldi. Eskil baiño ulerterrazago izaki, aintzatago izan dute beti. Atenai'tarren olerkari laztanena izan zan.

Bake-ald'ko atsegiñak Aristopan'ek ainbatzean, Sopokel'en antzerkiak ikustea zun bata. Erroma'ko Kikeron'ek olerkari iainkotierra deritza. Orainaldiotan gizon ikasiek narerik eta atsegiñez irakurtzen dute ta erriko semeak ere ikaratzen ditu. Paris'ko antzokietan maiz agerterazi izan ditute Sopokel-en antzerki entzute-suak.

Erabat esan : Sopokel'en etorria, antze ta ederra, Eskil'arena baiño egin egiñagoa duzu. Pidia'ren arlanduak bezela, aren antzerkiak antze-lerrorik gorengoa atzeman dute : xalo, bakun, egi-ti ta ederraren guraz bete ta orrillo duzu, izan ere. Iñork baiño areago agertzen du Elade-ko eder eredua.

AIATZ

Atariko.

Akileu'ren iskilloak zirala-ta, norlenka egiña zuten, zer nork beretu iakiteko. Agamenon eta Menelau'ren urgaziz, Odiseu'k iaso zitun iruzurrez. Aiatz eskerga ao-bete ortzekin utzi zuten. Adiskide aiekin autsi zun arrezkero. Ori zala-ta, bi gudalburu ta Odiseu'ren txaboletara oldartu zan Aiatz, aserre ta sumiñez irakiten. Gaiñez egin eta irurok il nai izan zitun Aiatz'ek. Azene iainko-emearen esku-altsua tarteko iarrita beaztopo gerta zitzaien, damurik. Zorarazi egin zun, alegia, eta bere burua bere senean ez zula, artalde ta abelgorrietara io ta iñolako sarraskia burutu zun Aiatz erotuak. Oillaritean, goganbear eta aieru guztiak aren aurka egozten ditute ta Odiseu'k bere gain artu du auzi orren aztarrenak artzea.

Ementxe asten da antzerkia. Sarreran bertan gertatuaren berri ikasten du Odiseu'k, Azene'k berak iakinerazita. Erokeriaren mendeko ageri da Aiatz bera, antzerkiaren asieran. Bere senera itzuli zaneko bere burua lotsaren lotsez urtuta ikusten du, bere ustea ustel irten zitzaiola-ta. Bere asmoan bertan tinkaturik dirau oraindik ; bere etsaiak oro abarrakitu naiean. Alegia. Etsaitzenago da : Tekmese'n eskabidez gogoetan iartzen da, ta emaztea ta Eurisake semetxoa etsaien atzaparretan uzteko beldurak asmoz aldatzen du. Arerioen aurka io bearrean, bere burua iltzea erabakitzen du, arrezkero. Erabaki ta egin. Illotz hura eortzi ala ez eortzi, duzu gero auzia. Egundoko eztabaida dute Teuker, Agamenon eta Menelau'k. Beingoan zuritzen du liskarra Odiseu'k. Illaren aldeko iartzen du bere burua Odiseu'k, bear zanez eorzteko agindurik.

Antzerki-lagunak

AZENE iainko-emea.

ODISEU, kepalenetarren buruzagia.

AIATZ, Salamin'eko bakalduna.

TEKMESE, Aiatz'aren izter-anderea.

EURISAKE, aurra, bi-bion semetxo.

TEUKER, Aiatz'aren ugaz-anaia.

MENELAU, Esparte'ko bakaldun.

AGAMENON, Eladetarren gudaiburu nagusia.

GEZNARI bat.

Eurisake'ren AURTZAIA.

Menelau, Agamenon eta Teuker'en laguntaldek.

ABESLARI-TALDEA, amabost itsas-gizonek osotzen dute.

ABESLARI-BURUA aintzindari dala.

ANTZEZTOKIA. — *Izpazterrean Eladetarren kapardia (1) ageri da, Troia'ri alaz egin ziotenean (2). Ezkerrera zelaia ta erdi-erdian Aiatz'en kaparra; eskubira beste zenbait kapar lerroz-lerro tinkaturik. Ara ta ona dabil Odiseu, ondartzako oiñatzak arretaz azlerka. Begiz ikusi ez arren, gainean dauka Azene, Iainko-mintzategi aldean zutik. Eguna zabaldu danekoxe, antzerkia asten da.*

SARRERA.

Azene'k. — *Laerti'ren (3) seme ori ! beti noski ataizean (4) ikusi zaitut, areriores bat eizean atzeman zur anteak egiten (5). Orain bertan ere, Aiatz'en izpazterreko kapar urren ikusten zaitut, kapardiko azkena arena bait da. Aspaldion, aren oiñatz egin-*

(1) *Kapardi* : kapar, tienda de campaña, ortik *kapardi* kapar sailla, gudari-txabolen tokia.

(2) *Alaz egin* : arrantzu-tokian txalupak lerroz lerro tinkatzea adierazten du berez : ortik gudariek erri baten baranoan gelditzea erasota porrokatzeko : *acampar, asediar*.

(3) *Laerti* : Odiseu'ren aita.

(4) *ataizean* : lorratzean, kuzkuzka : en acecho.

(5) *anteak egin* : antolak egin : hacer diligencias.

berriak, zakur antzo, ausnatuz ta neurtuz ari zera, barruan ala lekorean dagonentz ikusteko. Ez zabiltz bidea galduta, Lakainezakur (6) sudur onekoa bezela ibilki. Begi-bete ezker (7), barruan baitago gizona, ezpataz iltzen duten eskuek eta burua patsetan blei-blei izerdia tantaka daritela. Onezkero, atetik barnera begiak zorrozten ari bearrik eztuzu : noren ederrez egin-bideok egiten ekiñalean ari zeran esatea, noraezeko (8) duzu : irakatsiko dizut, iakiñen gaiñean bait-nago.

Odiseu'k. — Oi, lainkoetan laztanen zaitudan Azene'ren mintzoa ! Ikusi-ezin zeran arren, ezagun erreza zaitut, zure otsa baitantzut eta nere baitan ozen zorarazten bait-nau Tirreni'ko (9) borontze-tuta dun turutak bezela (10). Oraingoan bai aotik atera didazu (11) : gizon arerio baten ibileraz galdeka ari nauzu or-emen. Aiatz babeskidunarenak alegia. Aspaldidanik aren aztarnen billa diardut, ez beste iñorenik. Bart egiteko ederra egin baitigu, oiek berak egin izan balin balitu, beintzat. Argi ta garbi deusik eztakigu iakin, ta batean batera ta bestean bestera keko-meko gabiltza, ordea. Ta nere baitarik bertan berako lanbide orri (12) uztarperatu natzaio ni. Abarrikaturik (13) eta eskuz lepo egiñik aurkitu baititugu artaldeak eta orobat artzaiak ere. Ari egozten dio nor-naik errua. Ordokiak barrena eskuetan ezpata odol-ixuri berritan uieldurik (14), bera iauzika (15) oldartu zala ikusi zun ikusle batek esan eta zearo ta mearo (16) azaldu zidan. Berealakoan, aren aztarnen billa oldartu naiz : batzu, noski, eza-

(6) *Lakaine* : Elade'ko eskualdea.

(7) *Begi bete ezker* : oraintxe bertan, mementuan.

(8) *noraezeko* : bearrezko.

(9) *tuta* : turutaren aoa.

(10) *Tirreni* : Mediterrane itsasoaren aldea, Itali'ren sartzaldetiko izpazterretik Sikili'rañokoa, alegia.

(11) *aotik atera didazu* : esatekoa asmatu didazu.

(12) *bertan berako lanbide* : berezko lana.

(13) *abarrikaturik* : txiki-txiki eginda.

(14) *uieldurik* : blai-blai eginda, busti-busti eginda.

(15) *iauzika* : ikotika, saltoka.

(16) *zearo ta mearo* : zain eta muin, ots, ipi-apa, kako ta zertzelada guziz.

gunak ditut, bestetzu ikusiz balditu (17) egin naiz ta norenak ditezkenik eztakit. Garaiz etorri zatoz, ordea. Lengo ta geroko edozertan zure eskuak zuzentzen bait-nau, endaizlari antzo. (18)

Azene'k. — Iakin banekin, Odiseu, ta aspaldion bideak zear zure eize-aldian gogatsu iagole billakatu natzaizu.

Odiseu'k. — Nere alegiñetan abagunez al nabil, andragoi laztana ? Ta zergatik orren burugabe oldartu da ?

Azene'k. — Akileu'ren iskilluak dirala-ta, aserrez sumin zegon.

Odiseu'k. — Zergatik, ordea, artaldeci buruzki io du ?

Azene'k. — Zuen sarraski (19) - odoletan eskuak gorritzen zitula uste baitzun.

Odiseu'k. — Aren asmoa, beraz, Argutarren (20) aurka ote zan ?

Azene'k. — Ta burutu ere egin zezaken, zabartuxe izan ba'nintz.

Odiseu'k. — Zer-nola daiteke orren ausarkor eta beldurrik gabe ?

Azene'k. — Bart zuen aurka oldartu zan masti-aitzurlari (21).

Odiseu'k. — Gureganaño etorri ta io-muga iritxi al du ?

Azene'k. — Bai, noski, bi gudalburuen ataurrean zegon, egon ere.

Odiseu'k. — Ta nola eutsi diote esku sarraski-miñari ?

Azene'k. — Neronek eragotzi diot ; begietan ustekizun ai-

(17) *balditu* : arritu.

(18) Auxe dakigu, orainarteko berriak bildurik : ollaritean zenbait abelgorri ta giberri lepo-eginda aurki ditute : guzion egille Aiatz ote danentz goganbeartu dute : Akeu'tar buruzagiekin muturrez mutur baitago Aiatz. Aztarrenak artzeko itza emanik du Odiseu'k. Ordo-kiak barrena, eskuetan ezpata odol-isuri berritan uielduta Aiatz ikusi du norbaitek. Berealakoan, aren aztarnen billa oldartu da Odiseu ta aren kapar-ondora io du.

(19) *sarraski* : mortandad, matanza.

(20) *Argu'tarrak* : Argu'ko bizi-lagunak. Asieran Argolide'ko uria zan Argu. Geroago Peloponese osoa adierazi zun, eta azkenik Elade osoa. Ortik Argu'tarrak Elade'ko bizi-lagunak.

(21) *masti-aitzurlari* : nahas-makil : intrigante.

zunak ereinda, poz galgarria ken-erazi diot ; ta banatu gabe ta nahas mahas itzaiek zaitzen zituten artaldetara eragin diot : ara oldartu zan, eta adar abereak sarraskitu egin zitun, baranoan bizkar-ezurra autsirik : bere eskuz bi Atereu'tarrak (22) il-iduri zitun, batean ; bestean, berriz, beste gudalbururen bati iardoki iduri zion. Erokeriz bidea galdutako gizon ori neronek zirikatu egin nun, esi galgarrietara bultzatuz. Ta gero, bere arloa bukatu-ala, burua iaso, ta oraindik bizirik zirauten idiak, eta artalde osoak uztarturik etxeruntz eroan daroaz gizonak bailiran, ta ez adardun eizaki ; eta orain bere baitan oin-eskuak uzkaldurik (23) gorriak ikusi-erazten dizkie. Erokeri au argi ta garbi erakutsiko dizut, ikusi ta Eladetar guziei ialki dezaiezun. Ez beldurrik izan, itxoiozu, ta gaitzik ez duzu iasoko gizonagandik : aren begi iraulien argia okerreraziko diot, eta zure arpegia ez du ezagutuko (24). Ots ! zu, atxilotuei eskuak atzekalderaturik goroitiz uzkalzten ari zeran ori ! ots ! zatoz ! Aiatz'i deika nauzu ! zatoz tegi aurrera.

Odiseu'k. — Zer dagizu Azene ? Iñola ez iozu otsegin lekorera.

Azene'k. — Ez al zera ixillik egongo ? Ez ezazu bildurrik izan.

Odiseu'k. — Ez, iainkoarren ! Barnean gelditzea dauka.

Azene'k. — Zeren estu ta larri zera ? Ez al zan au lenago gizon. ala ?

Odiseu'k. — Ta nere etsaia, noski, oraindik ere.

(22) *Atereu'tarrak* : Atereu'ren semeak, Agamenon eta Menelau, alegia.

(23) *uzkaldu* : oin-eskuak lotu.

(24) Odiseu beldur-iariorari iñakaz ta gordin azaldu dio Azene'k : ain zuzen ere, Akileu'ren iskilliak zirala-ta aserre Aiatz'ek burutu du sarraski gorri ura, Iskillio aiek Odiseu'k bipildu baitzizkion. Arrezkero, Atereu'tarren eta Odiseu'ren aurka dabil Aiatz. Lo ziranean, orien kaparreraño eldu zan. Azene tartetu egin zitzaion eta zorarazi egin zun, artaldeetara Aiatz'i eragiñik. Eroturik Aiatz'ek zenbait ardi, ahari ta abelgorri eroan ditu bere arerioak bailiran, gorriak ikusi-erazteko. Beldurrarren Odiseu lastu erazteko, Aiatz aurkeztuko dio Azene'k.

Azene'k. — Etsaiei buruz par egitea ez al da parrerik ez-tiena ?

Odiseu'k. — Neri, ordea, gizon ori barnean egotea aski zait.

Azene'k. — Gizon zoro baten buruz buru ikusteak ikaratu egiten al zaitu ?

Odiseu'k. — Senean ba'lego (25) ikararik ez nuke egingo, aurki.

Azene'k. — Oraingoan, ordea, naiz ta alboan euki, ez zaitu ikusiko.

Odiseu'k. — Nola daiteke, ordea ? ikusi begi beurez baitakus.

Azene'k. — Ikusi badakusketec, begiak, ordea, lausoaraziko dizkiot.

Odiseu'k. — Dana daiteke noski, iainkoen bat tarteko izaki.

Azene'k. — Orain zaude ixilik, ta zaude zaudenez.

Odiseu'k. — Geldituko naiz noski ; emendik urrun egongo ba'nintz, ordea, naiago nuke.

Azene'k. — Ots, Aiatz, bigarrenez otsegiten dizut. Zure gudukideari orren iaramon gutxi egiten al diozu ? (*Kaparretik ateratzen da Aiatz, burtzaturik, eskuetan idabiurra (26) odc leta7 blei-blei.*)

Aiatz'ek. — Agur, Azene, agur Tzeu'ren alaba ! Garaiz bai-zatoz ! Urrezko sarraskiz buruntzatuko zaitut, eizaki onen esker onez.

Azene'k. — Ederki esana : esaidazu, ordea, auxe : Argu'tarren gudostean ongi gorritu al duzu ezpata ?

Aiatz'ek. — Illarraindu (27) naiteke, noski, ta egundaiño ez dut ukatuko.

Azene'k. — Ta Atereu'tarren buruzki ere burrundarazi al duzu zure ukabilla ?

Aiatz'ek. — Aurrerantzean, beñik bein. Aiatz ez dute itsu-sicrazi al izango noski.

(25) *senean egon* : estar en su juicio

(26) *idabiur* : idaur, zaharo.

(27) *illarraindu* : arropuztu.

Azene'k. — Illak dira gizonok zure esanaren arauz.

Aiatz'ek. — Illak onezkero ; etorri betoz nere iskilluak biltzera.

Azene'k. — Ala da : Laerti'ren semeaz, ordea, zer ? zer gertatu ote zaio ? Iges egin al dizu ?

Aiatz'ek. — Zakur maltzur hura nun dan galde egiten ote didazu ?

Azene'k. — Baiki. Odiseu zure aurka daukazuna diot (28).

Aiatz'ek. — Ene Andregoaia, barnean datza billurtuetan (29) eztienea : oraindik bera iltzerik ez dut nai.

Azene'k. — Aurrenik zer egin gogo diozu ? edo, zer beste irabazi atera nai diozu ?

Aiatz'ek. — Tegian sapaiko zutabeari lotuta...

Azene'k. — Zer gaitz egingo diozu zoritzarreko orri ?

Aiatz'ek. — Lenik zaharoz bizkarrak odolustu ta gero il (30).

Azene'k. — Ez ezazu gaitzitu (31) onela zoritzarreko ori.

Aiatz'ek. — Zuk opa-ala beste edozer eskatu idazu, otoi : ark, ordea, zigor au iasango ta ez besterik.

Azene'k. — Erabili ba, eskua, ta buruan iraultzen duzunik ez ezazu itzuri, ori egitea atsegin zaizun ezker.

Aiatz'ek. — Banoa arlo ontara : zu, berriz, alako gudu-lagun beti izango al zaitut, arren bai arren. (*Kapar barnera badoa*).

Azene'k. — Badakutsu, Odiseu, iainkoen indar andia ! Gizon ori baiño gurbillagorik (32) edo egitekoetan dagokan oro

(28) ἐνοστάτην itza, bitara aditu diteke, « arerio » ta « aurrean daukazuna » ta gaitzakeriz darabil Sopokel'ek. Bigarren esanai au esaterik ez luke opa Odiseu'k aldi ontan. Euskerazko « aurka daukazuna » ere biotara artu diteke, nik uste.

(29) *billurtu* : lotailuz edo estekaz edo lokarriz lotu.

(30) Odiseu tautik esateke dago. Estu ta larri egon bear zun. Azene zirrika dabilkio Aiatz'i : Odiseu'ren izena entzun zuneko, arenganako gorroto beltza azaltzen du Aiatz'ek ; loturik daukan aharia, Odiseu dalakoan dago Aiatz : zaharoz bizkarrak odolustu ta gero il egin gogo du. Alakorik burutik ezin kendu al izango dio Azene'k eta ezinean, ortarako berotzen du.

(31) *gaitzitu* : mindu.

(32) *gurbil* : zuhur, neurritsu.

burutzeko andiagorik arki al izan duzu ?

Odiseu'k. — Inor ez dazagut, nik beintzat. Alare, erabat errukien dut zoritxarreko ori, naiz ta etsai izan, alabearrez zoritxarrari loturik baitago : nereari bezin-bat arenari so egiten baitiot. Bizi geranok iduri uts edo itzal arin besterik ezkerala baitakust.

Azenc'k. — Onelakoak, noski, ikusirik, iainkoen aurka bein ere ez ezazu itz arorik esan ; edota, beste edonor baiño esku-indartsuagoa edo aberats okituagoa ba'ziña ere, ez zaitez oillartu : gizonarekikoak oro egun batek eratxi ta berriz eraiki egiten baititu : gogoz neurritsuak laztan ditute yainkoek eta gaiztoak gorroto (33). (*Ezabatu egiten da Azene ; alde egiten du Odiseu'k eta abeslari-taldea agertzen da antzokian : itsasgizon salamindarrak osotzen dute :*)

ABESLARI-TALDEAREN SARRERA

Abeslari-taldea'k. — *Erriaren oiñarria itsasora daukazun Salamin izpazterreko Telamon'en seme ori !* (34). Zerau zorioneko zeranean, pozarren atsegiñetan egoten naiz. Tzeu'ren ukaldiak io, edo, Danau'tarren (35) itz gorriak beztu ta iardokitzen zaitutenean, ordea, beldurrez ta ikara lauorrian izaturik oi naiz, uso egalarien begiak bezela. Onelaxe, bart arratseko deadar aundiz belarriak eltzagorturik, (36) zurrumurri ardaillak zurturik gauzka : zaldiak ipurñauzka diarduten larrera oldartu ta Danau'tarren abereak, eta aitzamakil muturrez atzemandako gañon-

(33) Odiseu'k iaso ditun Azene'ren aolkuak, gerokoan on egingo diote, noski, antzerkiaren azkenean agertuko danez. Oraindik eroturik lekutzen da Aiatz, ta Tekmese dagon txabolara barneratzen da. An bertan ditu bere arerioak, gorriak ikusi-erazteko : ardi ta ahariak bere izterbegiak diralakoan baitago.

(34) *Telamon'en seme ori* : Aiatz, alegia.

(35) *Danau'tar* : Danau'ren ondorengoak. Argu'tarrak, alegia, ortik Eladetarrak.

(36) *eltzagortu* : xortu, sogortu.

lzeķo abereak abarrakitu egin dituzula, burni goriz illik, alegia (37).

Orra Odiseu'k aopean txutxumutxuka asmatu eta guziei berrira dizkien itz ixillak, eta erabat zuritu ditu. Zutzaz orain, siñisgarriak esaten ditu eta esaten dituna baiño pozago dabiltz entzuten diotenak, zure ondikoak aokaldiz isekatzuz (38). Utsik ezin dezakezu egin gogo aundien aurka erasorik. Nitzaz alakoak norbaitek esango ba'litu, ez lituke limurtuko iñola ere : daukanaren aurka zirrist egiten du bekaitzak. Arrezķero, aundiengandik alde, txikiak arresiaren babes aul dira : aundiekin, ordea, apalak onenik lirake eta aundia txikiagoak sendotuko luteke. Ergelei, ordea, itzurrok alde aurrez irakastea ezinkizun da. Alako gizonak asaldatzen zaitute abarrotsez : guk, berriz, guzoi buruz gure buruak babesteko, ezer ezin dezakegu zu bage, iauna (39). Zure begiak itzurtzen ditulenean, egazti-saillak bezela garraixika oiu egiten dute : ez-ustean agertuko ba'ziña, ordea, sai andiak izuturik, berealakoan ixilduko lirake mintzul.

— Oi surmur aundia, nere lotsa gorriaren ama — zezenak iraultzen duten Tzeu'ren Artemi'k erri osoaren bigantxa-taldeetara saillean oldartu-erazi ote ziñun, naiz gurenda-sari agor batengatik, naiz ildako gurenak dirala-ta atzipeturik, edo, bezuza (40)-bageko orein-eiza utsala dala-ta ? Ala, aiztaga elkartuaren aserrebidea izaki, gaueko maltzurķeriz iraiña ordain-erazi ote dizu Eniali (41) borontzezko bular-oskoldunak ? Zure baitarik ezpaitziñan egundo okertu, Telemon'en seme ori, artaldean gain oldartzeko alakoan : yainķoen gandiko eriak io bide zaitu : ar-

(37) Alpatu surmurrok ez ditu barreiatu Odiseu'k antzerkiaren sarrera ondoren, lenago baizik. Surmurrok ziotenez, Aiatz zenun sarraski aren errudun eta barreatzen ari zan Odiseu.

(38) zure ondikoak aokaldiz isekatzuz : mofarze de sus desgracias con insultos y hablillas.

(39) Aul eta txikiok Abeslari-taldekoak dituzu, Aiatz, berriz, aundia. Bere buruzagi gabe, ezertxo ezin dezakete, naiz ta habestu nai izan : arerioek oillarturik dabiltz, Aiatz agertzen ez dalako : ez-ustean agertuko ba'litz, berealakoan ixilduko lirake mintzul.

(40) bezuza : esku-erakutsi, atsegin-sari, opari.

(41) Eniali, itzez itz guduzale, Are'ren izengoitia.

gutarren (42) mardailkizunetatik begiratuko al gaitute Tzeu'k eta Poib'ek (43). Gezur otsez ziri ederrak sartzen ari ba'lira iaun aundi-maundiek ta Sisipu'ren (44) etorki galduak, ez, ez, ez, errege surmur ezaiña eraiki ez dedin, izpazterreko kaparretan orrela ez ezazu zure burua euki (45).

Iaiki'ta atera zaitez tegilik, ordea, bertan luzaroegi atsedean eragiñean murgildurik baitzaude, ondikoaren (46) sumiña ortzi-raño sularaziz. Aize-begiko araretan barrena oldartzen da are-rioen lotsagabekeria, ezereen beldurrik gabe : guziok iñakaz parrezantzoka belarri-mingarriak ixuriz, ta atsekabeak atzemanik mukuru egiten dit nere baitan (47).

LENENGO GERTARIA

Tekmese'k. — Aiatz'en ontzi laguntzalleok ! Erekteidar (48) iatorren etorkiko oiek ! Telamon'en urrutiko etxearen lleba artu dugunok (49), badugu erostarik aski. Aiatz izugarri, eskerga, bizkar-indartsua, orain, etzanda baitatza ekaitz zikiñak eroturik (50).

Abeslari-talde-burua'k. — Atzoko dordoa zertan aldatu da bart ? Pirigi'ko Teleuta'ren (51) alaba orrek, esaiguzu esan, aiztagaz irabazitako oaidea zu izaki, Aiatz oldarkoiak atsegiñe-

(42) *Argu'tar* : Eladetar.

(43) *Poib*, itzez itz « dirdaitso » Apol'aren izengoitia.

(44) *Sisipu*, Korinto'ko bakaldun azpikeriz aipatua.

(45) Bi aieru buruak ematen dizkie Abeslari-taldekoei Aiatz'en aurkako surmurrok ulertzeko : utsen baten erruz mindurik Artemi'k ortaratu du, edo, Are'k aserreturik ziria sartu dio. Izneurtuotan bi gaitz leporaturik ditu Aiatz'ek : ots, abereen sarraskia ta erotu zalazkoa.

(46) *ondiko* : zoritxar.

(47) Aiatz'en aurka iñakaz parrezantzoka belarri mingarriak ixuriz ari dira arerioek eta euren lepotik ere iseka egiten die : guzi ori mingarri dute Abeslari-taldakoek.

(48) *Erekteidar*, Erektei'ren ondorengoak, Atenai'tarrak, alegia.

(49) *lleba artu* : tomarse interés : llebarik artu ez : no tomarse interés.

(50) Argi ta garbi Tekmese'k esaten die Abeslari-taldekoei : Aiatz eroturik da, ta abere-sailak berak lepo egiten ditu : surmurrak ziotena egia gertatu da damurik.

(51) *Teleuta* : Tekmase'ren aita.

tan laztandurik baitzaitu, ez-iakiñez eztiguzu mintzatuko-ta.

Tekmese'k. — Itz esan-eziña nola esan, ordea ? Erio besteko (52) dordoa (53) entzun bear baitidazu. Bart Aiatz ospatsua, erokeriak atzemandu, laidotu egin da. Kapar barnean zeuk ikusi ditzakezu, gizon ark bere eskuz lepo egindako opariak odoletan blei-blei.

Abeslari-taldea'k. — *Gizon kartsu orri buruz erakutsi didazun berria ! Eroan eziña ta itzuri-eziña, noski ! Danau'tar aundi maundiek (54) barreiatu susmurra bera bapikatuz daroa ele aundiak. Ene ! datorrenak lauorritan nauka ! Guzion ikusbegian il egingo da gizona, ezpata odoltsutan lepo-egin baititu esku zoroz nahasi-mahasian artaldeak, unaiak eta zaldi-zaiak (55).*

Tekmese'k. — Ene ! Ondikotz ! Andixetik, andixetik etorri zitzaigun giberriak lotuta ekarki (56) : oiatariko batzuei lurrean lepoa moztu, bestetzuei saietsak urraturik erdibitu egin zitun. Gero, bi ahari oin-zuriei oratu, ta batari burua ta mingaiñ erpiña itaiturik, iraitzi egin zitun ; eta bestea, zutabeari zurrun loturik, zaldi-ugal aundia artu, ta zaharo bikoitz burrundatsuz io egin zun, iainkoren batek irakatsitako itz beltzak iaukiz (57), gizonetarik iñork irakatsiak ez, beintzat.

Abeslari-taldea'k. — *Burua estalkiz kukuturik (58) isil-ostuka oiñez igesari emateko, edota, arraunlari zaluen tostan (59) eserita itxasoan burna ontzian urrunera ioateko garaia da, noski baiño*

(52) *Erio besteko* : erlotza bezelakoa.

(53) *dordo* : neke, lor, korapilo, durdu.

(54) *Danautar aundi maundiek* : Agamenon, Menelau ta Odiseu, alegia.

(55) Arrezkero gaitz aundiak sortu ditezke : Aiatz il arte ez dira narerik egongo Atereu'tarrak. *Unai* : artzai, bei-zai, idi-zai.

(56) Atereu'tar eta Odiseu'ren kaparretatik etorria zan Aiatz, beatez erakusten denez Tekmese'k, andixetik, andixetik esaterakoan : bi ahari oin zuriak Odiseu ta Agamenon diralakoan dago Aiatz, egon ere.

(57) *iauki* : egotzi, larderiatu.

(58) *kukutu* : eskutatu, ostendu.

(59) *tosta* : ontziko iarlekua, arraunlariena, alegia.

noskiago : *alako dixidu* (60) *gorriak gure aurka egozten baitizki-gute Atereu'tar iaun bieķ. Oneķin iasanik arriķa iota ilķo nauten beldur-ikaraz, alabear ezin-urbilduzķoak atzemanik baitauķa.*

Tekmese'ķ. — Ez, aurki ; tximista dirdaitu gabeko egoa xuria oldartu dadiņean, arin atertzen danez, narerik dago : ta dagoneko bere baitara itzulita, ark dordo berria dauka. Beste iņork utsik egin gabe, norberaren etxeko makurrak so-egiteak dordo andia areagotu egiten bait-du.

Abeslari-talde-burua'ķ. — Bare baldin badago, ordea, erabat zorioneko gertarazi ditekela deritzat : makurra ioana danean, kezka gutxiago oi baita.

Tekmese'ķ. — Norbaitek aukerarik egokitu ba'lizu, zer obetsiko zenuke : zerau atsegin-bitsetan izaki, adiskideak atsekaberrazi, ala, ziper ikusten dunarekin eskuartu, aren atsekabean erki-de izanik ?

Abeslari-talde-burua'ķ. — Makur bikojtza areago duzu, andrea, noski.

Tekmese'ķ. — Gu, berriz, gaitza aterturik, sordeia baiņo sordeiago gauntza orain (61).

Abeslari-talde-burua'ķ. — Nola diokezu ori ? diozunik ezer ez dulert, noski.

Tekmese'ķ. — Gizon hura burutik eginda zegonean, bere gaitzetan atsegiņarren birloraturik (62) zebillan bera, noski : gu, ordea, burua onik izaki, negarrez ta deitorez (63) giņan. Orain, berriz, bere senera etorri ta gaitzak arnasa artzen utzi dionean, bera erabateko atsekabe gorriak erabili darabil, eta gu ere, era berean, eta len baiņo ezago (64) ez, beintzat. Makur baten orde ez al dira bi emen ?

Abeslari-talde-burua'ķ. — Zure gogaide (65) nauzu, ta iainkoren batek ukaldiren bat igorriko ote digun beldurretan nago.

(60) *dixidu* : eskainka, amenaza.

(61) *sordela baiņo sordeiago gauntza orain* : gaizki baiņo gaizkiago gaude.

(62) *birloratu* : liluratu.

(63) *deitore* : minduru, zinkulin.

(64) *ezago* : gutxiago.

(65) *gogaide* : gogo lagun.

Bestela nola liteke, ba, beraren gaitza aterturik, burutik eginda zegonean baiño zoritsuago ez al izatea ?

Tekmese'k — Zuk iakin egin bear zenitun gauzok, onela diran ezkerro.

Abeslari-talde-burua'k. — Asieran nola io zun gaitzak ? Atsekabeen lagun gauzkazunoi esaiguzu.

Tekmese'k. — Gertari dana iakingo duzu, garbaikide (66) zeran ezkerro. Gau beranduan, arratseko ler-suak erre-ala, sorbatz (67) biko ezpata artu, ta besterik gabe, irtetzera ziolazkoa egin zun. Nik iauki ta auxe esaten diot : « Zer dagizu, Aiatz ? Iñork deirik egin gabe, geznari batek ere otsik egiteke, turuta-otsik entzuteke, zertara zoaz ? onezkero gudaloste osoa lotan datza ». Labur erantzun zidan, betikoa berrituz : « Andre, andren edergaillu duzu ixilla ». Aditu-ala, ixildu nintzan, eta bera oldartu zan bakarrik. Ango ezer ezin nizuke esan. Barneratze-koan, berriz, saillean idiak, artzanorak, eta eize adar-ederrak loturik zekartzin. Batzuei lepazurra autsi, bestetzuei buruz gora uzkailita (68) lepo-egin eta bizkar ezurra austen zien : lotuak, berriz, gizakumeak bailiran, xehakatur (69) sarraskitu egiten zitun artaldean aurka bere burua amilleraziz. Azkenik, ateak zear iauzi egin eta mamu (70) ezein bati akar (71) gorriak burgoi egiten zizkion, batean Atereu'tarren iarkiz, bestean Odiseu'ren aurka, irri karkaillez zantzoka, aien aurka egin zitun apenak (72) ialkiz.

Ta gero berriz, etxeratu iauzika, ta astiro astiro, engaraz (73), bere senera etorri zan. Ta etxea (kaparra) sarraskiz mukurru ikustekoan, bere burua ioka burrunbaz oiur min egin zun : ta kalikaz (74) ildako bildotsen ondakin artean sorgor eseri zan,

(66) *garbaikide* : atsekabeen lagun.

(67) *sorbatz* : filo de un instrumento cortante.

(68) *uzkaili* : irauli.

(69) *xehakatu* : txiki txiki egin.

(70) *mamu* : monstruo.

(71) *akar* : agiraka.

(72) *apenak* : bengantzak.

(73) *engaraz* : nekez, gogo txarrez, gogoaz bestera.

(74) *kalikaz* : sarraskiz, ilketaz.

esku-azazkalez ille-adats-txerloak idokiz (75). Ta luzaroan min-
tzul lotu zan. Geroenean, esatekoak esaten dizkit eskainka, ger-
tatu osorik ezpanion agertzen : gertarazi zitzaizkioken gora-
bera oro galdez irrikitzen zegon. Nik, berriz, adiskideok, bel-
dur lauorritan, ark egindako guzia ialki egin nion, yakin-arauz.
Berealakoan, alde-aurrez iñoiz ari entzun ez nizkion gorriak dei-
toratu zitun. Gizon matxar eta aulari zegozkiola alako zinku-
riñak egitea beti baitzeritzan, oi u txirriti zorrotzik atera gabe
minduruka diardu, zezenak surraizez marruma egiten dun
arauz. Orain, ordea, alako ondiko beltzean izaki, gizona iangar,
edan gabe, lepo egindako abere artean ikararik egiteke datza.
Ta ez egitekoren bat burutzeko asmotan dagola nabari da ;
alakoak esan eta auhendatzen (76) baititu : Ots ! adiskideok !
ortara igorria bait-naiz, barneratu ta soroskiz (77) lagun etorri
zaitezte ! ezer balin ba'dezakezute, beintzat (78). Alako giza-
kumeek adiskideen itzetara txil egiten dute-ta.

Abeslari-talde-buru'a'k. — Teleuta'ren alaba ! Esatekoak
esan dizkiguzu esan : gizona gaitzak zoratu egin omen du.

Aiatz'ek (Kapar barnetik). — Ene bada ! ondikotz !

Tekmese'k. — Laister, antza, areago ! Ez al diozute entzun
Aiatz'i ? Ark egin dun oi uaren andia !

Aiatz'ek. — Ene bada ! Ondikotz !

Abeslari-talde-buru'a'k. — Burutik eginda edo lengo zoro-
aldikoak aurkez izaki, betillun bide dago gizona.

Aiatz'ek. — Ene seme ! enetxo !

Tekmese'k. — Ene zoritxarrekoa ! Eurisake, oiuka zuri ari
zaizu ! Zer egin gogo ote du ? Non ote zera ? Zoritxarrekoa ni !

Aiatz'ek. — Teuker'i otsegiten diot. Non da Teuker ? Be-
tikoz sarraskian aldia ematen al du ? Nereak, berriz, egin du.

(75) *idokiz* : ateraziz.

(76) *auhendatuz* : mindurutuz, espatuz.

(77) *soroskiz* : laguntzaz.

(78) Aiatz'en iarduna beldurgarritzat du Tekmese'k, eta edozein
gaitz goganbeartzen du : bere senera itzulita, bere apenak ustel egin
diola ateman bait-du. Beraren arerioak bizi bizirik diraute ; ta are-
rioen orde z giberri ta abelgorriak lepo egin ditula ikusten du Aiatz'ek.
Lotsa gorritan urtuta datza, arrezkero.

Abeslari-talde-burua'k. — Senean bide dago gizona. Iriki, arrezkero. Agian ni ikusita itzal apurren bat izango du (79).

Tekmese'k. — Orra begira ! iriki dut ! orrek egiña eta orain egon dagonez ikusterrean dukezu (80).

Aiatz'ek. — *Ene ontziko gizon laztano! nere adiskide ba-
karrok! bide zuzenean kirmen iraun duzuten bakarrok! Ares-
tian, odol-ekaitz zirimolaren uñak baranoan ezker-eskuin, goi-
barren murgillerazi nau.*

Abeslari-talde-burua'k (Tekmese'ri). — Ene bada ! zuzene-
negi aitortu bide didazu ; orra, burua galdu dunaren egizta-
bidea.

Aiatz'ek. — *Ontzi-iarduneko lagun-sailla ! Odol-ekaitzaren
uñak ontziratu ta itxas-arraun-endaiari (81) eragiñez diarduzun
ori, zerau bakarrik ikusia zaitut nere atsekabe lagun. Eup ! bein-
goan urratu nazazu (82).*

Abeslari-talde-burua'k. — Itz gaiztorik ez esan ! Gaitzari
osabide makurra eratzikirik, dordoa areagotu egiten da.

Aiatz'ek. — *Banakutsu kementsu ta bioztoi, gudu gorrietan
beldurrik gabea, abere otzanetan esku latza erabilki. Ene bada !
Guzion parregarri ta elepide (83) billakaturik.*

Tekmese'k. — Arren bai arren, Aiatz iauna, ez ezazu orre-
lakorik esan.

Aiatz'ek. — Alde ortik ! Utikan txakurrari ipurdian mun
egitera (84) ! Ene ! Ene !

Tekmese'k. — Iainkoarren ! Nere esanetara etorri zait.

(79) Aiatz'en oiua entzutean, oraindik ere Aiatz eroturik dagola uste dute abeslari-taldekoek. Teuker'i deika ari dala aditu dutenean, ordea, bere senera itzuli dala ezagutzen dute.

(80) *εκχύλημα* zeritzan tramankuluaren bidez, antzokia aldatu egiten da ta kaparraren barnean Aiatz ageri da, ildako abelgorri ta ardien erdian.

(81) *Endai* : labeko palaren alde zabala, ortik arraunaren endala.

(82) Erioa opa du Aiatz'ek egari dun lotsa gorria dala-ta.

(83) *elepide* : elebide, zer esan.

(84) *utikan txakurrari ipurdian mun egtok* : atzetik putz egtok, zakurren putza iretzat, vete a la porra.

Aiatz'ek. — *Zoritxarrekoa ni ! eskuelatik gorrologarriok itzuri eta odol beltza ixuri eraziz, idi adar-makats (85) ta auntzalde aipatuetan amildu naizen au !*

Abeslari-talde-burua'k. — Egiñak egin eta zergatik samindu ? Oriek orrela ez izaterik ezin diteke eragotzi.

Aiatz'ek. — *Dana ikusi ta makur guzion egille ta gudalosteko birzairik (86) zikiñera zeran Leerti'ren seme orrek ! pozaren parre aundiak egiten dituzu nonbit !*

Abeslari-talde-burua'k. — Iainkoak onez, parre ta deitore egiten du bat bederak (87).

Aiatz'ek. — Naiz ta begi txarrak iota (88) nagonez egon, hura ikusiko banu ikusi... Ene bada, ondikotz !

Abeslari-talde-burua'k. — Itz arrorik ez esan. Zain txarra daukazula (89) ez al dakutsu ?

Aiatz'ek. — *Ene Tzeu, aitonen arbasoa ! Nola birrindu al izango nituke maltzur alarena ez bestena, nere arerio giza-birzai ori, ta bi bakaldun gudalburuok ta nere burua il gero ? (90).*

Tekmese'k. — Ori eskatzen duzunean, neretzako berebat eskatu ezazu erioa : zu ilda zertako bizi bear dut ?

Aiatz'ek. — *Oi illundi, nere argia, oi leze argitsuen orrek ! ar nazazute ar bizi-lagun, ar nazazute ! Iainkoen endagana ezta irraizeko (91) gizonengana begiak zorrozteko aintzat ezpainaz, gizonen onik itzarroteko. Tzeu'ren iainko-alaba zaintsuak galdu nau, arri ta makilla erabilki (92). Nora iges egin ? nora ioan eta oin geldian bizi ? (93) nere baranoakoak oro erabat ondatuz doaz*

(85) *adar-makats* : adarkatx, adar-oker, de cuernos en espirales.

(86) *Gudalosteko birzairik zikiñena* : Irin mota anitz ditugu : iriña, birriña, zaia ta birzaia, adibidez. Guziotan txarrena birzaia : orixe duzu Odiseu, gudalosteko birzai zikiñena, ots, zierra.

(87) *Bat bederak* : bakoitzak.

(88) *Begi txarrak io* : zoritxarrak io.

(89) *zain txarra euki* : adu txarreko izan.

(90) Orixe opa du Aiatz'ek : Ots, Odiseu, Agamenon eta Menelau il ta gero bere burua il.

(91) *irraizeko* : efimeros.

(92) *arri ta makilla erabilki* : ifozo bailitzan norbaiti lan eragin.

(93) *oin geldian bizi* : yivir sedentariamente.

ta eizakj zoro artean etzanda nago. Ezker-eskubi gudaoste osoak dardaraziz ilko ninduke (94).

Tekmese'k. — Zoritxarrekoa ni ! Lenago inola ere iasango ez zitun lotsagarriak esan bear gizon onek !

Aiatz'ek. — *Itxasarteko erreten durunditsuok ! eta izpaztereko arpeok eta itxasaldeko larra ! Luzaro aundian euki nauzute Troia baranoan : gaurgoitik ordea, arnasa artzen ez nauzute eukiko ! Aditzalle onari agur ! Eskamander aldeko* (95) *ur lasterrak, Argu'tarrentzako ongi egilleok ! gizon au berriz ez duzute ikusiko — itz arroa illarraindurik esango dut — Eladetar lurraldetik arako Troia'k beste antzekorik gudostean ikusi ezpaitu : orain berriz, ona lurtean etzanda nago, itxusiturik.*

Abeslari-talde-burua'k. — Ixilerazi, ala, itz egiten utzi bear ote dizudan eztakit, alako gaitzetan lur iota baitzakust.

Aiatz'ek. — Ai ! ai ! nork uste zezaken inoiz nere izena nere gaitzei bat etorriko zitzaienik ? bitan eta irutan deitora bearra dut, noski ; alako gaitzetan murgilduta bainago. Nere aita, ordea, kemenaren irabazi-sari aurrenak gudostean irabazi-ala, Ide (96) lurralde ortatik etxera zan erabateko ospea ekarki. Aren seme au, berriz, Troia alde bertan adore ez gutxiagoz legorreratu nintzan au, nere eskuek egitsari txikiagoak ez egin arren, Argu'tarrentzat itxusiturik onela oso eziñean nago (97). Alare, auxe iakin uste dut. Akileu bizitan bere iskilliak norbait indar-norlenka bidez emateko izan ba'litz, nik beste inork ez zitukean beretuko, noski. Orain ordea, azpikeriz edozertarako buru dan gizonaren bizkar ezarri (98) ditute Atereu'tarrek, nere indarra bazterreraturik. Ta nere begi ta gogo galdu au, nere asmoetatik astanduak izan ez ba'lira, beste inoren aurka alako

(94) Bere erabakiaren zergatikakoak dakartzi Aiatz'ek : Azeno'k gaitziritzia du, gudaoste osoa aurkako du, ta al ba'lu, il egingo luke arean.

(95) *Eskamander* : Tarake'ko ibaia.

(96) *Ide* : Pirigi ta Misi'ko mendia.

(97) *oso eziñean egon* : estu ta larri ibilli.

(98) *aren bizkar ezarri* : egotzi zerbaít, atribuir.

erabakirik etzuten arribidez (99) gaitzetsiko. Orain ordea, aien aurka nere eskua zuzentzeko nintzanean, Tzeu'ren alaba begi-izu ezi-gabeak, gaitz gorria iaurtirik bidea galerazi zidan, abere oietan nere eskuak odol-gorritu alakoan. Aiek ordea, iñaka diardute, nere gogoaz bestera iges egin dutela-ta : iainkoren batak io oi dunean, ordea, koldarrak berak ere itzuri lezake hura baiño areago dana. Ta orain zer egin bear ? argi ta garbi iainkoekiko karats (100) naiz, Elade'tar gudalosteak gorrotatzen nau. Troia osoak eta eskualde onek iguin naute. Ontzi-alkiak eta Atereutarrak bertan bera utzirik etxerat ioteko Aigai itxasoa (101) igaroko ote dut ? Aita Telamon'i agertuz zer arpegi erakutsiko diot ? Nola iñoiz iasango al nau kemen-saririk gabe agertzea, berak irabazi aintzazko allara (102) aundi bage ikustea ? (103) Ez, ori ezin daiteke. Alderantziz, Troia'ko arresira (104) ioanik, bakarrei bakarrik elkarren gainka iazarri ta egiteko andiren bat buruturik, ilko ba'nintz gero azkenik ? Au, ordea, Atereutarren gogarako litzake, nonbait. Ez ahal, iñola ere. Beste biderik arki bear noski, sortzez arengandikoa izanik, erraigabeko uzkurra ez naizela aita agureari erakusteko. Luze bizitzerik opa izatea ahalkekizun du gizonak, bere gaitzetan aldaketarik ez izaki. Egunez egun zer atsegingarri dauka gizonak, eriotzari urreratu ta urrundurik ? Uste usteletan berotuko litzaken gizona ez-aintzat nuke. Beraz, edo, eder bizi izan, edo, eder il, dagokio aitor semeari. Itz dana entzuna duzu (105).

(99) Ixartel bidez orde. arriz autesten zuten aspaldikoek.

(100) *karats* : gorrotatua.

(101) *Aigai-itsasoa* : Mediterran-ekaldeko itsasoa, or-an-emen ugaritez iosia, oraingo Balkan-ugartexa ta Anatoli arteko itsasoa, alegia

(102) *aintzazko allara* : aintzazko buruntza edo koroia.

(103) Telamon'ek saritzat Esione izter-anderea iaso zun, Erake'ek emanda. Esione ori Laomedon'en alaba eta Priam'aren arreba zan. Aiatz, Eriboie ta Telamon senar-emazteen semea zenun. Teuker, berri, Esione ta Telamon'ena.

(104) *arresi* : murre, inguru-orma.

(105) Ageri danez, Aiatz'ek ez du etxera ioan nai bere burua itsusiturik. Troia'ko guduan iltzea Atereutarren gogarakoa litzake, noski. Beste bide bat asmatu du : il egingo da, baiña, eder ilko da, aitor-semeari auxe baitagokio : edo eder bizi izan, edo eder il. Arrezkero, aren erioa aitak egindako egitsarien besteko izango da.

Abeslari-talde-burua'k. — Sasi-itzik esan duzunik iñork ezin du esan, zure baitarikoa baizik. Arrezkero, baretu zaitez, ta gizon adiskideoi emaezu zure asmoaren buru izatea, beste bulko oiek bazterraziz.

Tekmese'k. — Aiatz iauna, alabearra baiño gaitz aundia- gorik ez du gizakumeak. Ni, adibidez, bere buruaren iabe zan aitak sortu niñun ; Pirigitarren (106) artean iñor izatekotan, hura zenun bere aberastasunez altsu ; orain berriz, uztarpeko nauzu : yainkoek ala etsi zuten nonbait, eta baitik bat, zure eskuek. Alare, zure oean zurekin batera sartu naizen ezkerro, zurekikoak oro onik gogoan ditut : ta auxe eskatzen dizut arren bai arren : supizguaren Tzeu begirale arren, nerekin bat elkertu zaitun zure oe-arren, zure etsaiengandik esamesa gorririk artzen ez nazazu utzi, norbaiten esku amor emanik. Zu il, ta ilda gero aldenduko zakidan egunean bertan, nerau ere Argu'tarrek ezin- bestean eramango naute zure aurrakin, ogipeko nadin. Ta nagusiren batek itz beltzez iorratuz esatekoak esango dizkit : « Ikus or Aiatz'en izter-anderea, gudalosteko altsuena zanaren arako- arena, nolako ioputza iasaten dun, len eguzki epeletakoa zala » (107). Alakoak esango ditu urliak : ta ni iainkoak eroango nau, zuretzat eta zure etorkiarentzat, ordea, itzok itxusi ahalkegarri izango dira : Zartzaro itsean (108) uzten duzun zure aitaz oroi zaite : beredin urtez (109) zarrakiturik (110) dan amaz oroi zaite, bizitan etxeratzeko iainkoei arrenka maiz eskatzen bait-die be- rak. Zure aurraz erruki zaite, bakalduna ; gaztaroko azibideak barna zu gabe, bakar, laztan bageko umezurtz-zaien mendeko ioango ba'litz, ilda gero, ari ta neri ere bai, erakarriko diguzun makurraren aundia ! Zuri beste iñori begiak zorroztu ditzaio- kedanik ez dut, emendik ara. Nere aberria suntsitu egin baituzu aiztagaz : ta aita-amak beste alabearrez ilda Ade'ko bizi-lagun gertatu dira. Zure orde, zer aberri izan dezaket ? Zer aberasta-

(106) *Pirigitarrak* : Pirigi'ko bizi-lagunak.

(107) *Eguzki epeletakoa izan* : mizke azia izan.

(108) *itsean* : tristean.

(109) *beredin* : asko.

(110) *zarrakitu* : zahar akitua, décrépito.

sun ? Zuregan dut nik erabateko osasun eta ogasun. Nitaz ere oroi zaite. Atsegiñen bat nonbait dastatu dun gizonak, oroipena izan bear du aurki. Eskerrak beti sortzen baitu eskerra. Eskuratu onaren oroia galtzen duna ez litzake izango gizon aitor-seme (111).

Abeslari-talde-burua'k. — Aiatz, gogoz erruki izango al zina, ni bezela ; orixe nai nuke. Onen itzak onartuko al dituzu.

Aiatz'ek. — Baiki, niketz bederen goretsia izango litzake, nere agindu bakarra betetzeko bekokia ba'lu, beintzat.

Tekmese'k. — Aiatz laztana, edozertan zure esaneko nauzu.

Aiatz'ek. — Oraintxe nere aurra erakarri idazu, ikusi dezadan.

Tekmese'k. — Ain zuzen ere, beldurrarren eskuetarik ioana da.

Aiatz'ek. — Gaitzotan ? ala, zer diraustazu ?

Tekmese'k. — Zuri aurkezturik gaixoa ez zedin il, nonbait.

Aiatz'ek. — Nere alabearraren kide izan ziteken ori.

Tekmese'k. — Nik, beintzat, zaitu egin dut alakorik baztertzeko.

Aiatz'ek. — Egiña goretsi egiten dut, iakiñen gaiñera egonik, eginbideak maratz egin dituzulako.

Tekmese'k. — Zertan, ba, lagun egin dezaizuket, beingoan ?

Aiatz'ek. — Bera aurkez ikusi ta berari itz-egin al izatea idazu.

Tekmese'k. — Or dago orren baten, morroien zaipean, noski.

Aiatz'ek. — Zergatik, ordea, luzatzen du agiri izateko ?

Tekmese'k. — Enetxo, aitak otsegiten dizu. Eskuetatik oratuta daroazun orrako otsein orrek onara ezazu.

Aiatz'ek. — Datorrenari ots egiten al diozu ? ala itzik ez al dizute entzuten ?

(111) Tekmese'ren itzok erdiragarri dira, benetan, eta Aiatz'i biotz ukitu bear : semea umezurtz ta bera alargun utziko ba'litu. beraz, arerioen gogora lotuko lirake

Tekmese'k. — Ain zuzen ere, otsein orrek bertan ekarri dakar. (Eurisake dakar otsein batek)

Aiatz'ek. — Iaso idazu, onañño iaso idazu ! Odol-isuri berri au ikusita, ezpaita beldurtuko, zuzen eta bidez nereia izaki, aitarren urak badauzka orrek (112) beintzat. Bestalde, aitarren ekandu gordiñetan onezkero ezi bearra du, moxala bezala, izatez nere antzeratzeko. Ene aurra ! aita baiño zori obekoa izango al zera ta gainherakoan elkarren beteko : ez zera gaizto izango iñola ere. Alare, egun, iñartsi bearra zaitut, noski, gaitz guziekiko soraio (113) baitzera. Bizirik eztiena ezer ez oldoztean baitago, poz ta atsekabe izaten ikasi arte. Ontara eldu ezkerro, norengandik sortua zeran, aitarren arerioei erakutsi bear diezu, aita nolako, semea alako.

Bitartean, arnasa ariñetan bazkatu zaite, gogo gaztea laztanduz, ama onen atsegingarri. Nigandik alde egonarren, Atereutar batek ere ez zaitu beztuko mardailkizun gorritz, badakit : zure baranoan alako iagole erria utziko baitizut. Teuker, alegia, zure aurtzaroaren zai. Egun, lekutan dabil noski, arerioen eizean.

Zuek ere, babeskiz iantzitako gudariok eta itsas-gizonok, zuengandik berebat adei (114) beratu itxoiten dut : nere agindu au ari iragarri iozute : nere etxera aur au eroan eta Telamon'i eta nere amari agertuerazi zaiela, Eriboie'ri, arean, aien zartzaroan betiko lagun dedintzat [betiko iainkoengana ietxi ditezeño]. Nere iskilloei buruz Akeu'tarren aukeran ez ditzatela ezarri norsegiagoka-epailleek, ezta nere ondatzalle orrek ere. Zazpi idilarruz zulatu eziñeko babeski au ar ezazu Eurisake orrek, izenari dagokizunez (115), ugal sendo ontatik oratuz : beste iskilliak oro nerekin batera eortziak bitez.

(*Tekmese'ri*) Len-bai-len aur au iaso ta tegia ertsi ; kapar aurrean negar eta deitorez ez ibilli ; deitore-zale bait-da emakumea. Ariñago itxi : sendagille ikasiarena ezpaita eresiak dei-

(112) *aitaren urak euki* : aitarren antzeko izan.

(113) *sorato* : apatico, insensible.

(114) *adei* : gizon-lege.

(115) *Eurisake'k* itzez itz « babeski-zabal » adierazten omen du.

toratzea. burniz ebaki-bearraren makur aurrean (116).

Abeslari-talde-burua'k. — Beldurrarren izuturik nago, orren gogoia entzunda.

Tekmese'k. — Ene Aiatz iauna, zer egiteko darabiltzu go-goan ?

Aiatz'ek. — Ez galdetu, ez aztertu : eder da gurbil izatea (117).

Tekmese'k. — Ondikotz ! Biotz bageturik nauzu. Zure seme-arren eta iainkoarren, arren bai arren eskatzen dizut, ez gaitzazu bertan bera utzi.

Aiatz'ek. — Geiegi samintzen nauzu : iainkoak goresteko bearturik ez naizela ez ote dakizu ?

Tekmese'k. — Aitzak dantzutela ori ! (118)

Aiatz'ek. — Dantzutenei esan.

Tekmese'k. — Ta zu ez al zera esanotara etorriko ?

Aiatz'ek. — Engoitik geiegi mintza zera.

Tekmese'k. — Beldur bait-naiz, ene bakaldun.

Aiatz'ek. — (*Morroiei*) Ez al duzute len-bai-len ertsiko ?

Tekmese'k. — Iainkoarren, leguneraztea onar ezazu.

Aiatz'ek. — Erokeriak asmatzen diarduzula, iduritzen zait, nere ekandua bestelakotu uste ba'zenu (119).

ABESLARI-TALDEAREN ERESIA

Abeslari-taldeak. — *Itsasoko xiñak iota zorioneño kōkatzen zeran Salamin ospatsua ta guzion betiño aipatua ; ni, ordea, aspaldidaniñ begi txarreñ iota, Ide'ño eskualde barna tinkaturik, uda ta neguz kopuru eziñeko illabeteak zear beti kapar-pean bizi naiz, aldiaren aldiz akiturik, Ade itzaltsu okaztagarrira noiz-pait elduko naizelakoan uste beltza dudala. Ta Aiatz gaitz berri*

(116) Elade'ko antzerkietan lenengoz sartu zuten aurra auxe dugu, Eurisake alegia. Sopokel'ek Omer'engandik ietxi bide zun, ots, Iliarenaren VI garren ataletik. Astianatz'ek bezela, Eurisake'k ere txintik ez du ateratzen, aitaren besoetan dala.

(117) *gurbil* : zuhur, neurritsu.

(118) *Aitzak dantzutela ori* : ez orrelakorik esan.

(119) Besterik gabe, Aiatz lekutu egiten da : *ekkiklema'k* giltz egiten du beste aldera ta Aiatz eskutatzen da.

sendatu-gaitzak lagun artu du, ondikotz, iainkoengandiko erokeriak iota. Lenago, gudu oldartsuan iaun eta iabe igorri zenun, orain berriz bakar-miñez larratzen du biotza, artzai bakartia iduri, adiskideen oñaze aundi billakaturik. Kemen aundienetako egitsari zarrak iguingarri gertarazi zazkie Atereu'tar zoritxarreko iguingarriei.

(Biziago) Eriz burutik eginda dagola bere amak entzun dezakenean, nonbait, egun zarrez okiturik eta zartzaro ille-zurian, oiu negargarriz deitore egingo du gaixoak; ez baiña urretxindor negartiaren deitorea, baizik ere, eresi min txirritiz minduruka (120) ari izango da, bere bularra esku ukaldi usuz ioka ta adatzille zuriak idokiz.

Obe bait-du Ade'n kükaturik egon burtzoratutako (121) eriak baitik bat, aitaren etorkiz Akai'tar (122) nekätuen txapeldun danak, azitako ioeratan aldakaitz irauteke, oi ez bestelakoetara emanagoa gertatzen danak. Ene aita zoritxarrekoa ! Zuk ez beste Aiakar (123) iñork iasan ez dun makurraren erri ikasi dezakezunean, lur-iota gelditu bearra dukezu.

BIGARREN GERTARIA

(Kaparretik ateratzen da Aiatz eskuetan ezpata : Atzean Tekmese dator)

Aiatz'ek. — Oraindik eskutuan dana sortaraziz ta agerteraziz kukutzen duzun aldi luze ta kopuratu ezin ori ! itxaropenez gaindiko ezer ez da, atzeman egiten baitira zin beldurgarria bera ta gogorik gogortuenak ere. Bereonelaxe, neri ere, len egonarriz ziper ikusiak (124) nitun neroni, uretan-gozatu-burnia bezela (125), aoa ematu (126) egin dit emakume onek. Arierioen artean bera alargun eta aurra umezurtz uzteko erruki bait-naiz.

(120) *minduruka* : zinkurinka.

(121) *burtzoratu* : burua galdu.

(122) *Akai'tar* : Elade'tar.

(123) *Aiakar* : Aiak'aren ondorengoak, Akileu ta Aiatz batez ere.

(124) *ziper ikusi* : gorriak ikusi.

(125) *uretan gozatu burnia* : como hierro al temple.

(126) *ematu* : emetu, bigundu, buperatu.

Arrezkero, banoa ikuztegi ta izpazterreko belardietara, nere orbanak garbituz, iainko-emearen aserre astunetik nere burua itzurteko. Ioan eta lekaro-eskualderen bat arki dezakedan aldean, lurrean zuloa egiñik, nere ezpata au, iskillorik gorrotogarrien au, kukutu egingo dut iñork ikusi ezin duken tokian. Gauak eta Ade'k bean zaituko al dute. Ektor etsairik miñenagandik esku-erakutsi au eskuetara zitzaidan ezkeru, Argeu'tarren gandik onik ez dut iaso, arean.

Egia da, noski, illen umeen atsotitz au : « Arerioen emai galgarria, ez da emai onuragarria ». Arrezkero gaurdanik gora lankoei alki izaten (127) iakingo dugu ta Atereu'tarrak gores-ten ikasiko dugu. Buruzagi dira izan, aien esaneko izan bear, beraz. Zergatik ez ? Arrigarri ta azkarrenak makurtzen zazkie garai diranei : oinpean elurra zapaltzen dun neguak leku egiten dio uztaro arnari-ugariari : gauaren obo (128) illunari aldera egiten dio moxal zuridun egunak argia pizteko : aize arrigarrien erauntsiak itxaso minduruakin adiskidezkoak egiten ditu : lotua askatu egiten du lo alorodunak, eta ez dauka beti atzemanik. Guk, beraz, nola ez dugu ikasiko urguri izaten (129). Arerioa berriro adiskidetuko bai'litzan gorroto izaten badakit arrezkero, ta adiskideari urgaziz lagundu nai izango diot, betiko gotor ez bai'lirauken : gizakume geientsuenak ezpaituke kirmen adiskidetasunaren igeslekua. Baranoko oiek onik iraun diraukete, ordea. Emakume,barnera sartu ta nere biotzak irrikitzen duna erabat burutzea iainkoei eskatu iezu. Zuek lagunok, berebat, opa-ri berberori aintzakotzat ar ezadazute onekin batera, ta Teuker datorkenean gure ardura izan dezala esaiozute ta zuekiko gogo oneko dedilla iragarri. Ioan bear dudan artara ioan bait-noa. Nere esanak burutu itzatzute ta oraingo zoritxarrean bertan osasuna arkitu dudala laster bai laster ikasiko duzute (130). (*Badoa Aiatz : kapar barnean sartzen da Tekmese*).

(127) *alki izan* : artara larri, etsi.

(128) *obo* : zirkulu.

(129) *urguri* : discreto.

(130) Gozo oneko ezpataren sorbatza beratu egin zaio Aiatz'i, andrearenganako errukiaren errukiz.

ABESLARI-TALDEAREN ERESIA

Abeslari-taldea 'k. — *Sostean* (131) *atsegiñaren atsegiñez dardaraka iarri naiz, pozak gaiñezka egaz iarri nau. Ene Pan ! ene Pan !* (132) *izpazterrean orra ta ona zabiltzan Pan alderraial elurrak iotako Kilene'ren* (133) *lepo arkaitsetatik argitu zaitez, iainkoen irraida-buru zeran bakalduna ! Nise* (134) *ta Knosu'ko* (135) *dantza ikasi gabeak asi itzazu, gu lagun gerala. Orain, ba, irraidaz iai egin bear dut. Ikar'dar itsasoak* (136) *gaindi zabiltzan Apolon Delu'tar aipatua* (137), *edozertan izango al zaitut gogarako.*

Begietatik ara elorrio gorria (138) *ezabatu egin bait-du Are'k* (139). *Oi ! oi ! Orain, berriz, ene Tzeu, itsas-ontzi bizkorren gain egun zoriontsuen argi zuria dirdaitso, alderatu bekigu, Aiatz'ek bere dordoa berriz atzendurik, iainkoen erabaki agitz agurgarriak, gogaraz itzal egiñez, gogo on ta aundiz betetzea burutu bait-du. Dana aldi aundiak endurtu* (140) *daroa ; ta eziñezkorik ezer ezin nuke al esan, ez ustean Aiatz garbaiturik, Atereu'tarrekiko bere samiña ta takela aundiak zapuztu baititu.*

(131) *sostean* : bat-batean.

(132) *Pan* : basoetako ianko-txikien irraida-buru.

(133) *Kilene* : Arkadi'ko ipar-sortzaldean zutik dagoen mendia, egungo egunean *Ziria* deritza.

(134) *Nise* : Euboi'ko mendia, artan Bak'ekin Pan'ek ikasi zitun zenbait dantza.

(135) *Knosu* : Kerete'ko erri bat, ango Tzeu ta Apol'en goratzarrez an egiten zituen irraidak ezagunak zenitun.

(136) *Ikar'dar itsasoa* : Kikalade ta Kari arteko itsasoa.

(137) *Apolon, Delu'tar aipatua* : Delu'n bazan lauretze ospatsu bat Apol'i eskeifia, ortik zetorkion Apolon'i Delu'tar izenondoa.

(138) *elorrio gorria* : atsekabe aundi bat.

(139) *Are* : gudua.

(140) *endurtu* : mermar, debilitar, etc...

IRUGARREN GERTARIA

Geznaria'k. — Gizon laztanok, aurrenik auxe iragarri nai dizuet : laster emen da Teuker, Misi'ko (141) malda goietatik bera : gualburuaren kaparrera doi-doi eldu-ala, zelai erdian, iñon diranak orobat esan dizkiote. Ain zuzen ere, hura aurretatuz urrundik antzeman zuteneko, baranoan inguratuta gero, akarrez andik eta emetik, zein geiagoka iñarrosten asi ziran. Zoroaren eta gualosteko arte-edatzallearen (142) senide izendatuz, erabat arrika karramatu (143) ta iltzeko poxelurik (144) ez zutela ezarriko. Orixe dala ta eztala, ibillian ibillian xixkuetatik (145) ezpatak eskuetara atera ta dardarazi zituzten. Liskarra laster ibiliz urrunenean zanean, agure zarren eleketaz onezkoak eraginda eten erazi dute. Non dugu Aiatz, ordea, berriok iakinerazteko ? launei dana azaldu bear baitzaie.

Abeslari-talde-burua'k. — Eztago barnean, arestian ioana bait-da, aldarte berriz asmo berrietara aldaturik.

Geznaria'k. — Ondikotz ! Bide luzeak barna igorri nau igorleak, edota bagituz (146) berantetsi egin naiz.

Abeslari-talde-burua'k. — Zeren bearrez zaude zure egikizuna burutzeko ?

Geznaria'k. — Bera andi-andirik agertu baiño len, tegi barutik ez zedilla gizona atera, Teuker'ek agindu zidan.

Abeslari-talde-buruak. — Ioan, ordea, asmorik ederrenaz ioan da : gorrotorik bage lainkoekin onezkoak egitera, alegia (147).

Geznaria'k. — Kalka'k (148) gurbilki ezer onik iragarri

(141) *Mist* : Asia Txikiko eskualdea.

(142) *arte-edatzaille* : lakirioak ezkutuan ezartzen dituana.

(143) *karramatu* : zaratu, cardar.

(144) *poxelu* : beaztopo, beatzarri.

(145) *xixku* : ezpata-zorro.

(146) *bagitu* : astundu, berankor eta astiroa gertatu.

(147) *onezkoak egin* : adiskidetu.

(148) *Kalka* : Azti ospatsu bat, Omer'ek berak aiputan artua.

ba'lu, itzok zorakeriz beterik lirake.

Abeslari-talde-burua'k. — Zer ? arlo ontaz zuk zer dakizu?
Geznaria'k. — Dakidana ez-ustean aurkez egokituta dakit. Bakaldunen batzarre biribillean Kalka bakarrik zegonez iaiki. Atereu'tarrendandik alde egin, Teuker'i gogatsu eskubia ezarri ta egungo egunean Aiatz kaparpean edonolako bidez eusteko esan eta goraintzi egin zion, eta ateratzen ez uzteko, hura bizirik noizpait ikusi nai ba'lu, beintzat. Egungo egunean soillik Azene iainkotiarraren aserre sumiñak ezetsiko bait-du, esanez esan zunez. Iainkoen erabakiz elorrio aztunetan erortzen baitira gorapenean sortutako soin utsalak (149), zirautson aztiak, gizon izatez sortu ta gero gizon arauz ezpaitute gogartzen. Hura ere etxetik ateratzeko zorian zalarik, aitak aolku ederrik ematen zionean, burugabe azaldu baitzan. Dei egiñik auxe esan zion : « Seme, aitzagaz nagusi izatea opa izan ezazu, noski, beti garaitzea Iainkoak onez, alegia ». Ark, ordea, azalak artu eziñik (150) zegolarik, ergelki iardetsi zion : « Aita, Iainkoen urgaziz utsaren urrengoak ere gainartu lezake, nik, baiña, aiek bage ere aipu ori atzemango dudalakoan uste betez nago ». Alako ele arroak illarraindurik esaten zitun. Gero, bigarrenez, iainkotiarr Azene'k aren adorea berorazten zunean, arerion aurka esku odoltsua zuzendu zezala oiuzkatu ziolarik, esatekoak erantzun zizkion : « Andregoa, beste Argeu'tarren alde alboan egon zaite, gudaldian gure lerroa ezpaita autsiko. » Itzok iainko-emearen aserrea aizatu egin zuten, ezpaitzun gizon arauz oldoztu. Arrezkero, egungo egunez iraungo ba'lu, Iainkoak onez, ura bizirik iareingo genuke. Orixe esan du aztiak. Berealakoan, batzarretik igorri nau Teuker'ek zaitzeko aginduok ekarki. Hura bage ba'gaude, ordea, gizon arenak egin du, Kalka iakintsua balitz, beintzat.

Abeslari-talde-burua'k. — Oi Tekmese zoritxarrekoa ! sortzez begi txarrak ioa ! etorri ta leiatu zaite onen itzok entzuteko (*Kapar barnetik ateratzen da Tekmese*).

(149) *gorapenean sortua* : aza-salda ederrik arturik dagon gizon aundiari buruz esan oi da, ortik, neurritz ez bezelakoa.

(150) *azalak artu eziñik* : arroputz.

Tekmese'k. — Etengabeko makurrak arestian atertu zaizkidala, zergatik berriz alkitik iaiki erazten nauzute zoritxaneko au ?

Abeslari-talde burua'k. — Gizon oni entzun ezaiozu, samintzen naun Aiatz'en berri ekarki baitator.

Tekmese'k. — Ondikotz ! Zer diozu, gizon ? Gureak egin al du ?

Geznaria'k. — Eztakit arean ; Aiatz lekorean ba'lego, ez nintzake azartuko.

Tekmese'k. — Lekorean da noski, diozunak, ordea. miñetan nauka, gero.

Geznaria'k. — Kaparpean irauñ erazteko agindu du Teuker'ek eta bakarrik irtetzen ez uzteko.

Tekmese'k. — Nontsu da Teuker ? eta zergatik dio ori ?

Geznaria'k. — Laster da emen : Aiatz'en irteera onek galbearra ekarriko ote dion beldur da.

Tekmese'k. — Ene ! ondikotz ! ni zoritxarrekoa ! Norengandik ikasi ote du ?

Geznaria'k. — Zestor'tar aztiarengandik (151) ; ari erioa ala bizia dakarkio egungo egunak.

Tekmese'k. — Ene bada ! bear gorri oni buruz el ! el ! lagunok ! (*Morroiei*). Leia zaitetze, Teuker arin bai arin erakartzeko ; (*abeslari-taldekoiei*) zuek sartzaldeko izpazterretarat; zuek, berriz, sortzalderat ioanda azterrenak ar itzatzute gizonaren irteera galgarri zur. Ziri ederra sartu didala gizonak eta lengo adei zarra baztertu didala iakiñaren gainean nago. (*Sostean ateratzen da Tekmese bere aurrakin. Abeslari-taldea bi sailletan banaturik ezker-eskubi ioan doa. Antzeztokia utsik gelditzen da, ta tokiz aldatzen dute : izpazterreko eskualde bakartia darakus antzokia ; sasiartean lurrean sartzten du tinkaturik bere ezpata Aiatz'ek, ezpata burua goruntz*).

Aiatz'ek. — Orra zutik tinko nere ezpata eraille sarkorra ! oberenik sakailduko du, gogartzeko artea (152) duna ere :

(151) *Zestor'dar aztia* : Kalka aztia, Zestor'en semea baitzan.

(152) *arte* : egokiera, mugon, zabalune.

Ektor (153) gizonaren esku-erakutsia da, nere arrotz artean karatsena ta gorrotagarriena : Troia'ko gudu-lurrean iosita dago, burnia iaten dun deztera-arrian zorroztu berria : azkenik nonnaiko arduraz tinkatu dut, gizon oni (neroni) len-bai-len erio lasterra erakartzeko. Onelatsu, antolaturik gaude, noski. (*Ixiliat-di laburra egiten du*). Onezkero, zerau aurrenik oi Tzeu, bide danez, lagun zatokit. Onaurki aundirik ezpaitizut esku-erakutsiz eskatuko : igorri iguzu geznariren bat berri txarra Teuker'i eramanki, ezpata odoltsu onen baranoan eroritako nerau iasotzen lenengoa dedin : aurkez ditudan arerioen batek ikuskatuko ba'niñu, zakur eta egaztien arrapakintzat aurrera iaurtia ez nadin. Auxe eskatzen dizut, oi Tzeu ! Lurpeko Erme (154) otsemalleari berebat ots egiten diot, onik lo eragin dezaidan, dardarik gabe, saietsa alderen alde ezpata onek iauzi ariñez sastatuko didanean (155). Ots egiten diet berebat betiko neskaxei, illen umeen elorrio guziak beti dakuskiten Erini itzalgarrri ta oin-ariñeri, el ditezen lagungarri (156), ta Atereu'tarren erruz ni, zoritxarreko nerau iltzen naizela ikasi dezaten. Gaizto ta alarenok ez besteok, makurki atzemanak izango al dira, nerau ikusten nautenez ; neronek nere burua nere baitarik zerraldo amillerazten dudanez, seniderik laztanen ukaldiz beuren buruak lepo egingo al ditute. Atozte, Erini arin eta apentzalleak ! irentsi gudaoste osoa eta ez asketsi. Zuk ere, ortzi goiena barna zure gurdian zoazen Eguzki orrek, nere arbasoen lurraldea dakuskezunean, urrezko ugalari eutsi ta nere elorrio te nere erioaren berri emajezu aita zarrari ta ama gaixo ari. Ama zoritxarrekoak, nonbait, berria entzun baikoz, uri osoan minduru aundia aterako du. Baiña ezertarako ez da, alpeirik deitoratzea ; dana dala, asi egin bear arloa len-bai-len. Ene erio, erio, dagoneko zatoz, gaiñetu zakit (157), an tarteko

(153) *Ektor* : Priamu'ren seme ta Audromake'ren senarra, Troia'ko gizuren aipatua.

(154) *Erme* : Tzeu ta Maie'ren semea, Elade'ko elezarretan iainkoen geznaria ; aren kisa zegoen gogoak betiko aldera eroatea.

(155) *sastatu* : zerbait txorrotxez zauritu.

(156) *Erini* : Apenaren iainko-emea.

(157) *gaiñetu* : eraso, iabetu.

natzaizularik, luzaroago zuri mintzatzeko epea baduket. Zuk, berriz, egun argiaren egungo dirdaia, ta gurdian zoazen Eguzkia, zuei ots-egiten dizuet ! ta onezkero azkenekoz ta berriro egundaiño bein ez bein. Ene argi zoar, ene Salamin nere aberri laztaneko lurraldea, ene supizguko arbasoen orubea ! ta Atenai ospatsua ta etxeko nerekin baterakoak ! (158) iturri ta emengo ibaiak eta Troia'r ordokiak ots dagizuet, eta agur ! nere biziko azibidea. Auxe esaten dizue Aiatz'ek azkeneko itza, ta gañerakoak Ade'n beitikoei ialkiko dizkiet.

ABESLARI-TALDEAREN BIGARREN SARRERA

Abeslari-talderdi-lenak. — *Nekeak nekearen nekez nekea dakar.* : nontsu, nontsu, nontsu ez naiz ibilli ? Alde batek ere eztaiki iaķinerazteko lain. Orra ! Begira ! otsen bat badantzut.

Abeslari-talderdi bigarrena'k. — *Geu bai, ontziķo lagun-taldea.*

Abeslari-talderdi lenak. — *Ontzien oxesķi alde* (159) osoan aztarrenak artu ditugu.

Abeslari-talderdi bigarrenak. — *Atzeman dugu, beraz ?*

Abeslari-talderdi lenak. — *Nekearen betea ta are besterik ez ikusterrean.*

Abeslari-talderdi bigarrenak. — *Eguzķi-aldeķo bideak barna gizona iñon ez da ageri.* (Antzoki erdian bi abeslari talde elkarturik).

Abeslari-taldea'k. — *Lorik egiteķe arrantzan diarāun itsasume lanķoien arteķo norķ, edo Olinpiar, edota Bospor* (160) *barna txirristatzen diran ibaien arteķo iainķo-emeen norķ ikusi ote du alderrai biotz-gordiņa ta oiuztatu lezaiguke ? Neķe aundiz ganguren-manguren or-on* (161), *onezķo aizez zein-lenķa ariņak arin ibilķi ur ohea ez eman al izatea ta oial gutxiko* (162), *gizona nontsu danentz ez ikustea !*

(158) *nerekin baterakoak* : lagunak.

(159) *oxesķi* : lalotz, sartzalde.

(160) *Bospor* : erretena, itzez itz idi-bide.

(161) *ganguren-manguren or-on* : dilingo dalango ibili : vagueando.

(162) *oial gutxiko gizon* : gizon exkaxa.

Tekmese'k. — Ene ! Ondikotz !

Abeslari-talde buruak. — Atari zabalean ibar-basotik datorren oiu ori norena ote ?

Tekmese'k. — Oi, zoritxarrekoa !

Abeslari-talde buruak. — Aiztagaz atzemandako Tekmese andre gazte zorigaiztokoa badakust, deitore miñez urturik.

Tekmese'k. — Nereak egin du, txurtenean iota nago (163), adiskideok.

Abeslari-talde buruak. — Zer da, ordea ?

Tekmese'k. — Emen datza Aiatz oraintsu ilberri, ezpatak, eskupetik alderen alde sakailduta (164).

Abeslari-taldea'k. — *Ondikotz ! nere osteraren gora-berak. Ondikotz ! bakalduna. ontzi lagun au il duzu, gaixoa. Oi andre zoritxarrekoa !*

Tekmese'k. — Au onela izaki, deitoratzea besterik ez dugu

Abeslari-talde buruak. — Noren eskuz egin al du egiteko ori, zoritxarrekoak ?

Tekmese'k. — Berak bere eskuz, argi ta garbi ezagun da, nonbait ere. Beraren gain bere burua lertu dula lurrean iositako ezpata onek salatzen du.

Abeslari-taldea'k. — *Ene ondikotz ! adiskideengantik alde, bakarrik, zure burua zaurtu duzu : ni, berriz, edozertan sor-gor, txintik iañin gabe, erabat zabartu naiz. Non, non datza aiurri gaiztoko Aiatz zotal-txar izenekoa ? (165).*

Tekmese'k. — Ez dago ikuskizun. Baranoan bildurik, oestalkiz erabat estaliko dut, iñork ikusi ez dezan, naiz ta adiskide izan, sudurretik gora zauri gorritik ixurtzen bait-du odol beltza bere oldezko ukaldiz. Ondikotz, zer dagiket ? adiskideetako nork eroango zaitu ? Non da Teuker ? Etorriko ba'litz, garaiz letorke anai erori au eorzteko. Oi zoritxarreko Aiatz ! zerana izaki ta zaudenez egon ! arerioek berak deitoratzeko gai egon ere.

Abeslari-taldea'k. — *Egitekoak egitekotan ziñanean, gaixoa, ari-arian zeunden aldiaren aldiz, azkenik bageko gaitzei zori*

(163) *txurtenean iota egon* : zoritxar andiak iota egon.

(164) *sakailduta* : deuseztatuta.

(165) *zotal-txar izenekoa* : patu txarreko izena.

beltzez muga ezartzeko ziñan. Alakoak gau ta egun minduruka zenerabiltzin gorrotoz kunkuin (166), Atereu'tarrekiko areriaz, lera galgarriz. Iskillo galgarrak norak artu erabakitzeko indar nor-geiagoka iarri-eguna, dordoen asiera larria izan zan.

Tekmese'k. — Ene ! ondikotz !

Abeslari-talde buruak. — Biotzeraño dioakizu min sendoa, badakit.

Tekmese'k. — Ene ! ondikotz !

Abeslari-talde buruak. — Arestian alako laztanaz bage-tua zeran ezkerro, andre, bitan deitoratzeak ere ez nau arritzen.

Tekmese'k. — Oiek iduritzea besterik ez dagokizu ; neri, berriz, gogartzea.

Abeslari-talde buruak. — Egia da.

Tekmese'k. — Ondikotz ! enetxo, zai dauzkagun ioputza-ren uztarriak ! Barrandari alboan ditugun etsaiak !

Abeslari-taldea'k. — *Ondikotz ! Bi Atereu'tar soraiok ez egiteko gorritz ziper ikusi-eraziko dizkigute, ederki diozunez. Iainkoak begiratuko al gaitu !*

Tekmese'k. — Gauzok ez lirake onela izango, lainkoek nai izan ezik.

Abeslari-talde-buruak. — Lor astunegia lepora digute.

Tekmese'k. — Odiseu'ren ederrez, Tzeu'ren alaba Pala, lainko arrigarriak, sorterazi du alako dordoa, arean.

Abeslari-taldea'k. — *Gizon neke ezin eta musu-beltzak bere biotzean txakurrenak esaten dizkigu, parre aundiz parreka diardu, aren zorakeriak ekarritako dordoa dirala-ta, ene ! ene ! ta bere lagun ditu Atereu'tar bakaldun bikoitzeak entzuten.*

Tekmese'k. — Onen gaitzak dirala-ta, eurak parre egin eta poztu bitez. Agian, ikusita maite izan ezpalute, ilda min-duko lirake, noski, aiztagaren bear gorrian. Norbaitek kendu arte, ezpaitakite makur uxeok ez besteok eskuetan daukaten ona. Ilda neretzat minkaitz, eurentzat, ezta ta au bat dira, onentzako atsegin. Opa zun erioz, iritxi-irrikitzen zuna, bere egin du. Arrezkero, zergatik iseka egin dezaiokete ? Iainkoek

(166) *kunkuin* : bete-bete.

il dute au, ez, aiek, iñola ere. Artan irain-urtika alperrik ibilli
bebil Odiseu, oientzat onezkero ezpaitago bizirik Aiatz ; neri,
ordea, ioaterakoan dordo eta deitoreia utzi dizkit.

LAUGARREN GERTARIA

Teuker'ek. — Ene ! ondikotz !

Abeslari-talde-buruak. — Zaude ixillik ! Teuker'en min-
tzoa entzun-iduri dut. Lengoa berrituz oiur egiten du, zoritxar
onen neurriko eresia, alegia.

Teuker'ek. — Oi, Aiatz, laztanen ori ! ene anai biotze-
koa ! peto egin al duzu, surmurrak indar dionez ? (167).

Abeslari-talde buruak. — Gizona il da, iakiñen gaiñean
egon, Teuker.

Teuker'ek. — Ondikotz ! nere zoritxarraren aztuna !

Abeslari-talde-buruak. — Onela diran ezkerok...

Teuker'ek. — Ni zoritxarrekoa, ondikotz !

Abeslari-talde-buruak. — ...bidezko da deitoratzea.

Teuker'ek. — Oi, neke ikaragarria !

Abeslari-talde-buruak. — Buruz gaiñetikoa, Teuker, noski.

Teuker'ek. — Ene zoritxarrekoa ! Troia (168) eskualdean
nontsu dago onen semea, ordea ?

Abeslari-talde-buruak. — Bakarrik dago kaparreneko an-
txe (169).

Teuker'ek. — Ez al didazu ainbat lasterren onara ekarri-
ko ? Leoia ilda, leoi-eme alargunari leoikumea indarrez kendu
ez dakion arerioen batek, zoaz, zabiltz ito-agiñean (170), azka-
puzka (171) zakit lankide : ildakoei, lurrean datzatenean, iseka
egitea eder baitute guziek.

Abeslari-talde-buruak. — Ain zuzen ere, oraindik bizitan
zalarik, gizon ark zuri egotzi zizun orren ardura, Teuker, dago-

(167) *peto egin* : uts egin.

(168) *Troia* : Asia Txikiako erria.

(169) *kaparreneko antxe* : kaparrenaren ondoan.

(170) *ito-aginean* : itoka, itobearrean.

(171) *azka-puzka* : aleginka, lerrenak eginka, kataskan.

neko begiratzeko duzunez. (*Abeslari-taldea mintza bitartean, anai zunaren illotzera urbiltzen da*).

Teuķer'ek. — Nere begitan nik ikusi dudana ikuskizunik mingarriena, benetan ! oso eziñean nago, Aiatz laztanen ori, biotz erdiragarriena dut, bidez bide ibilki, orain burutu dudana bidea, zure zoritxarraren berri izan eta zure aztarnen bila, arinak arin (172) laster egin dudanean, Bala-bala zebillan berri ori Akai'tar guzien artean, iainkoren batek zabaldua bai-litzan, zu illa zinala omenka (173). Nik entzun-ala deitore egin nun, lekutan bai nengoen ! Orain, berriz, begiz begi ikusi, ta miñaren miñez egin du nereak. Ondikotz ! Ots ! Agerrerazi ezazu, arriabar (174) dana garbiago ikusteko. (*Olseiñak Teuķer'en esana egiten du*).

Begitara zaidan ikuskizun lazgarria ! Gaitzitua egon bear gordinkeri au egiteko ! Amaikatxo buru-auste erein dizkidazu, zu iltzerakoan. Nora ioan naiteke, nongo illen umetara io dezaket, zure lanbideetan ezpainizun lagun egin inola ere. Egia esan, Telamon zure ta nere aitak begitartetsu ta mazal atotsiko nau, agian, zu bage ioanda : ez baizik ere ! uraren gaineko bitsean eta aren gaineko sitsean bizi danean ere, ez du izaten irriparre goxorik. Zer isilduko du orrek ? Aitzak bakarrik entzutekoa esango dit neri orrek, gudu-aiztagaz atzemandakoagandik sorterazi sasikume oni : beldurraren eta gizatxarrez, edota marroz zerau Aiatz laztanen ori saldu ta ilda zure eskubideak eta zure etxeak ondarez iasotzeko, nonbait, egin dudala egin ere. Alakoak esango ditu gizon laster iaiki-bearrak (175), zarraren zarrerez astunduak, ta utsagaitik liskarrerako kilikabera dan ark.

Azkenen buruan nere lurraldetik erbestera oilduta ioputzat aipatuko naute, nere eskuko agertu orde. Orrelakoak ene baitan, noski. Troia'n berriz, anitz ta agitz arerio ditut, banaka batzuen alderdia daukat soillik. Oriek guziok nereganatzen ditut, zu ilda gero. Ondikotz ! Zer egingo dut nik ? nola ilkiko dizut (176)

(172) *arinak arin* : arineketan, antxintxika.

(173) *omenka* : elka, diotenazka.

(174) *arriabar* : zoritxar.

(175) *iaiki-bearra* : aserrekoia.

(176) *ilki* : atera.

marrauz (177). zorrotz nabarra, arnasa kendu dizun zure eraille au ? Ikusi al zenun Ektor'ek, illik ere, aldiaren aldiz zu berebat ondatuko ziñunik ? So-egizue, iainkoarren, bi-bion txarpa (178) : Ektor-ek onen esku-erakutsiz iasotako gerrikoz zaldi-gurdiari gogor lotuta, eten gabe xeakaturik, arnasa galdu zun : onek, berriz, aren esku-erakutsia ukanik, ezpataz bere burua ondatu du eroriko ilgarriz. Ez al du ezpata au landu Erini'k eta itoltza hura Ade arotz basaziak (179) ? Oiek eta beste gaiñerako guziak gizonoi iainkoek bilbatzen dizkiela beti esango dut nik beintzat ; ta norbaiti alakoak atsegin izan ezpazakio, beuzka bere gogoan, nere buruan, ordea, ala da (180).

Abeslari-talde-burua'k. — Ez ezazu luzatu : gizon au nola illobian eortzi ta zer mintzatzeko zeran gogoan ar ezazu, ordea. Arerio bat baitakust eta laster da emen makur alarena, ez bes-tena, gaitzotan gautzanoi mingaiña idarraustera (181).

Teuker'ek. — Gudalosteko nor ikusi dakusu ?

Abeslari-talde-burua'k. — Beraren ederrez itsas-ostera au burutu dugun Menelau, alegia.

Teuker'ek. — Badakust ; alde-alde urren baitago, ez da eza-gun-gaitz.

Menelau'k. — Ots ! zuri itz egiten dizut, ez ezazu illotz au eskuz eortzi, dagonez utzi, ordea.

Teuker'ek. — Noren ederrez txautzen duzu itz au ?

Menelau'k. — Neure gogokoa da, gudalostearen nagusi dan gogarakoa, alegia.

Teuker'ek. — Aurrez ezartzen duzun zergatikakoa esango al diguzu ?

Menelau'k. — Akaitarren gudu-lagun eta adiskide zurrian etxetik ekarri uste genuelarik, ongi iratio ta Pirigi'tarrak (182) oro baiño arerioagoa aurkitu baitugu : ots, gudaloste osoa sarraskitu

(177) *marrauz* : ezpata.

(178) *txarpa* : zoria.

(179) *Itoltza* : gerrikoa.

(180) Eortzi ala ez eortzi egundoko eztabaida izango da orain.

(181) *Mingaiña idarrausi* : iñon diranak esan.

(182) *iratio* : erkatu.

nairik, gauaz gudaldia egin zun, aiztagaz iltzeko, ta iainkoren batek ekiñaldi ori iraungi ezpalu, aren zoritxar bat zein bat iasanik, esku-aldi lotsagarriena izaki, ilda etzanak gintezkean ; bera, alderantziz, bizitan litzake. Beingoan, ordea, Jainkoak, orren aserrea astanduta ahari ta artaldeetara irauli zun. Ori dala-ta, illotza illobian eorzteko indarrrik beste daukaken gizon bat ere ez da ; aitzitik, izpazterreko ondar orail aldean bertan bera utzi, itxas egaztien iatekoa billakatu dedin. Ortaz, sumin gogorrari buru berotzen ez ezaiozu utzi. Ikusterrean geneukanean, aren buru izatea ezinkizun izan ba'genu, ilda gero eskuperatuko genuke, erabat, naiz ta zuk nai ez izan, indarrean al eta ezin erabiliko baitugu. Etzun nai izan nere aginduen esaneko egundaiño bizitan. Gizon makurrarena bait-da erriko semeak agintariei entzuterik ez-aintzat artzea. Egun eta eguzki ez lirake erri batean ekan-duak ederki ioango, beldur-lotsak ezpaliete tinkatuko, ta guda-loste bat ere ez legoke zugurki bere gain, beldur eta itzalaren esirik ez ba'lu. Ain zuzen ere, bearrez gizonak naiz ta soin latria izan, uts txikienak irauli lezakela uste bear du. Beldurra ta gainera lotsa oi dana osasun bidean dabil, iakiñen gainean egon zaite. Erio-sugarrean ta nai luketen edozer beti ta bete esku ta bide oi dan erria, onezko aizez atsegin bitsetan iardun arren, andik labur leizean barna ondatuko dala, begia bezelaxe erabaki ezazu (183). Bego, alderantziz, beldur apur bat bere abagunez, ta gogoko zaiguna egiñik mingarri zaigukenez beingoan ordain bearrik eztugula izango, ez uste izan. Ausi-osoak bein batak eta bein besteak izaten ditugu. Len hura indar-sugarretan zan, orain, aldiz, nerau nabil oillarturik. Ta zuri, au ez eorzteko agintzen dizut, onela izan da eta izango (184) ; bestela, au eortzirik, zerau ere illobian amilleraziko baitzaitute.

Abeslari-talde-buruak. — Menelau, asmo iakintsuak aipatuta gero, ez al zera zeu illei buruz iraintsu gertatuko.

Teuker'ek. — Gurasoz utsaren urrengo dan gizonak utsen bat egitea ez litzaidake oraindik arrigarri izango, sortzez aitor-

(183) *begia bezelaxe* : seguru, ziur-ziur.

(184) *izan da eta izango* : a pesar de los pesares.

seme diruditenak beuren itzetan alako eleketaz uts egiten baitute. Ots ! asieratik berriz esaidazu : gizona artu-ta, Akai'tarren gudu-lagun onara erakarri omen duzu. Ez ote ? Bere buruz zebillala ez al zan bera beretara itsasoratu ? Onen gualburu zu ote ? Etxetik onek ots-eman zien erriei agintzeko eskubidea nondik nora duzu ? Esparte'ko agintari etorria ziñan, eta ez guretarren iaun eta iabe ; nondik illarraindu zindeken zuk onek baiño agin-pide areagoa izateko, edo ark zuk baiño ? Onakoan iñoren mendeko itsasoratu ziñan, ez guzion gualburu, ta egundo ez zinan izan Aiatz'en buruzagi. Agindu iezu agindupekoei, beraz, ta aiek itz itzalgarrigoz zigortu itzatzu. Au, ordea, zuzen eta bidez illobian ezarriko dut, zure aoaren beldurrik gabe, naiz ta zuk eta beste gualburuak arri ta orma ukatu. Zure andrearen ederragatik ezpaitzun gudukatu, lanez iositako zure soinkariak bezala, loturik zeukaten ziñen ederragatik baizik ; eta iñola ere ez zugaitik, utsaren urrengoak aintzakotzat ezpaitziton. Arrezkero, zoaz, oiuegile geiago ta gualburua bera artuta onara etorri zaitke : zure otsetara ezpainaiz itzuliko, eguna bioa ta gaua betor zeran artean (185).

Abeslari-talde-burua'k. — Elorrioetan onen antzeko mingainik ere ez dut maite : itz latzak, aginka egiten dute, noski, naiz ta erabat zuzenbidezkoak izan.

Menelau'k. — Uztailariak ez du gutxi irizten bere burua, antza.

Teuker'ek. — Ain zuzen ere, arotz-antzea ez dut nereturik nik, arean.

Menelau'k. — Mintzalari politarena egin al izango zenuke, erredola ar ba'zenu.

Teuker'ek. — Bage ere, zuri iskillodun orri, buru emateko lain naiteke noski.

Menelau'k. — Mingaiñez gogo arroa duzu noski.

Teuker'ek. — Zuzenbidea alde izanik, edonor daiteke andi.

Menelau'k. — Il naun ori gallen izatea zuzen eta bide ote ?

(185) Eguna bioa ta gaua betor : batera ez besterakoa, indiferente.

Teuker'ek. — Il ? esatekoak esaten dituzu, ilda gero bizirik baitzera.

Menelau'k. — Iainkoak iarein bait-niñun : onengatik, ordea, egin zan zelaikoa (186).

Teuker'ek. — Ez itsusitu, ba, iainkoak oraingoan, iainkoei zor baitiezu iaiki-bidea.

Menelau'k. — Iainkoen aginduak nik ezetsi ?

Teuker'ek. — Bai, noski, illak eorzten ezpaduzu uzten.

Menelau'k. — Nere arerioak andi-andirik beñipein. Ori ederra izan ? Latz.

Teuker'ek. — Iñoiz zure gudu-arerio gertatu ote zan Aiatz, ala ?

Menelau'k. — Gorrotatzen ninun eta gorrotatzen nun. Ori badakizu zuk ere.

Teuker'ek. — Arri ezarterakoan aren lapur ustel atzeman baitzinuten (187).

Menelau'k. — Epaikarien utsa izan zan ori, ta ez nerea.

Teuker'ek. — Onez eztaukazu zuk azkenik, makurrak bestela-baitakoan saldukeriz betetzeko.

Menelau'k. — Leporaño bete nauzu : itz orrek min eman lezaioke norbaiti.

Teuker'ek. — Oraintxe gogorrago (188) ; iasaneraziko dizugun baiño geiago ez, beintzat, ez baizik ere.

Menelau'k. — Auxe bakarrik esaten dizut : au ez da eortzia izango.

Teuker'ek. — Zuk, ordea, auxe entzuizu : au eortzia izango da.

Menelau'k. — Beiñola ikusi nun gizon mingain luze bat : ekaitz-miñean itsasorako ontzi-gizonak autsi-mautsi eginda artzen zitun. Ekaitzaren gogorreanean txintik etzun ateratzen eta

(186) *egin zan zelaikoa* : san se acabó.

(187) Autespenak arriz egiten zituten. Bitarikoak zituzten : zuriak eta beltzak, alegia. Onestekoa zuri oi zan eta gaitzestekoa, beltz. Arriok kantxin baten sartzen zituten.

(188) *oraintxe gogorrago* : bai zera.

burusi batez estalita, ontzi-mutilletako edonork nai aiña istikatu (189) zezakean, egonarriz iasaten baitzun. Beronelaxe, odei ariñetik ilkitako erauntsi zakarrak aize emanik, zu ta zure aoskera itzali al izango ditu.

Teuker'ek. — Nik ere gizon bat ikusia dut, ergelkeriz gairiezka : zoritxarrean urren zeukanak oro mardaitzen zitun. Ta nere antzeko norbaitek, eta aldartez ere kide nun urliak, onelako itzak esan zizkion : « Gizon, ez itzatzu gaizki erabilli ildakoak. Alakorik egingo ba'zenu, gorriak ikusiko zenituke, iakitun egon ». Alako aolkuak egiten zizkion, gizon aundi-maundiari buruz buru aurkez zunean. Badakust hura, noski, ta zeu beste iñor ez da, nere ustez. Argi ta garbi itz egin al dizut ?

Menelau'k. — Banoa : norbaitek iakingo ba'lu, lotsagarri luke itz erauntsiz iñor astintzea, bertatik bertara indarra bere esku daukakenean.

Teuker'ek. — Oraingoz zoaz : gauza eztiran esamesak besterik izurtzen ez ditun gizon ergel bati entzuten egoteak ere are gorrituko bait-niñuke lotsaren lotsaz. (*Badoa Menelau*).

Abeslari-talde-buruak. — Bere aldiko liskarraren autsak batuko dira : beraz, alik eta ariñen, Teuker, leiatu zaite onentzako uts-gune sakon baten billa, artan bertan illobi zabala erakitzeke, illen-umeen betiko oroigarri. (*Badator Tekmese bere aurrakin, Eurisake'kin alegia*).

Teuker'ek. — Ain zuzen ere, garaiz or urbil etorri datoz gizon onen aurra ta andrea, ildako gaixoaren illobiari arretaz begiratzeko. Oi aurra ! oneratu zaitez ta urren tinkaturik, eskuak ezarri, sorterazi ziñun aitaren otoi-egille ! Eseri eskabera, eskuetan nere adats-txerloak, zure amarenak eta irugarren zureak, eukirik : otoi-egilleon oparia, alegia. Gudalosteko norbaitek ezinbestez ildako onengandik kenduko ba'ziñu, bere lurraldetik ondikoz alde iaurtia bedi zorigaiztodun uxea, ez bestea, ta illobirik bage bedi sendi osoaren enborra tutorretik itaiturik, onelaxe, adats-txerlo au erauzten dudanez (190). Artuizu, ene aurra, ta

(189) *istikatu* : ostikatu, zapaldu.

(190) Alako biraoak maiz egiten ziran. Zarrena, bear bada, Omer'

iagon ezazu, iñork ez bezaizu kendu, ta auzpezturik otoi dagi-kezunean, eukizu. Ta zuek ez zaitezte emen egon emakume, gizon orde ; aldeztu ezazute, oni illobia antola ondoren, ni etorri artean, naiz ta guziak aurkako izan.

ABESLARI-TALDEAREN ERESIA

Abeslari-taldea'k. — Zein ote da azkena ? or-ara alderrai dabiltzaten urteen kopurua noiz etengo ote da ? aiztaga dardarazten duten nekeen eten-bageko zoritxarra beti leporatzen baitidate Elade'tarren alkekizun gorri dan Troia zabalean.

Bearrez lenagotik egurats andian sartu, edo, guzientzako Ade'n barna egon bearra zun iskillo gorrotogarriz erabateko guda Eladetarrei erakutsi zien gizon hura. Ondikotz ! nekeen-gandik nekeak aldaskatuz ioan doaz. Gizakumeak oro ark zuzitu baititu. Ark ezpaitzikidan ar-emanka ari izaterik utzi buruntzen edo goporren atsegin betean, ezta txirulen durundi ezta, ezta aurpetik pot eman ez gaueko atsegiñik izaterik ere, gizon galgari alarenak ez bestenak. Ta maitasunak ere, ondikotz ! ta maitasunak ere gibeleratu dizkit : larru-lazo etzanda emen nago, ordea, adatsak intz loditan beti blei-blei, Troia itsaren oroigarri. Lenago, beñipein, gaueko beldur eta gezien aitzin babes nun Aiatz oldarkoia : orain, berriz, alabear beltzak eratzanda or dago. Zer atsegiñek oraindik atzera-mardo egingo (191) dit ? Egon-go al nintz itsasoko ur larriak iotako lur-muturrean, Suni'ko morkaitz tontorpean, alegia, andik Atenai gurenari agur egiteko (192).

ek dakar. Iliarena, III, 298 ta abar. Teokiri'k ere badakar, II, 28 t.a. Biraoak egiteko arauok badiraute oraindik errietako siñeskerletan. Onen antzeko zerbait irakurtzen dugu « Orixe »ren « Euskaldunak » poeman.

(191) atzera mardo egin . azkenerako indarrak gorde.

(192) Suni'ko morkaitz tontorra Elade ertzean ageri da, Atike'ren muturrean, ain zuzen ere. Fguzki-aldetik Elade-runtz itxasoz zoazela, sostean uren gaiñetik gora lenengoz agertzen dan lur-muturra, alegia.

IRTEERA

Teuker'ek. — Leiaka banator onuntz, Agamenon guda-
burua etorri datorrela ikusi baitut : bere ao ezkertua arin koloka-
tuko du, nabari danez.

Agamenon'ek. — Zigor-beldurrik bage gure aurka txaku-
rrenak ao betean esaten ari izateko bekokia izan omen duzun
zuri diotzut : iopuren seme orri ots egiten dizut, arean. Egia
esan, ama aundikiren seme izan ba'ziña, itz arrorik aski egingo
zenuken, noski, ta beatzen gaineko bidez bide zut zaloika ibilliko
ziñaken, aurki : utsaren urrena zerala, ian-txakur (193) utsaren
alde guduka baitiarduzu, ta gu ezkiñala etorri Akai'tarren ezta
zure guda-buru, ezta ontzi-talde-buru ere zin egotziz esan bai-
tuzu ; aitzitik. Aiatz bere eskuko izaki itxasoratu omen zan, dio-
zunez. Inon diranok iopu batengandik entzutea ez ote makurrik
andiena ? Azalak artu eziñik oiur arroz erlastuta (194) aipatzen
duzun kuku-otzara ori (195) nor da ordea ? Ni egon ez nintzan
norat ioan al zan edo nontsu egon ote zan ? Akai'tar artean
arako hura beste gizonik ez ote da ? Ustez uste bageko garratza
gertatu zaigu Akileu'ren iskilliak zirala-ta aldarrikatu genun
norgeriagoka, Teuker urliaren baitan non-nai gaiztotzat agertu
bearra ba'genu, ta zuentzat egundo naikoa ezpalitz, txil eragi-
ñarren, beredin epaikerien erabakietara bat etortzea ; baizik
ore. okerren erantzupidea guri beti iaukiz edo beltza eginda ez-
tenka beti ari baitzerate zuek, garaituok ! Ontara ibilliz lege
baten sendotzerik egundo ez litzake al izango, noski, esku ta
bidez garailleak aldera iarriko ba'genitu, arean, eta gibelegoak
aitzin bear ba'lira. Alakoak ataka sendoz eragotzi bearrak dira,
ordea ; nor noragiñokoa dan ezpaitute erakusten soiñaren mu-
kulu (196) larriek edo bizkar zabalek, gizon burutsuek baizik,
nonai nagusi izaki. Idi saiets-aundia zaharo ariñenak ere zuzen

(193) *ian-txakur* : lateko baizik on ez dana.

(194) *erlastu* : marranta dauka, ronco.

(195) *kuku-otzara* : funts gutxiko norbait.

(196) *mukulu* : volumen.

eramaten du bideak barna. Bereonclaxe, sendagaillu auxe burutik-bera zintzillik laster iarri bear izango dizut, senaren iabe egiten ezpazera. Utsa ta itzala besterik ez dan gizon bat dala-ta, txakurrenak esan eta nai bezela eioan mintzatzeko bekokia baituzu. Ez al zera seneratuko ? sortzez nor zeran iakiñjk, ez al diguzu bere eskuko dan gizon aitorsemeren bat onara igorriko gure aurrean zure orde zurekikoei buruz mintzatzeko ? Zuk itz egiten duzunean, tautik ez dizut aditzen ; erdal-izkerarik ezpaitut ulertzen.

Abeslari-talde-burua'k. — Bier. ala biek zentzatuko al zerate ! Oberik zuei esatekorik ez daukat.

Teuker'ek. — Ondikotz ! Ongillea ilda, illen-ume artean zein arin urtu oi dan arenganako eskar ona ta etoi billakatzen dan ! Zutzaz, Aiatz, gizon onek itz ñimiñoen oroipenik ere ezpaitu : berau dala-ta, aleginka zipert ikusi zenun, aitzaga galurrean zure gogoia ezarririk. Guziok urtikan iaurti ta alde ioan nak dira. Oraindik orain amaikatxo astakeri esan dituzun orrek, deusik ez al duzu oroitzen ? arresietan zuek ertsiturik ziñatenean, aitzagak igesari emanda, utsaren urrengo ziñatenok berak bakarrik babestu zinuten : Ontzi-poparean ta arraunlarien tostetan sua garretan zanean, ontzietara abazuzaka oldartu zan Ektor, luebakiak albo-alboka igarorik. Nork itzuri zitun guziok ? Oiek burutu zituna ez al zan berau izan ? Iñoiz ez omen zan arerioen buruzki oiñez ioan, zuk diozunez. Onek egiñak ez al zenituen zuek onartu ? ta beste bein batean, berau andiririk Ektor'ri buruz-buru ioan zitzaion aurkako, ta eurak eurotara gelditu, zotzak aukeratuta, ta ez iñork aginduz artaratuta : onek, alabaiña, birlotxo igeskariz eskualdeka etzun zotz egin, alor bustiko sokorraz zozoillo batek bezala, moto ederdun zakur-larruzko buru-oskoletik lenengoz iauzi arin egingo zun zotzez baiño (197). Orra onek egiten zitunak, nerau, ama erdaldunaren seme ta iopu au aurkez izaki. Txaldan orrek be-

(197) Iliá'renean (VII, 161 ta iarraituetan) bederatzi gudari agertzen dira. Ektor'ekin burrukan buru bat egingo zuna nor izan zitekean lakiteko ta Aiatz'i egokitu zitzaion. Emen, baina, Kresponta'rena burura dakar Sopokel'ek. Peleponese'z iabetu ondoren, iru laintan

giok nora zorrozten dituzu esateko oiek esatekoan ? Zure aitar-
ren aita zana, Pelopa (198) zarra, alegia, Pirigitar erdalduna
zala ez al dakizu, ala? Sortarazi ziñun Atereu'k (199) oturun-
tza igungarrienean berberaren semeak eskeñi zizkiola bere anaia-
ri ? Gizon arrotz batekin atzeman zula zure aitak berak zerau
erdi egin ziñun Kerete'ko ama (200), eta arrai ixillen mazitzat
iaurti egin zula ? Zerana zerala, zuk neri nere iatorria dala-ta
iñon diranak esaten dizkidazu ? Sortzez aita dut Telamon ;
gudalosteko lenengo gaillendurik, nere ama izter-anderetzat
artu zun ; iaioz andragoia zenun, Laomedontu'ren alaba
(201) ; ta esku-erakutsi aukerakoena bailitzan Alkmene'ren se-
meak (202) ari eman zion. Bi guraso aundizkien seme aundi-
kia izanik, eortzigabe zoritxarretan etzanda dauzkazun nere
odoleko senideak nik lotsarazten al ditut ? ori da larru sendoa,
alako otsetan ibiltzeko. Iakiñen gaiñean egon zaite ; ortik zear
au iaurti ba'lezazute, beste iru illotz etzanda berebat iaurtiko
zenituke. Eder baitzait onen alde ene burua garbi iarrita ale-
ginka lertu, zure, edo zure anaiaren emakumearen alde baiño,
alegia. Arrezkero, begira zure buruari neri baiño areago. Ezer-
tan gaitzik egingo ba'zenida, naiago izango zenuke neri buruz
beldurti izan, ausarti baiño. (*Teuker'ek azken itzok esatean,
Odiseu antzokira sartzen da.*)

Abeslari-talde-burua'k. — Odiseu bakalduna, garaiz etorri
zera, korapilloa egitera ez, baiña askatzera etorria ba'ziña : ia-
kin ez zuk ? baita...

Odiseu'k. — Zer da gizonok ? Urrundik aditu baitut Ate-
reu'tarren oiua, aitzin-gibelak sendoak zitun ildako au dala-ta.

erendu asmotan omen ziran. Lenengoak Argu, bigarrenak Lakede-
moni, irugarrenak Mesenia. Kresponta'k bustinezko sokortxoia bota
omen zun, azkena aterateko.

(198) *Pelopa* : Tantalaren seme ta Ipodemeie'ren senar : itzez itz
« arpegi zurbil ».

(199) *Atereu* : Pelopa ta Ipodemeie'ren seme.

(200) *Kerete'ko ama* : Kerete izaroan ialoa zun ama, alegia.

(201) *Laomedontu* : Troia'ko bakaldun oia.

(202) *Alkmene'ren semea* : Erakel.

Agamenon'ek. — Entzutekoak ez al ditugu arestian entzun gizon onengandik, Odiseu bakalduna ?

Odiseu'k. — Zertzuk ? Belarri-mingarri diran iraiñak entzuten ditunari mingañak idarraustea, parkakizun dut nik beintzat.

Agamenon'ek. — Beltzak entzun ditu entzun ere : egitekoak egin baitizkit.

Odiseu'k. — Zer mingarri egin dizu, ba ?

Agamenon'ek. — Illotz au illobi bage ez omen du utziko, eta nere bizarrak gatik eortziko ei du.

Odiseu'k. — Egia esaten dizun adiskideak esku ta bide ote luke, len aiñako arraunkide orain ere izateko ?

Agamenon'ek. — Esan : alderantziz, ergela izango baitnintzake, Argeu'tarren artean zerau adiskiderik miñena esten baitzaitut nik.

Odiseu'k. — Entzun orain. Gizon au illobi bage iaurtitzea ez ezazu erruki gabe onartu. Egundo ere, ez al zaitu garaituko indarkeriak eta gorrotoak, zuzenbidea ostikopean erabiltzeko aiña. Nerekiko ere auxe zenun gudalosteko areriorik gorriena, Akileu'ren iskillu iabe egin nintzan ezkerro. Alare, neri buruz zidan ezin-ikusia gora-bera, iñoiz ez nezakean gutxietsiz beztu, Troia'ra eldu geranon artean, Akileu ez beste Argu'tar guzian artean, alegia, gizonik gailenena zanik bein ere ezpaitut ukatu. Zuk ere ez zenuke beztu bear esku ta bidez ; berari ez baina, iainkoen legee egingo baitzenie ogen. Onezko gizon zindoari, ilko ba'litz, kalte egitea ezpaita zuzen, naiz ta begietan arturik euki (203).

Agamenon'ek. — Nor ta, zu Odiseu, onen alde ta nere aurka guduka iardun ? Zokotik argi ! (204).

Odiseu'k. — Bai neu. Gorrotatzea eder zanean gorrotatzen nun, noski.

(203) *begietan artu* : gorrotatu.

(204) *zokotik argi* : gutxien uste dugularik zerbait gertatzen zai-gunean esan oi da.

Agamenon'ek. — Beraz, ildakoa alderen alde ostikopetu bearrik ez al zenun ?

Odiseu'k. — Atereu'ren seme ! eder ez diran irabazietan ez zaite pozarren ibilli.

Agamenon'ek. — Erabateko buruzagiak erruki izatea ez da errex.

Odiseu'k. — Bai, ordea, ongi dioten adiskideak aintzat artzea.

Agamenon'ek. — Buru diranei entzun bear die onezko gizon danak.

Odiseu'k. — Zaude ixillik : adiskideei txil eginda ere buru zera, noski.

Agamenon'ek. — Nori eskar egitea nai duzun oroitu.

Odiseu'k. — Arerio nun gizon au, baña, egundoko bioztoi zan, izan.

Agamenon'ek. — Zer egiteko zera, gero ? ildako arerioari orrenbesteko itzal ?

Odiseu'k. — Berebiziko iasoa nagusi bait-da ene baitan etsaigoa bañoago.

Agamenon'ek. — Orain, aunitz dira adiskide, noski, ta gero arerio.

Odiseu'k. — Gogo gogorrak goraipterik ez dut maite nik.

Agamenon'ek. — Egungo egunean gu gaiztotzat agertaraziko al gaituzu ?

Odiseu'k. — Ez orixe ; Eladetar guzion iritziz gizon zuzentzat baizik.

Agamenon'ek. — Ildakoa eorzten uzteko aolkatzen al didazu, beraz ?

Odiseu'k. — Baiki : ta neu ere andi andirik ara bertara ioango naiz.

Agamenon'ek. — Berdin da ; gizon bakoitza norberaren alde nekutzen da, norbera da bein.

Odiseu'k. — Nere buruaren alde baiño areago, noren alde alegin egin bear dut ?

Agamenon'ek. — Zure arloa ta ez nerea ots egingo dute.

Odiseu'k. — Egitekotan, non-nai onuragarri izango zera.

Agamenon'ek. — Ots ! Auxe iakin ezazu, ba ; au ta esker andiägoa ere banatuko nizuke : au an edo emen egon, ordea, berdintsu arerio izango zait. Egin bear duzuna egitea esku duzu, beraz.

Abeslari-talde-burua'k. — Sortzezko senez, Odiseu, iakintsu zerala ez dionak, dana dala, ergel utsa da.

Odiseu'k. — Ta orain berri auxe esan bear diot Teuker'i : orain arte arerio nintzaizun giñoan, gaurdanik gora adiskide natzaizuke. Ildakoa eorzten lagun egin nai diot eta berakin batera nekatu, ta gizon iaukalen alde illen-umeak egiten dituten alegiñik bat ere ez bertan bera utzi.

Teuker'ek. — Odiseu iaukalen ori, zure itzen alderako zeu erabat gorestea daukat, nere usteak askoz ustel atera baitituzu. Izan ere, Argu'tarren artean onen areriorik miñena izan, eta eskuartez aldeko bakarra billakatu zera. Oni, ildako oni, bizi-rik alde-alde egonda, txakurrenak esateko bekokirik eztuzu izan; oiñaztarriak iotako gudalburuak eta anaiak bezela, illobi bage alkegarri iaurti nai baitzuten. Arrezkero, Olinpu'ko nausi dan aitak eta Erini oroitzalleak eta Zuzenbide epailleak gaizto oiek gaiztoz galeraziko al ditute, gizon au itsuskeriz ez-aintzat iaurti nai zuten arabera. Zuri, berriz, Laerti aita agurearen seme orri, onen illobian eskuartzen uzteko beldur nauzu, ildakoari nekagarri ez nakion : gañerakoetan, ordea, ene lankide onartzen zaitut eta gurekin gudalosteko norbait eroale nai ba'zenu, eztugu iñolako atsekaberik izango. Besteak oro burutzea nere gain dago. Zu, berriz, gizon urentzat zaitugu guketz, beintzat, iakitun egon.

Odiseu'k. — Nik beiñik bein opa nun. Guk ori egiterik ezpaizaizu atsegin, ordea, banoa, zurekikoak oso onarturik.


Teuker. — Aski da : engoitik aldi aundia ioanik da. Beraz, zuek eskuz illobia zulatzen leiatu zaitetze ; zuek, berriz, bara-

noan, sutan iru-zangokoa (205) gora ezarri ezazute, ixuriketa gurenatarako : kaparretik gizon sail batek babeskipeko iskilliak ekarri bitza. Aurra, zuk laztanez aitari saietsetatik oratu eta egiñalak egin itzatzu ta bizkor jasotzen lagun ezadazu : beitik gora txirrioan odol beltza ekarri baitakarte oraindik zain be-roak. Ots ! adiskide omen diranak oro, diranak dirala, lasterka betoz, eguzkiaren azpian dan gizonik oberenaren alde ta illen umeen arteko iñork egundo gallendu ez dunaren alde zain eta muin lan egiñik.

Abeslari-talde-burua'k. — Begi-argia egiten (206) duten gizakumeei anitz eta agitz ezagutarazten zazkie : ikusi bage, ordea, etorkizuneko zer gertatuko dan igarri lezakenik ez da.

(205) *iru zangokoa* : trebedea.

(206) *begi-argia egin* : begi zuriak egin : atsegiñez begiratu.



TARAKIN'GO EMAZTEKIAK

ANTZERKIAREN MAMIA

Tarakin'en, lorretan betillun bizi da Deianeire, Erakel senarraren berri iakiteke, amabost illabete aunditan etxetik alde baitabil. Alako batean Lika agertzen da, atzetik Oikali'ko zenbait atxillo ekarki. Atxillo artean neska andiki bat autematen du Deianeire'k, eta Erakel'aren biotza bipildu egin diola neska orrek, berealakoan antz ematen dio. Arrezkero, benetako emaztearen ordeko dala igartzen du. Makur au itzurtzeko, senarrari esku-erakutsi ximena igortzen dio : erensugearen odolatan uieldutako longaiña, alegia. Longain orren bidez auxe iritxi nai du ; Erakel'aren biotza maitegarretan irazeki ta maitakeri itsusietatik alderazi. Senarrak soiñeko eder hura esku-ratu-ala, soiñeratu ta iantzi egiten du. Usteak ustel irten zion : laztanaren maitasunean irazeki orde, soiña surtan erre, ta erabat andeaturik lotzen da Erakel. Ziper ikusita, ozta ozta etxeratzen da, senideak azkenekoz agurtu ta iltzeko. Senarra etxera zaneko, Deianeire'k bere burua il zun.

Orra « Tarakindarrak » deritzan antzerkiaren giarra labur zur.

ANTZEZ - LAGUNAK

DEIANEIRE, Erakel'aren emaztea.
INUDEA, atso zarra.
ILA, Deianeire ta Erakel'aren semea.
GEZNARI bat.
LIKA.
ERAKEL.
AGURE bat.
ABESLARI-TALDEA, Tarakin'go amabost neskatxek osotzen dute.

ANTZEZ - TOKIA

Tarakin'go erregearen iauregi-aurrea.

SARRERA

Deianeire'k. — (1) Bala-bala dabil esaera zar au gizakume artean : « Norbait il baiño len, aren bizitzaldia ona ala gaiztoa izan danik iñork ezin dezakela iakin », alegia. Nik, ordea, Ade'ra (2) ioan baiño len ere, zoritxarrezkoa ta aztuna egokitu zaidala badakit. Peleuron'en (3), Oineu (4) aitarenean bizi nintzanean, Aitoli'dar (5) emakume batek ere zateken beldurrik latzena ukan nun, ezteietarako, ibaia senargai izan bait-nun ;

(1) Antzerki onen sarreran ez da ageri zertara agertu diran Deianeire ta Inudea. Ori dala ta, zenbait berri eman bear ditute ikuslearen ederragatik : bestalde, berriok ezagunak zituten Elade'ko ikusleek. Alako zerbait egiten du Sopokel'ek berak Piloktete'ren sarreran ere.

(2) *Ade*, illen beitiko erri edo egoitza.

(3) *Peleuron*, erri-izena da. Aitoli zarreko uribururik aipatuenerikoa zenun. An bizi zan narerik Deianeire bere aurtzaro ta gaztaroan.

(4) *Oineu* zeritzan Deianeire'ren aita.

(5) *Aitoli* : Elade'ko iparralde eskualdea zan ; aren egoaldean zenun Korinto'ko itsas-kolkkoa : sartzaldean Akeloon ibaia zun eta ipar eta sartzaldean zitun Parnaso ta Oite mendien egiak.

ots, Akeloon (6), eta irutariko iruditan aitari eskatu nindion : batean, ara ta ona dabillan benetako zezena, bestean, erensuge izpildun (7) kiribildua, beste batzuetan, giza-enbor idiburudun : eta ur iturburu bateko txirrioak adarrez zerizkion aren azpegi itzaltzuak bera.

Alako senargaiari itsasteko beldurrarren beti il nai izan nun nik, zoritxarreko onek, alako ezteietara iñoiz urbildu baiño. Geroenean, nere pozez, Tzeu (8) ta Alkmene'ren (9) seme ospatsua etorri zitzaidan : ari burrukan eraso ta iarei egin niñun. Lanbide aien goraberarik ezin esan dezaket : ezpaitakit. Alabañan, izutu gabe ikusterrean (10) egon zanak esan lezake. Ni, beldurrarren lazturik (11) bait-nengoen, ederra noizpait zoritxar bete gertatuko ez ote zitzaidan.

Tzeu burrukalariak amaia ezarri zun eder, ederrik ba'da. Erakel'aren (12) emazte aukerakoa egokiturik, beti beldurraren beldurrez nabil ; orixe dut begiko fitsa : dordoa (13) gauak erakarri ta ostera gauak kendu egiten dit. Seme-alabak azi, bai, egin ditugu ; ark, berriz, urrutiko alorra akuran artu (14), erein eta uztaroan bakarrik ikusten dun lugiña dirudi.

(6) *Akeloon* : Deianeire'kin Erakel'ek arpegi-ikuste izan zuneko, neskak eskontzeko itza emana zion Akeloon'i, ibai-iainkoari, Pindar olerkariak dionez. Burrukan ari eraso ta adar bat autsi omen zion Erakel'ek. Adar autsia berriz beretzearren, ioritasun-adarra eskeiñi omen zion Akeloon'ek. Erakel'ek ioritasun-adarra artu ta Deianeire'ren aitari eskon-saritzat eman zion. Elade'ko ibairik zabalena zenun. Pindu mendian sortu ta Ioni'ko itsasoan sartzen da. Ango iaurespide, ipui ta elezarretan ibai-iainko bezela ageri da.

(7) *Izpildun* : pinta-dun.

(8) *Tzeu, Elade'ko* iainko guzien nagusi ta buru.

(9) *Alkmene* : Mikenai'ko bakaldun Elektrion'en alaba ta Anpitrion'en emaztea. Berau zan Erakel'aren ama, Tzeu aita izaki. Senarra etxetik alde zanean, Tzeu aren iduriko egokitu ta Alkmene'rekin etzan zan.

(10) *Ikusterrean*, begien aurrean ukan.

(11) *Laztu*, izutu, beldurtu.

(12) *Erakel*, Tzeu ta Alkmene'ren seme ta Deianeire'ren senar.

(13) *Orixe dut begiko fitsa* : orra nere barne-kexka. *Dordo*, durdu : neke, lor, korapillo.

(14) *Akuran artu* : alogerean artu, eraenez artu, alokairuz artu.

Alako bizibideak, ordea, etxera erakarri ta etxetik beti at-
ra egiten du gizona, norbaiten gogoko.

Orain, berriz, burruka oietatik lerdan sortu daneko, are
izu-ikarak nauka baitik-bat. Ark indarrez Ipitu (15) il ezkerro, gu,
noski, Tarakin (16) ontan erbesteko gizon ezain batenean bizi
gera. Ura, ordea, noratsu ioan zanik iñork eztaki : ioan eta
neri gorriak ikusi-erazten dizkidala baizik. Hari lorren bat ger-
tatu ote zaiolakoan nago alde-aldean. Ote dan ba ! (17) Onez-
kerro, amar illabete beste bosti eratxikita (18), berririk gabe bai-
tirau ; aldi laburrik ez da gero. Ta atsekabe aundiren bat du-
ke, noski ; ioaterakoan, onelako oltxo utzi baitzidan, eta maiz
berau iasotzean, lainkoei arren bai arren eskatzen diet zoritxar-
rik gabe naiten.

Iñudea'k. — Deianeire andrea, askotxotan osaro negar
egiten (19) antzi txirritiak (20) urtika ikusi zaitut, Erakel'ek alde
egin dula-ta. Orain, ordea, iareiak iopu asmoz zentzaraztea zu-
zen eta bide ba'da, ta zurekiko itz egin bear ba'dut, gizonezko
seme gonburu duzun ezkerro, zer dala-ta bat ez al duzu bial-
tzen, azterrenak artzeko ? (21). Baitik bat, Ila, antza ; aita eder-
ki dabillega iakitea, ezer ba'dioakio, beintzat. Ain zuzen ere,

(15) *Ipitu* : Euritu'ren seme ta Iole'ren anaia. Oikali'ko bakaldun
zan Euritu. Erakel'ek il zun Ipitu : bitara azaltzen da antzerki ontan :
aurrena gezurrezkoa da, ta bigarrena egiazkoa.

(16) *Tarakin* : Elade zarreko uri bat zan, eta Asopu ta Mela ibaien
tarteko zelaigunean kokatzen zan, eta Oite mendiak esitzen zun. Tesali'tik
zetorren bide nagusia gaintzen zun.

(17) *Ote dan ba !* Izan ez ? bai orixe.

(18) Irutan ematen du Deianeire'k iaingoengandiko berri : aurrenik
iñudeari, gero Ila semeari ta azkenik abeslari-taldeari. Semeari ialkitzen
dionean, aldiaren epea ez, baiña, bere senarraren Euboi'n egotea ageriago
iartzen du. Iaingoengandiko esan ori amabi urte lenago iaso zun Erakel'ek
Seloi'tarren basoan.

(19) *Osaro negar egin* : negar-batean ari.

(20) *Txirriti* : oiur zorrotz.

(21) *Asterrenak artu* : ikusmiatu, ikertu.

ortxe dator etxeruntz oin-arin. Arrezkero, nere esana ari arikoa (22) ba' deritzazu, gizona ta nere itzak erabiltzea bertatik bertara duzu (23).

Deianeire'k. — Ene seme ! ene aurra ! Doillorkumeengandik berebat itz ederrak sortzen dira ! Uztarpekoa baitugu andre au, esan ere, ordea, itz zindoa esan dit.

Ila'k. — Zer ? lakinerazi idazu, ama, iakingarri balitz, beñik bein.

Deianeire'k. — Aita ain luzaroan alde-egiñik dala, non danentz zuk ez iakitea, lotsagarri omen da.

Ila'k. — Badakit, ordea, esanak sinisgarri ba'dira beintzat.

Deianeire'k. — Nongo lurretan omen dabil, ba, seme ?

Ila'k. — Ioan dan urte luzean, Lidi'ko (24) emakume baten otsein lan egin omen zun.

Deianeire'k. — Arrezkero, edozer daiteke entzungarri, oriasan ba'du.

Ila'k. — Artaz, ordea, burua iaregin omen du, entzun dudanez.

Deianeire'k. — Il edo bizirik, nontsu omen da orain ?

Ila'k. — Euboi (25) eskualdean omen, Euritu'ren erria gudukatzen edo ortarako ari-arian, alegia.

Deianeire'k. — Ba al dakizkizu, enetxo, lurralde orri buruz utzi zizkidan iainkoengandiko erantzun ziñak eta miñak ?

Ila'k. — Zeintzuk, ama ? tautik ezpaidakit.

Deianeire'k. — Biziaren azkena burutzekotan dagola, edota, burruka ontan onik aterako ba'litz, gañerontzekoan, zorioneko bizialdia ukango lukela. Alako kinka gaiztoan (26) txonpelaka

(22) *Ari arikoa* : bete betekoa.

(23) *Bertatik bertara* : urren egon.

(24) *Lidi* : Asia Txiki'ko erri aldea zan eta aren mugak tinkatzea zail egiten da, aldi berezietan aldatu baitziran. Erodotu'ren esanez, Lidu'k ezarri omen zion izen ori, Ati'ren semeak, alegia.

(25) *Euboi*, Eladetar izaro-sailleko izarorik aundiena zan : bertako mendi basoetan abelgorri ta giberrak larre ederra oi zuten. Ango uri nagosienak Kalki ta Eretiri ziran.

(26) *Kinka gaiztoan* : aldi larrian, neketsuan.

(27) dabillen ezkeru, ez al zoazkieke lankide, seme ? Hura iarei egiñik, guziok egongo baikera iarei, edota, erabat galduak gera, izan.

Ila'k. — Banoa, ama : ta aspaldidanik ioana nintzaken, iainkoen erabaki orren berri ukan banu. Aitaren lagun dan alako zorionak ezpainiñun atsekabetzen, ezta agitz izutzen ere. Orain, berriz, iakin dudana ezkeru, guzian egia osorik ikasi arte, ez tut ezertxo ere bertan bera utziko.

Deianeire'k. — Zoaz, enetxo, oraintxe : berantetsiari ere, berri onak, irabazia dakarkio, ikasi-ala. (*Badoa Ila*).

ABESLARI-TALDEAREN SARRERAKO ERESIA

Abeslari-taldea'k. (*Tarakin'eko amabost neskatxek osotzen dute*). — *Eguzki* (28) *sutsua ! gau izartsu bipillak sortuerazten eta etzanerazten zaitun ori ! Oloi egiten dizut, Eguzki, erazagut idazu non bizi dan Alkmene'ren semea, izpi dirdaitsuz gori zeran argi orrek ! Itsas-adarretan edo, legor biotatik* (29) *batean etzanda ote ? esaidazu, begiak zorrozturik garaile zeran orrek ! Deianeire irrikatua beti gogo urduriz ikusten baitut, txori mindua iduri, malko bageko begien maitemiñari lo eragin eziñik : gizonaren oroiz, izuak lazturik, senarrik gabe ezkon-atsegin kezketan urratu rik, ondiko txarra* (30) *alabearrez itxoiñenean.*

Egoak edo iparrak etengabe astindutako aleun (31) *uin itsaso zabalean ioan etorrika ikusi ditzakegunez, aren bizitzako lan uga-*

(27) *Txonpelaka* : zibuka, alderoka.

(28) *Tarakin'go amabost neskatxek osotzen dute abeslari-taldea.* Deianeire'n iardunbide eta ariketa andre maltzurarena da. Arrezkeru, neskatx xalo ta ez-ikasien artean obeki burutu dezake bere egitekoa. Euripide'ren aldez beste ari da Sopokel. « Medeie » n gertatzen dana burura ekarri ezazu : antzerki ortako andrazkoek zakarrago ta basatiago ari dira. Abeslari-taldearen egitekoa orixe duzu emen : neskatx garbi ta bakunok ez dute autematen Deianeire andre egiñaren makurkeria.

(29) *legor* : lur sendo edota ludi-zati aundia ; legor biok Europe ta Asia dira.

(30) *Ondiko txarra* : zoritxarra.

(31) *Aleun* : zireun, makiña bat.

riak irauli ta gora eragiten dio Kadmu'ren (32) semeari, Keresi'ko itxasoa (33) iduri. Alare, iainkoren batek Ade aparabearen (34) tegietatik saiestu egiten du. Orien itzalez, bai, baiña, bekoz-beko iauki (35) dizkitzut: itxaro onik ez duzu galdu bear; auxe esaten dizut: oñaze gabe bizitzerik ez die ilen umeei eman, ezta Koronu'ren semeak (36) ere, dana iaurri oi dun iauna dalarik. Bide biribilletan ari dan artzaia makoarekin (37) iduri, guzion gain dordoak eta atsegiñak birundan (38) diardute, illen umeentzat ezpaitiraute ez gau izartsuak, ez alabearrak, ezta aberasia-sunak ere : beingoan badoaz ta beste norbaiti gertarazten zaio eukitzea ta bagetzea ere. Arrezkero, onelako ustea beti euki bear duzu, ene andregoa. Norik ikusi du, ba, Tzeu, semeekiko orren burugabe ?

LENENGO GERTARIA

Deianeire'k. — Nere dordoaren berri ikasi duzu, noski, aieru ditekenez (39) ; arrezkero aurkez zaitut. Gogoia atsekabettan urturik dizut, ordea, iasanik ezpaitezakezu iakin, orainarte atingabe (40) izaki. Onelako aurkintzetan (41) garatzen bait-da gaztaroa, ta iainkoaren beroak, ezta euriak, ezta aize batek ere ez dute zimeltzen, eta dordorik gabe atsegiñetan bizi oi da, neskaen orde andre-izena iritxi arte : arrezkero, gauetan kezka lasturik dabil gizona dala-ta, edo semeak dirala-ta. Alakoen berri dezakenak, urtzen ari nauten gaitzok antz eman litzake. Anitz eta agitz geiago neke mindurikatu ditut neonek : beste bat orain ialkiko dizut, lengoen aldean erabat bestelakoa. Etxetik

(32) *Kadmu*, Agenor'en seme ta Tebe uriaren iraslea.

(33) *Keresi'ko itxasoa* : Kerete'ko itxasoa.

(34) *Aparabear* : io-bear.

(35) *Iauki* : larderiatu, egotzi.

(36) *Koronu'ren seme*, Tzeu, alegia.

(37) *Artzaia makoarekin* : artzemearen izarpilloa edo kostelazinon.

(38) *Birundan* : inguruka.

(39) *Aieru ditekenez* : antz eman ditekenez.

(40) *Atingabe* : bizitz gora-beratan ez-ikasia edo ez-oitua.

(41) *Aurkintza* : eskualde, lurralde.

alde nere Erakel jaunak (42) azkenengo bideari ekin zionean, etxean oltxo zar bat eginkizunez idatzia utzi zidan, alde-aurrez gudu ainitzetarakoan ez oi bezela, zerbait egitekotan beti baitzioan eta ez iltzekotan.

Oraingoan, ordea, gaugero bere burua bizirik ezpaileukaken, aukera bear nun senarra aipa zidan, eta semeei aitarendikiko onibar-laiña ondarez erabaki ziena esan zidan (43) ; ta aldia neurturik, urtebete ta iru illabete aldenduta egotekotan, aldi bertan ilbearra izango zula, edota, aldi orren azkena onik burutu ezkeru, gañerontzekoan dordorik gabe bizi izango zala, alegia.

Iainkoak erabakia omen zun, Erakel'en lanbideak onela burutzea, eta Dodone'n Pelei'tar biengandik aritz zarrak noizbait esan omen zion (44) : eta oraintxe bertan, orien egia gertarazteko garaia da : ta betebearrak dira. Ain zuzen ere. ene laztanok, lo atsegiñean nentzanean beldurrarren izuturik oetik iauzi egin dut, onenaren betargi gabe gelditu bear bait-nintz.

Abeslari-talde buruak. — Itz onari eutsiozu dagoneko, gizon ezein bat buruntzaturik datorrela baitakust, berri atsegin-garriren bat ekarki.

Geznaria'k. — Deianeire Andrea, zure kezkek aienatzen

(42) Azkenengoz Erakel'ek ekin zion bideari, amabost illabete lenago, ain zuzen ere ; ta amabi urte aurrerago iaso zun iainkoengandiko erantzun aipatua.

(43) Oltxo ortan idatzita zeukan Erakel'ek iainkoengandik Dodone'n iaso zun esana. Gurasoengandiko onibarren taxu zeatza aitaren edo emaztearen ordekoaren eskuetan oi zuten, bizi-alargun edo alargun ziraneko.

(44) *Dodone* Epiru'n eladetar iauretxerik zarren eta itzalgarriena kokatzen zan. Tzen'ri eskeñita zegon. Aritz zar baten abarrotsen bidez iainkoen esana entzun iduri zuten antxiñakoek ; noizik bein, aritz-adarretan kokatzen ziran usoen urrumak edo iturburuko-marmarioak edo aritzetik zintzilik zeuzkaten borontzezko ontziak atera-otsak artzen zituten iainko-esanen zantzu edo asmabidetzat. (Ikus *Dodona* « Encyclopaedia Britannica » VII, 494 g. or. *Justo Garate* « Cultura Biológica y arte de traducir », 161-182 g. or. Luze bezin zabal ari da.) Dodone'ko iauparimeak *uso* (peleiai) zeritzaten : iauparimeok Pelei'tar izenez euskeratu ditut, non-naiko izkeretan oi danez zahar-kutsu geiago emateko.

aurreneko geznaria nauzu (45) : bizitan eta gotorrik Alkmene'ren semea ibilli dabillega iakitun egon zaitez (46) ; ain zuzen ere, badator lurralde ontako iainkoei gudu-asikiñak ekarki.

Deianeire'k. — Zer berri diostazu, agure ?

Geznaria'k. — Zure senar agitz irrisatua zure etxera arin-bai-arin elduko dala eldu, garaile-ospe anditan agerturik.

Deianeire'k. — Diozuna, ordea, nork iakinerazi ote dizu ? Uritarren batek ala arrotzen batek ?

Geznaria'k. — Lika oiugillea askotsuei ialkitzen ari zitzaien, udako idi-alapidean. Nik, herriz, entzun-ala, antxintxiketari eman nion, zuri esaten aurrena izateko, zerbaitez burua atera ta zure ederra irabaztearren.

Deianeire'k. — Ta berbera zergatik alde egon, berri onik ba'lu ?

Geznaria'k. — Ez du era aundirik : inguratu egin du moltzoan (47) Melieu'ko (48) erri osoak galdez zirika, ta aurrera ezin ekin. Nork bere baitarik (49) iakin nairik berariz diardute, ta naiak egin (50) arte ez dute askatu nai. An dago egon, beraz, gogoaz bestera hura, ta besteak uren gaiñeko bitsetan ta aren gaiñeko sitsetan (51). Baiña, ikusterrean izateko (52) laster da emen (53).

Deianeire'k. — Ene Tzeu ! itaiz io gabeko Oite'ko (54) larretan bizi zerana ! Berandu arren, zure pozaroa badatorkigu, azkenik. Ots ozen atera, emakumeek, ots ozen atera etxe bar-

(45) Berri-ekarle datorrelako *geznari* deritza : Tarakin bertako erri-tarra duzu, antza.

(46) *Iakitun egon zaitez* : iakiñaren gaiñean egon zaitez.

(47) *Moltzoan* : saillean.

(48) *Meli* : Tesali aldean kokatzen zan eskualde au.

(49) *Bere baitarik* : oldez, bere gogoz.

(50) *Naiak egin* : asean eta betean, ots, asebate.

(51) *Uren gaiñeko bitsetan ta aren gaiñeko sitsetan* : erabat gogatsu.

(52) *Ikusterrean izan* (Ikus : 10'gn. oarrean).

(53) *Laster da emen* : laster etorriko da.

(54) *Oite*, Elade'ko mendi bat ; 7.080 oinbeteko gora du, Esperkei ta Kepisu ibarren tartean dago buru-zutik. Elade'ko elezarretan ageri danez, Erakel mendi artan bertan il omen zan.

nekoek eta etxez landakook, ez-ustean berri onaren eguzkia nere gain baitut atsegiñetan.

ABESLARI-TALDEAREN ERESI TA IRRAIDA

Abeslari-taldea'k. — *Etxe onen goratzarrez orpo-gorriok ots durundiz egin itzatzute eresi alaiak supizguan* (55), *eta gizonen ots beteño bikondea* (56) *elkar bezazkie, gezi-ontzi ederdun Apol* (57) *babesleari goretsiz. Zuek berebat, neskatxoak, taldean, paian* (58) *aizetara iaurti ezazute, Ortigi'tar Artemi* (59) *senidea,*

(55) *Supizguan* : sukaldean, sutondoan.

(56) *Bikonde* : bikote, binaka, bi batera.

(57) *Apol*, Tzeu ta Lete'ren semea omen zan Elade'ko elezarren arauz. Olinpu'ko iainkoen artean gora aundia zun. Il-berri ta il-zar egunak aren opaz ospatzen zituten. Omer'en izneurtuetan igarkizunen iainko, izurri-gille ta gudari bezela ageri da. Beste nonbait lugintzaren iainkotzat agertzen da. Arrezkero, ibar eta aranak aren babespean ziran. Zenbait zugatz ari eskeiñiak zituten, ereñotza baitik bat. Abelgorri ta giberrriak berebat aren babespean ziran. Gizakume gazteak oro gizon egin arte bitarteko zuten. Olinpiar-iolasaldietan aurreneko izan omen zan : Erme'ri arifieketan irabazi omen zion eta Are'ri ukabilka. Geroztik, gudu-iainko zenu. Ala ageri da Omer'en izneurtuetan, babeskin ta guzti.

Bestalde, Apol'en igarkizunak bete-bearrak omen ziran : berak bere kabuz ez omen zitun esaten, Tzeu'ren ordeko mintzalari bezela haizik : batez ere, Delpi'n ematen zitun igarkizunok. Datxikola, iainko sendarazle bezela zuten, eta Askelepi'ren aita omen. Eresien iainko ta Musen bide-aurreko ei zan. Arrezkero lira yotzaile ere bazan. Lira ta uztai ezartzen zizkioten eskuarki ta iru-zangoa ere eskeiñia zioten.

(58) *Paian* : iatorriz Apol'ek ondu gurenda-eresi bat omen zan eta Piton garaitu ondoren ondu omen zun. Arrezkero iainko egin zuten ta batzuetan Apol bera bezela ageri da, beste batzuetan bestelako norbait bezela. Gudariak burrukara zioaztenean lekaioka ta irrintzika abesten zuten, baita gurenda iritxi ondoren ere. Apol'en iaureskizunetan, oturuntzetan eta illeta agerietan ere eresi egiten zuten. *Paian* itza, beraz, lekaio, irrintzi edo oiñ adierazteko erabiltzen zuten.

(59) *Ortigi'ko Artemi* : Elade'ko mitologian iainko-emerik nagusienetarikoa da, Erroman'n Diana bezela, alegia. Tzeu ta Lete'ren alaba omen, eta Apol'aren arreba bizkia. Anaia baiño egun bat lenago iaio omen zan, eta antziñateak zionez, Ortigia'n iaio omen zan Artemi, ta Delo'n Apol. Ortigia'k itzez itz *galeper-zulo* adierazten du. Delo'ri ere egokitzen zaio Ortigia, ta bear bada, izaro orren izenkide besterik ez duzu. Besterik uste dute zenbaitek. Mutil eta neska garbien babesle omen, eta Aporodite'ren ahala ezesten zutenen aldezlea. Uztai, gezi ta eperbeltza zeramatzin lagun. Apol eguzkiakin bat egin zuten ezkerro, aren arreba Artemi Illargiarekin bat egin bear, noski.

orein-eiztari ta bi zuziduna, ta auzoko emaztegaia^k goraka. Pozarren iauzi egin dut, eta nere biotzaren iabe zeran txirula abeslaria ezin zaitut bertan bera utzi. Orra ! ujuju ujuju ! Untzaren lilluraz funtsak ioan^k ditut eta bakiar dantzaren (60) irrada zorabioak arturik nauka. Ijiji ! Ijiji ! Paian ! (61). Orra etxe^koandre laztana, dana ikusterrean duzu, egitan dirda^{tsu}.

BIGARREN GERTARIA

Deianeire'k. — Badakusat, andre laztanok ! Gizoste ori autematerik (62) nere begi ernaiak ez dute galtzen. Onik ba'da-karkiguzu, beintzat, naiz ta luzaroan agertzea berandutu dan, ongi-etorria bedi oiuegillea baitik bat. (*Oikali'ko* (63) atxillo taldearekin *Lika* sartzen da ; *saillean Iole* ageri da, *andikien alaba*).

Lika'k. — Ots ! onik etorriak gera, etxe^ko andrea ; ta onik itz egin diguzu, egiñaren irabazi arauz : on egiten dun gizonak ogasun onuragarriak irabaztea noraezeko (64) du, izan ere.

Deianeire'k. — Gizonik laztanen orrek ! Lenbizi galdetzen dizudanari erantzuidazu aurrenik, otoi. Erakel bizitan nere besoetara atotsiko al dut ? (65).

Likak'k. — Gotorrik (66) eta bizi-bizirik eta gara betean utzi dut nik beintzat, bizkor, osasuntsu, alekarik gabe (67).

(60) *Bakiar dantza*, Bak ardo-iainkoaren opaz egindako dantza : iainko ori omen zenun gizakumeen aurrerazle. Dantzok lekaioka, irrintzika ta zorabioak arturik egiten zituten.

(61) Ageri danez, Eresi au pozarren izkolaka abesten dute abeslari-taldeko neskatxek. Erakel badatorrela entzun duteneko pozaren pozez burutik eginda gelditzen dira. Aien gurpil ta artaziak ! Poz au laister atsekabe miñean aldatuko da. Alde ederra, benetan ! Lengo poza aundia izan bada, geroko negar-miñak ez dira izango ariñagoak.

(62) *Autematerik* : oartzetik, aztertzerik.

(63) *Oikali*, Euboi'ko eskualdea.

(64) *Noraezeko* : bearrezko.

(65) *Atotsiko* : adeiez artuko edo gizabidez artuko.

(66) *Gotorrik* : sendorik.

(67) *Alekarik* : akatsik, utsik, nokurik, etenik.

Deianeire'k. — Non ? aberrian ala atzerrian ? Esan !

Lika'k. — Euboi'n ba-da goragune bat... antxe dago lurretiko igaliz opari ta oparriak Kenai'ko Tzeu'ri eskeiñiz.

Deianeire'k. — Ziñitzaren (68) esku-erakutsi oroigarriz edo goitiko erantzunen batek ortaratuta ?

Lika'k. — Ziñitzez ; begien aurrean ikusten dituzun emakumeen lurraldea suntsituz (69) ta iabetuz ari zanean egin zun egin ere.

Deianeire'k. — Oiek, ordea, lainko-arren, norenak dira ? ta nortzu dira ? Errukigarri ditut, izan ere : beuren zoritxarrak ziria ezpadidate sartzen beintzat.

Lika'k. — Beretzat eta iainkoentzat aukerako ogasun-zurrian atzeman zitun, Euritu'ren uria (70) porrokatu zanean.

Deianeire'k. — Ezin zenbatu alako aleun (71) egunotan uri orri erasotzen egon ote zan emendik aldendurik ?

Lika'k. — Ez ; Lidi'n geldierazirik euki zuten aldirik geienentsuan ; ala dio berak, eta euki ere, bere buruaren iabe ez, uztarpeko zurrian baizik. Etxekoandrea, nere mingaiñak mardailkizunik (72) ez al dizu erakarri : guziaren egille Tzeu ageri da. Onpale (73) basatiari urtebete andian saldua egon omen zan, ala dio berak : ta bezkeri orrek agitz sumindu zun, ta ain zuzen ere, atsekabe orren egillea, emazte ta seme-alabakin uztarpeko egingo zitula bere aldiko ziñitzez bere burua lotu zun. Esan eta egin.

Garbi izan zaneko, erbesteko gudaroste bat bildu ta Euritu'ren uriaren aurka ioan doa, irain gorri aren errudun bakartzat baitzun ; alegia, aren etxera arrotz zar izaki etorri zanean, iñon ziranak esan zizkion, ta are biotz dongez, auxe eratxiki baitzion : « utsik egiten ez duten geziak eskuetan dituzu, izan ; ustai-norgeiagokan, ordea, atzean uzten zaitue nere semeak, eskuko gizon baten uztarpeko agertzen baitzera ! Beztua izango al zera ! »

(68) *Ziñitzaren* : botuaren.

(69) *Suntsituz* : porrokatuz.

(70) *Euritu'ren uria* : Oikali, arean.

(71) *Aleun* : zireun.

(72) *Mardailkizunik* : mardailbiderik.

(73) *Onpale* : Lidi'ko andragoia omen.

Ta bazkaritan ari zirala, ordi mozkorturik, etxetik alde iaurti omen zun. Guziotaz sumindurik, larrean moztu-ala belar iaten ari ziran zaldien billa Tirintu'ko (74) muiñora Ipitu eldu-ala, begiak alde batera ta adimena bestekaldera zorrotzurik zitularik, dorre iduriko arkaitz goitik bera amillerazi zun Etakel'ek.

Gertari au zala-ta, guzien olinpiar guraso Tzeu iaunak miñartu egin zun, eta bera salduta igorri zun, eta ez zion asketsi, illen ume arteko bakarra azpikeriz il zulako il; argi ta garbi iardoki ba'lio, esku ta bidez burutua asketsi zezakean Tzeu'k; iainkoak berak ere ezpaitute onartzen burgoikeririk. Golde-mutur (75) eta goi arro aiek oro Ade'ko bizilagun dira, noski, uria, berriz, uztarpeko: ta ikusten dituzun emakumeok, zorionetik bizibide deitoragarrira iota, zure aurrera etorri datoz. Aginduok zure senarrak emanak dira, nik, berriz, arekiko kirmen (76) naitzela, bete egiten ditut. Ta gurendarekiko opari garbiak Tzeu'ri eskeiñi-ala, bera andi-andirik (77) etorriko dala gogoan ar ezazu. Zure belarri-gozagarriena duzu, noski, ele luze, eder au (78).

Abeslari-talde-burua'k. — Andrea, pozbide argirik aski bazu duzu aurkez dituzunak dirala-ta, naiz entzun dituzunak dirala-ta.

Deianeire'k. — Gizonaren iardun zorionsuaren berri entzunik, ez al naiz zuzen eta bidez alaituko, ba? Noraezean, aren kide bear du nere pozak izan. (*Egontxoia egiten du*). Era berean, ikusiak ikusita, on egiten dunak izu-ikaraz begira bear du noizpait erori ez dedin; errukarriok erbestean, etxerik gabe, noragabe alderrai (79), len eskuko gurasoen alaba ziralarik, orain, berriz, uztarpekoen bizibideari loturik ikustean, iñolako erruki bizia sortuerazi didate, laztanak! Gaitzetatik iaregiten du-

(74) *Tirintu*: Argolide'ko uri zarra.

(75) *Golde-mutur*: mingain-zorrotz.

(76) *Kirmen*: zintzo.

(77) *Andi-andirik*: dena den, personalki.

(78) Aipatu gertariok gezur uts dituzu. Egitsariok burutu, bai, egin zitun Etakel'ek. Ez, ordea, iñoren errurik zigortu edo apendu narrik, Iole'renganako maite-miñez burutik eginda baizik. Euritu'k ezezko oiribilla emana zion, ots, Iole iñola ere ez ziola emaztetzat emango-ta.

(79) *Noragabe alderrai*: nora io iakin bage ara ta ona.

zun Tzeu orrek ! Egundaino ez al zaitut ikusiko onela nere seme-alabak ikertzen, eta egitekotan ere, nerau oraindik bizi naitzela ez dedilla izan. Emakumeok ala ikustean, berebiziko beldurra sartzen baitidate.

(*Ioleri begiak zorrotzurik, auze dio Deianeire'k*). — Ene errukigarri ori ! Nor zaitugu, neska ? gizonik gabea ala ama ote zaitugu ? soñari begiratu ezkerro, guzion atze (80) zera, noski, aitor-alaba, ordea. (*Iole'k ez du erantzuten.*)

Lika, norena ote da erbesteko au ? Nor ote du ama ? nor ote erne-erazi zun aita ? Esaidazu. Enparauak baiño errukiberrago iartzen bait-nau, bere egoera ulertzen bakarra bailitzan.

Lika'k. — Ortaz zer iakin dezaket nik ? Neri galdetzen al didazu ? Ango baten alaba duzu ta ez edonorena, agian.

Deianeire'k. — Erregena ez ote ? Seme-alabarik ba ote zun Euritu'k ?

Lika'k. — Eztakit : galdekizun luzerik ezpainun egin.

Deianeire'k. — Bidaideren (81) bati ez al diozu entzun beraren izena ?

Lika'k. — Inori ere ez. Ixillean egin dut nere arloa.

Deianeire'k. — Ots ! errukigarri orrek, (*Iole'ri*) esaidazu zeorrek. Nor zeran ez iakitea deitoragarri zait, benetan (82).

Lika'k. — Aoa irikiko ba'lu, lengo lepotik ez luke burua izango, noski, tautik ezpaitu esan, ez aundirik ez ñorik ere : beraren aizebegiko aberria utzi ezkerro, upa bete negar egiten (83) iardun du gaixoak, txurtenean iota (84), beraren baitan zoritxarraren zama aztuna beti leporaturik : zori beltza du orrek, baiña errukien duzu.

(80) *Atze* : hage, arrotz.

(81) *Bidaide* : bide-kide, bide-lagun.

(82) *Iole'ren ixillak Kasandre'ren ixilla burutara dakar, Eskil'en « Agamenon » antzerki aipatuan* : ura ere bakaldun-alaba izaki, atxiloturik bizi da, ta Agamenon'ek bere etxera daroa. Neska aren etxera zanekoxe, inolako ekaitza sorterazi zun ta ez zan atertu, odoletan murgildu arte.

(83) *Upa bete negar egiten* : negar ibaika.

(84) *Txurtenean iota* : zoritxar andiak iota.

Deianeire'k. — Bego, ba narerik, eta atsegiñenik gogo lukenez, etxerat sar bedi, ta oraingo gaitzak nora eztirala (85), niketz bederen, atsekabe berririk ez du iasango, oraingoa aski bait-du. Dagoneko, iauregiruntz ioan gaitezen guziok, zu, nai duzun aldera leiatu zaite, ni, ordea, etxebarnekoak bear diranez antolaturik iartzeko. (*Ioan doaz Liķa ta atxillotuaķ oro. Deianeire'k ateruntz io duncan, tarteko sartzen zaio geznaria*).

Geznaria'k. — Aurrenik, labur bederik, itxoizu, zerbait ikasteko baituzu : etxe barnera nortzu sartu dituzun eta oraindik eztakizkizunak entzun eta iakin bear dituzu, oriek gabe ; dago-kizun zerbait... eta guzion berri dut, iakiñaren gaiñean nago.

Deianeire'k. — Zer da, ordea ? Zer dala-ta ioatea eragoz-ten didazu ?

Geznaria'k. — Zaude ta entzun ! Lengoa ez zan alperrikako ipuia izan, eta ezago (86) oraingoa, nere gardiz (87).

Deianeire'k. — Zer ? Oriei guziori berrira eratortzeko ots egingo al diegu, ala, bioi biotara (88) soilik ialki nai al diguzu ?

Geznaria'k. — Zuretzako ta orientzako beaztoporik ez da ; bioaz aiek.

Deianeire'k. — Gaurgoitik ioanak dira, noski : esan ba, berria.

Geznaria'k. — Gizon orrek arestian esan dun ezertxo ere ez da zuzen eta bide : biotatik bat : orain gaizto bat da izan, ala, lenago gezurretan ari izan da.

Deianeire'k. — Zer diozu ? dakizun dana esaidazu argi ta garbi. Esan didazunari buruz, noski, ez-iakiñean bait-nago.

Geznaria'k. — Aleun lekukoren (89) aurrean gizon orri esaten auxe entzun diot entzun : Euritu ta Oikali dorre garaia neska orren kariaz atzeman zula ark. Maitasunak bakarrik lilluratu zula oriek gudukatzeke. Lidi'tarrekikorik eta Onpale'rekiko lanbi-deen otseingorik eta goitik berako Ipitu'ren eriorik eztago. Dana

(85) *Nora eztirala* : aintzat artu gabe.

(86) *Ezago* : gutxiago.

(87) *Nere gardiz* : nere aburuz, nere iritiz.

(88) *Bioi biotara* : Deianeire'ri ta abeslari-taldekoiei, alegia.

(89) *Lekuko* : iakile, testigu.

aldez beste ialki du orrek, maitasuna aldera utzirik. Ixillean oelagun zedin alaba emateko, aita, beraren esanetara ekartzerik ezin eskuratu ukan zulako, utsaren urrengo mardailkizuna aitze-kitzat artuta, neska orren aberria gudarostez eraso zun, eta bertan ango iauraulkien iaun omen zan Euritu — aren aita ta bakalduna — il egin zun eta erriburua erabat suntsitu. Orain, berri, dakuzunez, etxera etorri dator, no iauregira erakarki, oar-kabeen ez, ezta uztarpeko zurrian ere : ori ez zaio axola. Bai zera ! siñetsi, bost, andrea ! Eztago astoa loiean ! Eztirudi ! maitemiñez sutan erreta baitago ! Gizon orrengandik dana iakin dudanez zuri azaltzea bearturik nengolakoan esan dizut, andrea. Ta ni bezela, badira bazterretan amaika. Tarakin'eko ze ierdian entzun diotenak eta errez egiztatu daiteke. Eder egiten ezpaizazu ta atsegingarririk esaten ezpadizut, ez zait gogoko, noski, baiña egia esan dut nik, gero (90).

Deianeire'k. — Ene gaixoa ! (*Gogonduri ta artega*). Nolako errekiari ikusi dakusdan nere burua ! Estalgiz etxeratu zaidan ondikoa ! Ene errukigarria ! Izen gabea zala, beraz ? Ekarki zekarrenak ala-lainkoka esaten zun esan.

Geznaria'k. — Erabateko dirdaitsua da, izan, begien betegarri ta etorki zindokoa, noski. Izan ere, beiñolako Euritu bera du aita ; lola du izena. Iñola ere ez zun ark aipatzen aren iatorria. Ez baizik ere ! Bear ainbat aztarren ezpaitzun artu, arean.

Abeslari-talde-burua'k. — (*Biraoa*). Galduak bitez gaiztoak oro ! Ez-egitekoren bat aspikeriz bilbatzen diardutenak, beintzat.

Deianeire'k. — Zer egin bear ote dut, androk ? Oraintxe bertan entzundako itzak enuxu banuxu iarri naute.

Abeslari-talde-burua'k. — Ioan eta gizonari berari galde

(90) Egia dio geznariak eta zabal-zabal esan ere : bear bada, zakar, latz ta gordiñegi, nonbait. Erakel'en ederra galdu dula Deianeire'k argi ta garbi ikusten du. Aren biotzean sortu zan atsekabearen andia ! Medeie ta Deianeire ore bateko opillak dira, nonbait. Aldez beste iokatzan dute, ordea, iraizean aztertzen ha'dituzu beintzat. Bapesteko herri-rik ez du zabaltzen Deianeire'k : egia osorik ikastearren, bere buruaren iabe izaki, azenpetik zukua ilkitzen ari da.

egiozu ; indarrean galdetu nai ba'zenio, arin, argi eta garbi esango lizuke.

Deianeire'k. — Banoa, ba ; ez-bidean ez diozu, iñola ere.

Geznaria'k. — Guk, berriz, emen itxoingo al dugu ? ala, zer egin bear dugu ?

Deianeire'k. — Bai, bertan gelditu zaitzte, gizon ori bere baitarik eta nere deirik gabe etxetik baitator. (*Badator Liķa*).

Liķa'k. — Ioan al noa, andrea ? Zer esan bear diot Erakel'i ? Esaidazu, bideari lotzeko bait-nago, badakutsu.

Deianeire'k. — Astiro etorri bezin laster zoaz, gure berri-ketarik berriztu gabe.

Liķa'k. — Zure aurrean nauzu, zerbait galde egin nai balin ba'duzu, beintzat.

Deianeire'k. — Egia aitortuko al didazu kirmen ?

Liķa'k. — Iakin dakidan guzia, bego Tzeu andia lekuko.

Deianeire'k. — Onata ekarri diguzun emakume ori nor da ?

Liķa'k. — Euboi'tarra ; gurasoen esatekorik eztizut. (*Andragoia ta Liķa'ren tarteko iartzen da Geznaria*).

Geznaria'k. — Ots ! Begira nazazu : onelaxe. Nori itz egin diozula deritzazu ?

Liķa'k. — Zuk, berriz, zertako galde egin bear didazu ori ?

Geznaria'k. — Ezazu bekoki, nere galdekizunari erantzuteko, ulertzen baduzu beintzat.

Liķa'k. — Ametsetan egon ezpanago, Deianeire andreari, Oineu'ren alabari, Erakel'en emazteari ta nere andregoiari.

Geznaria'k. — Zuregandik erantzun berberau opa nun. Aotik atera didazu (91). Zure andregoa omen da, ezta ala ?

Liķa'k. — Zuzen eta bide.

Geznaria'k. — Zer, gero ? Berarenganako kirmen ez zerala egizatuko ba'genizu, nolako zigorra irabaziko zenuke ?

Liķa'k. — Ni ez naizela kirmen ? Zergatik ari zera masti-aitzurretan ? (92).

Geznaria'k. — Iñola ere ez. Zerau, bai, ortan ari zera.

(91) *Aotik atera didazu* : esatekoa asmatu didazu.

(92) *Masti-aitzurretan* : naasten, itxulasten.

Lika'k. — Ba-noa. Iñozo utsa izan naiz, ni, narratzar au, orren luzaro aditu dizudalako.

Geznaria'k. — Ez orixe ; galdekizun bateri erantzuiozu, ioan baiño len, labur bederen.

Lika'k. — Nai duzuna galde egidazu ; oilloaren ipurdia ian bide baituzu (93).

Geznaria'k. — Etxe barnera eroan duzun atxillo ori, badakizu, nik uste...

Lika'k. — Badakit : zeri dakio, ordea, galdekizun ori ?

Geznaria'k. — Orañ ez-ezagun bailitzan begiratzen duzun ori, Euritu'ren alaba lole dala ez al zenun esaten ba ?

Lika'k. — Nortzuei ? Nork eta non alakorik entzun didala aitortu lezaizuke ?

Geznaria'k. — Erritar aunitzei ; gizoste andiak entzun dizu Tarakin'eko zeierdian.

Lika'k. — Bai ; entzun zidatelakoa esan egingo zuten esan ; besterik da, ordea, iduritua esan eta zeatz-meatz ialkitzea.

Geznaria'k. — Nolako iduritua ? Erakel'en emaztea zeroala zin-egotziz ez al zenun esan ?

Lika'k. — Emaztea nik ? Iainkoarren, esaidazu, andre laz-tana, nor da arrotz au ?

Geznaria'k. — Iri osoa uztarperatu orren maite-miñarren egin zula entzun zizun ango bat ; Lidi'tar emakumeagaitik ez-paitzun suntsitu, neska orrenganako maitasuna agertuz baizik.

Lika'k. — Andre, alde egin beza utikan gizon onek ; arraiñari igerika erakusten iardutea da, noski, burutik egindakoari itz egitea ta orrelakorik ez dagokio gizon gurbillari (94).

Deianeire'k. — Ez, Oite'ko baso gurenean zuri begira tximistaka diardun Tzeu orrengatik, ez egidazu ostendu esana. Itzok emakume gaizto bateri ezpaitizkiozu esango ; gizonenak oro ezagunak ditut, eta beuren artan beti gotorrik atsegin ez oi dirala badakit. Maitasunari, ukabilkariak bezela eskuz-esku go-

(93) *Oilloaren ipurdia ian bide baituzu* ; itz iario hizi danari esaten zaio.

(94) *Arraiñari igerika erakusten* : iñozokeriak esaten edo egiten.

gor egiten diona, berriz, ez da gurbilla : onek bere oldez darabilzki, iainkoak berak ere, eta ni ere bai. Nerau bezela, zergatik ez besteak ? Lera zoro onek atzemanda nere gizona beztuko ba'nu, edo, berez lotsagarri ez, eta neretzako ere kaltegarri ez dan zerbaiten erkide dalako emakume orren aurka aserretuko ba'nintz, eroa nintzake, noski. Ez, ezin daiteke : eztago ama etxean (95).

Arengandik ikasita gezurra esaten ba'didazu, ordea, iakite ori ez zaizuke eder iñola ere ; zure burua, zure baitarik ortara iarri ba'duzu, berriz, on egin nairik diarduzu, noski, baiña gaizto agertzen zera agertu. Esan, ba, egia, argi ta garbi. Bere eskuko dan gizonak gezurti izena artzea, itxuskeri gorria du ukan. Ez uste izan, gaiñera, ezkutatu al izango duzunik, ainitzek entzun baitizkitzue ta iakile (96) daitezke. Beldurrez ba'zaude, ordea, ez da zuzen eta bide beldur ori ; lurrunik ez artzea nuke mingarrienik, noski ; iakiteak berriz, zer du arrigarririk ? Bestetariko ainitz ez al ditu emakumetzat artu Erakel'ek berak bakarrik ? Nere ezpaitatik itz bezgarririk bat ere ez du entzun orietako iñork oraindik, ez eta mardaibiderik ere. Onek ere ez du entzungo, naiz ta maitasunean urtu urtu eginda egon, eta begi-ezurra bezain maite ba'lu ere (97) : aurkez ikusirik, errukien dut agitz, beraren ederrak noraezean gal-erazi bait-du, ta bere aberriari, nai ezik, lur io eragin dio, ta uztarpeko egin du. Guzi ori ordea, bioa alde aizearen egaletan, ezpaitauka nere itzak orragiñoko aillarik (98). Zuri, ordea, auxe bakarrik esan nai dizut : « besterekiko izan zaite etoi, nereko, ordea, beti egiti » (99).

(95) *Eztago ama etxean* : ha zegok obarik !

(96) *Iakile* : lekuko, testigu.

(97) *Begi-ezurra bezain maite izan* : zoroki maitatu.

(98) *Ezpaitauka nere itzak orragiñoko aillarik* : ez da nere itza ain urruti iristen.

(99) Zain eta muin agertzen ditu Sopokol'ek Deianeire andrearen biotz izurrak. Ioranez ta tukuz irrikitzen zegoen Deianeire, ala ere, itz xuriz atosten du Lika, ta egiti izateko isituki eskatu ondoren, bekoz beko, aidorki galdetzen dio : kakomakuetan dabil asieran Lika ta tar-

Abeslari-talde-buruak. — Zindoki itz egiten dizunari zakio esaneko ta emakume onen aurka mardailkizunik ez duzu izango iñoiz, ta nere eskar onaren iabe izango zera.

Lika'k. — Ederki, ba, andre laztana : illen umea zeralarik, odol-gorriarenak ez, baña, illen umearenak gogoan erabilli dabilzkizula ikasi dut : dana esango dizut, beraz, ta egia ez dizut ostenduko. Onek ialki dun bezelaxe da dana. Neska onen ganako maite-min gori batek erabat iorik du Erakel ; bera dala-ta, Oikali aberri ondatuari aitzamakillez txil eragin dio. Au ere beraren alde esan bearra dizut : arean, ezkutatzekorik ez zidan esan, ezta ez zun egundaiño ukatu. Neronek, ordea, alako itzez zure biotza mindu-beldurrez, uts egin dut, okerra ba'deritzazu beintzat. Dana badakizun ezkerro, aren eta zure eskarraren arauz, emakume ori adeiez iasan ezazu, ta ortaz esan dizkiguzun itzak sendorik esanak ditezela opa izan ezazu (100). Neska orren maitasunak zernaitara garaitu egin du, beste guzietan bere eskuz garaille zan hura.

Deianeire'k. — Ain zuzen ere, orixe egitea auznarturik neukan. Lengoak nora eztirala, baitako gaitza ez dut sortu-eraziko iainkoekin burrukan. Goazen, ordea, iauregi barnera, aozko aginduak eramán, eta esku-erakutsien orde esku-erakutsiak an-

teko sartzen da geznaria zartez ; Lika'ri eskainka indar egiten dio gero, ta ber-bertan gezurretan atzematen du. Ezezkoan dirau Lida'k oraindik ere, ta Deianeire ateratzen da berriz, ta sorgor buru egiñik, Erakel'en itsuskeria ez-aintzat dula biribil aitortuz, Lika'ri egia erasaten dio : geznariak esan zionez, alegia, ta Lika'k berak alde-aurrez Tarakin'eko zei erdian ialki arauz.

(100) Erakel ordi, lizun eta mokor ageri da antzerki ontan ; ez du ederragotu nai Sopokel'ek : aren aldean, Iole errugabea onik ateratzen da. Aldez beste egiñik zeukan Eskil'ek « Agamenon » antzerkian Kander'i buruz. Ori dala-ta, bakun eta xalo azaltzen du Iole begi-betegarria. Ikusleak oro aren osasuna opa dute noski baiño noskiago. Nor dan iakiteke, Deianeire'k berak errukien du. Gero ere, naiz te bere senarraren oaidea dala iakin, adeiez atosten du. Lika'ri eman itza ez du iaten, iñola ere. Arrezkerro, bizirik gelditzen da Iole laztana, antzerkia amaitzerakoan.

tolatu ta eroan ditzazun (101). Orrenbeste gizostez etorri ezkeru, esku-utsik ioaterik ez da zuzen eta bide.

(Abeslari-taldea ez, beste guziak badoaz)

ABESLARI-TALDEAREN ERESIA

Abeslari-taldea'k. — *Aporodite* (102) burruketan beti garaille atera oi da bere ahal andiz ; iainkoenak aldera egin, eta *Tzeu'ri* berari sartu zion lakatz ederra eztut aipatuko, ezta *Ade* illuna ere, ezta lurra ikararazten dun *Poseidon* ere (103). Au, ordea, emaztegai zutenean, beraren eztaietara nortzuk io zuten leikide indartsu ? *Ukaldi* latzetara norgeiagoka gudukatuz nortzu atera ziran ? *Bata*, lau oñeko zezen adar-sarde iduriko ibai altsua ; *Oiniadarrengandiko Akeloo*, alegia ; bestea, *Bakjar Zebe'tik* zetorren *Tzeu'ren* semea, uztai, aitzaga eta makilla atzeruntz dardarazten mutilla. Ondartza erdian oldarkoi elkar io zuten berdiñean auzka, neska eraman naiez leiatsu ; erdian, erikide, auzia erabakitzeo epaille bakarra *Aporodite*, ezkongaietako biozpera.

(101) Iñakaz ari da *Deianeire* ta zaiaz iriña egin eziñik. Iole etxean onartu du, *Erakel'en* eskuerakutsi ederra benetan : orren orde, beste eskuerakutsi ederragoa bialduko dio *Deianeire'k* : soiñeko ilgarria, arean. *Orix*e berori egiten du *Medeie'k* *Euripide'ren* antzerki aipatuan : « oraingo gizakume artean ederrenetariko diran opariak igorriko baitizkiot... txirikon arin bat... aurren eskuz eramanki » (782)... « soiñeko arin bat. *Edergaillua* artu ta soiñean iantzi-ala, galgarri ilko da emazte gaztea ta ikutuko luken edonor » (728-8).

(102) *Deianeire'k* esandako itzen biurkeria ez dute aditu *Abeslari-taldeko* neskatek, antza : *Lika'k* esana zain-muinetan iosita dute, ots, *Erakel* maitasunak erasan du. Neska gazteak izaki, maitasunaren ahal aundia gorai patzen dute, ta baitik bat, *Deianeire* irabazi zun *Erakel'en* maite miña. *Aporodite* zuten maitarien Iainkoa, ango elezarretan ageri danez.

(103) *Poseidon* : ur, iturri, ibai eta itxasoaren Iainkoa da *Elade'ko* elezarretan, eta *Koronu'ren* seme, *Tzeu* ta *Ade* bezelatsu : lur zahalaren banaketan beroni egokitu zitzaion erabat uren nagusigoa : ur barnean *Aigai'ren* iauregian bizi omen zan edo *Elike'n Akai'ko* izpazterrean. *Iru-ortzekoa* ei zerabilen, eta zaldi bizkorrek gurdi ederrean zeramatzen.

Ango ukabilketa, ango uztai-durundia, ango zezen-adarren elkar-jo nastua ! elkar oldarka ari ziran burukan, ango behoki ukaldi gogorak biok albetan ! (104). Bitartean, neska sotil eta begi-ederra urrutiko muiño dirdaitsuan, bere senarra nor izango zai. Ama bezelaxe ari naiz ialkitzen. NesKaren begi irrikatuak errukiz zai zeuden ta berealakoan amagandik erauzi egin zuten, txal gaixo bakarra iduri.

(*Neska batekin Deianeire etorri dator*).

IRUGARREN GERTARIA

Deianeire'k. — Etxe barnean atxillotuekin izketan eta irteerako agurrak egiten nere arrotza ari dan bitartean, ixilpean atarira zuenganatu egin naiz, laztanok, nere eskuz bilbatu irazkia azaldu ta iasaten ditudanen errukierazteko.

Emen goitik ez da neskatxa, nik uste ; andre ezkondua baikik ; etxeratu beraz, ontziko zama iduri, nere buruari gaindi eragingo dion irabazi lorrindua egin dut. Orain, berriz, bi izanik, izara baten pean besarkadaka iraungo dugu. Kirmen eta on deritzan Erakel'ek, luzeren, luzeren luze, etxezai egonaren orde, onelakoak igortzen dizkit (105).

Egia esan, beraren aurka mokoz-moko ezin naiteke aserretu, gaitz orrek iota eri baitatza agitz. Neska orrekin, ordea, bizi-lagun, zein emakume egon liteke, ezkon beraren erkide ? Bataren gaztaroa gaingorago doala badakust ; bestearena, ordea, akiturik ; lilia gara betean atzematea nai oi du begiak, ezarian bes-teen oiñei aldera eragiñik. Arrezkero, onen beldur nauzu : ize-
nez Erakel nere senar izango da, berriaren gizon laztan dalarik, alegia. Baña, esana esan : emakume buruduna aserrez sumintzea ez eder. Beldur ortaz nere burua nondik nora iaregin deza-

(104) *Albetan* : arnas estuka.

(105) Ateman du Deianeire'k erabat bere etorkiaren gaiztoa, etxean Iole izaki, ta gordin gordin azaltzen du damurik.

ken bidea azalduko dizuet, alegia (106).

Badaukat borontzezko kutxatilla batean ostendurik, beiñola, aspaldiko mamu ark eman esku-erakutsia : Gaitzak akitua zeukan Nesu bular-illetsuarengandik eskuetara nun, oraindik ume-gorri nintzanean (107). Arraun bizkorrei eragiteke ta ontzi oialik erabilli gabe, Euen ibaiaren ioanaira sakonaren alderen alde illen umeak ain bestean igaro oi zitun besoetan (108). Ni, berebat, bizkarrean ninderaman, alegia, lenengoz Erakel'aren iarrai emazte zurrian ioan ninoianean, aitagorria ; bide erdian, ordea, esku lotsagabez zirri egin zidan ; garraxi egin nun nik, eta berealakoan Tzeu'ren semea itzulirik, gezi egalaria eskuz iaurti egiten dio ; bularrean barrena birietaraño sartu zitzaion txistuka. Illagiñean zetzalarik iiziak auxe esan zidan : « Oineu agurearen alaba ori ! Eroan dudan azkena zerau izan zeralako, zertakobait izango duzu nere igaropidea, nere esana egin ba'dezazu, beintzat. Neure zaurien baranoan odol mamitua eskuz iaso ba'dezazu, — gezia beazun beltzez zitaldu zun Lernai'ko (109) sugearen edena bertan baitago —, Erakel'aren gogoarekiko irazkaia dukezu, zure orde laztan izateko enakume batxori begiak ez ditzan zorrotzu.

Auxe gogoan dudala, laztanok, longain au uieldu egin dut, bizitan zalarik ark goraintzi zidan dana eratxirik, hura il-etzkeroko etxean bait-nun ederki ertsita. Egiñak egin. Bekokirik ez dut nik ez-egitekoren bat burutzeko ; iakin ere, orrelakorik eztakit, egundaiño ezpaitut ikasi. Alakoak eziten ditutenak ere, gorroto ditut. Erakel dala-ta, ordea, sorgin-lilluragarriz ta irazkaiz neska orri aurrea artzeko arloa bilbaturik dago : bidegabe ari naizela ezpa-deritzazue, beintzat ; bestela, bertan bera uzten dut utzi.

(106) Gaztaroko egunaro ederra eramaitu zaio onezkero, ta aren aserrea ler egiteko zorian ageri da : eioak egin orde, hestela-baitakoan here hurua seneratzen du. Itz-erdika, bada ere, ez-egitekoren bat egingo dula adierazten digu.

(107) *Nesu* : zaldi-gizon edo Kentaur baten izena.

(108) *Euen* : Aitoliko bakaldun, ortik, izen bereko ibaia.

(109) *Lernai* : Argolide'ko aintzira ta izen bereko ibai ta erria.

Abeslari-talde-burua'k. — Ikusiak ikusita, usterik nonbait ba'litz, oker erabaki duzunik ez deritzagu.

Deianeire'k. — Iduritu, ustez, ala dirudi ; iardunez, ordea, ez dut ar-emanik ukan.

Abeslari-talde-burua'k. — Egiña, iakin egin bear zenuke : atiñik egin gabe ordea, ala iduritu arren, eztaukazu ori txapelean.

Deianeirc'k. — Gero da biar. Or dakust ordea, hura iau-regitik atera ; laister da an. Auxe bakarrik eskatzen dizuet : ixillean ongi euki dezagun, arren bai arren. Itzalpean egitekotan, naiz ta lotsagarrienak izan, eztute lotsarazten.

Lika'k. — Zer egin bear dut ? Adierazi, Oineu'ren alaba orrek ! mando urdiñak iota baikabiltz aspaldion.

Deianeire'k. — Or barruan erbesteko oiekin izketan ari ziñan bitartean, orixe antolatzen iardun izan nauzu, Lika. Gizon ari nere eskuetatik onako soñeko iaukal auxe eramaiozu bezuza zurrian. Begia itxeki, ordea ; ark baiño len ez dula illen ume batek ere soñeratu bear. Zezen-opari egunean bere ospetan ikusgarri bera agertu baiño len, ez dezala io eguzkiaren argiak ezta iauretxe-barnekoak, ezta supizguko sugarrak ere. Itza itz. Iñoiz onik etxean ikusi-ala, edo beste nonbaiten alaxe zala entzun-baikoz. Iongain au zeatz eta meatz iantzi eragin bear niola ziñitzez aginduta bait-neukan, oi ez bezelako soñekotan, oi ez bezelako iaupari iainkoei agertzeko. Guzion aztarna ere eraman daramakezu : zildaiaren ustai cni dagokiola ark ikusi-ala, errez ezagutuko du. Zoaz, ba, ta aurrenik zure eginbidea iagon ezazu, ots, geznaria izaki, ez zaitez izan ainitz esnetako gaztaia. Gero, aren ta bion eskerrona elkartuta, zure sari batekoitza bikun agertu dedin zor nai lor egizu.

Lika'k. — Bai, orixe ; geznari zurrian, nere egingoa ez da ustel aterako, Erme'ren eginbide tinkoa bera nere dudan ezkerro. Egon dagonez kutxatilla au eroan eta eskuetararutuko diot eta esan dizkidazun itzen bermea eratzikiko diot.

Deianeire'k. — Aurrera, ba, ta etxeko arazoak zer nola dauden badakizu.

Lika'k. — Badakit, noski, eta dana onik dagola esango diot.

Deianeire'k. — Zein laztan abetaldu ta zein adeiez atosi dudan arrotza ikusi duzu-ta, iakitun zaude.

Lika'k. — Ain zuzen ere, ori dala-ta biotzak iauzi egin zidan pozarren.

Deianeire'k. — Zer besterik esan dezaiokezu? Gureganako ango maitemiñaren berri iakin baiño len, arenganako nere onginaia lasterregi azaltzea egoki ote daitekenez beldur bait-naiz.

(*Badoaz, iauregira Deianeire ta Euboi aldera Lika*)

ABESLARI-TALDEAREN ERESIA

Abeslari-taldea'k. — *Oite'ko* (110) *ditxo ta arkaitz arteko urberoaga ta muñoen urren, edota, Meli'ko kolko erdian eta urrezko gezidun Neskatxaren ondartza ondoan - bertan Eladetarren batzarra ospatzen baitute Piladitarrak-bizi zeratenok! Laister zuen artean ioko du txirula abots-ederrak, minduru-ots bakarnik ez, baña, liraren antzeko eresi iainkotiarra ateraziz, Tzeu ta Alkmeneren semea oldarrean baitator, nabarmen osoaren gudakiñak ditularik. Erritik alde baiķenun, itxaso zabaletan ara-onaka ta amabi illabete aunditan bera noiz elduko egon gera, ezer iakiteke. Eten gabeko negarrean egon da, berriz, beraren emazte laztana, biotz samiñaren samiñez beti galduta. Orain, berriz, iteuliaķ iotako *Are'k* egun nekatsutik onez atera du.. Etorri betor! Ez bezaiote geldierazi arraun askotako ontzia, uri ontaraño eldu arte, opariak esķeinka ari omen dan izaroko sutarria utzita. Andik maitasunez gaiñezka itzul bedi, erabateko igurtziz mamiturik, *Peizo* bidutziaren esanetara (111).*

LAUGARREN GERTARIA

Deianeire'k. — Arestian egin dudanean, urrunegi io ote dudanentz beldur naiz.

(110) *Oite* : Tesali'ko mendia, egun *Kumaita* deritza.

(111) *Peizo* bidutsi, Okean eta Teti'ren alaba.

Abeslari-talde-burua'k. — Zer darabiltzu, Deianeire, Oineu'ren alaba orrek ?

Deianeire'k. — Eztakit : on ustean egin dudan makurra-
ren errudun laster agertuko ote naizen beldurrak ezur utsaz
utzi nau.

Abeslari-talde-burua'k. — Erakel'i igorritako esku-eraku-
tsiak dirala-ta, ez ote ?

Deianeire'k. — Baikei : ta badaezpadako egikizunetan bu-
rua sartzeko gogorik ez nioke iñori egundaiño emango.

Abeslari-talde-burua'k. — Zer izutzen zaitun esaiguzu,
esankizun balitz beintzat.

Deianeire'k. — Andrak ! Ez-usteko berri au ialkiko ba'ni-
zue, arri ta zur egingo zinateke, alako aundia bait-da gerta-
tua. Longain iaukala bustitzeko arestian erabilli dudan ardi
illetsuaren motots txuria ezabatu egin da, etxeko ezerk ezez-
turik ez, baiña berez irentsita igatu egin da, buztin lur gogor-
rean auts biurturik. Dana zer-nola gertatu dan iakin dezazun,
areago luzatu egingo dut azalkizuna. Ezertxo ere ez nun atzen-
du, guziak ordea, bizirik neuzkan oroimenean, borontzeko txat-
alean iosiriko artitz atzindu-eziña iduri, ots, basapizti zaldi-gi-
zon ark saietsean gezi mutur-zorrotzak zipert ikusi-erazten zio-
nean emandako aginduak, alegia. Auxe agindu zidan eta be-
rauxe egin dut : zitala ari eratsi arte, sutatik bereiz, eguzki-
argi ta beroetatik alde exkutu gogorreanean euki... Ain zuzen
ere, orixe berorixe egin dut. Ara, ba : etxeko nere tegian, ixil-
lean egiteko garaia eldu-ala, gure artaldeko ardi baten larrua
artu, nere esku-erakutsia igurtzi, eta gero, toleztatu ta eguz-
kiaren argizpiak io gabe, zurezko kutxatillaren magalean iarri
dut, ikusi duzutenez. Gero sartu naizeneko, gizakume batek
ere ulertu ezin dezaken arrigarri azaldu-gaitza ikusi egin dut :
igurtzitarako erabilli nun artille-mototsa eguzkitara iaurti nun
ezustean, argi dirdaitara : berotu-ala, urtuz ta aienatuz ari zan
eta auts biurtu zan lurrean, olak moztean sortzen dan zerrau-
tsaren antz-antzekoa. Lurrera erorita, orrelaxe dago an ; erori
zan lurretik apar mamituek irakin dirakite, bakiar matsetik mar-
ruskatutako urin dirdaitsua lurrera erortzen danean bezelaxe.
Arrezkero ez dakit nora io betillun eta gogonduri. Nik egiña

izugarria dala badakust. Nondik nora ta zer dala-ta, illagiñean zetzan basapizti ark onginaia erakutsi bear zidan, ni nintzala-ta zetorkion erio orde ? Ez dago orrelakorik. Zauritu zuna bukatu bearrez ziri ederra sar zidan. Ta ni orduz ordu oraintxe iakiñean iarri, norarik eztagonean. Nere usteak ustel ezpada ateratzen, beintzat, nerau, zoritxarreko au, egokitu natzaio eraille. Zauritu zun gezi ark Keiron (112) bera elbarritu egin baitzun, naizta iainko izan, eta ikutzen ditun bizidunak oro il eragiten ditula badakit. Ta onen zauritik bildutako odol beltz zital onek, hura berebat ez al du ilko ? Nere ustez, beintzat, ala da. Auzi osoa erabakirik dut : hari gaitzen bat badatorkio, ukaldi berak iota, nereak ere egin du. Gaizto ez izan beste ezer baiño naiago dun emakumea ezin liteke bizi izan, bere izena gaitziritzirik.

Abeslari-talde-buruak. — Izan ere, alako ikaragarriak beldur izatekoak dira, izan. Zoriak erabakitako aldi aurrez, ordea, uste ona galtzerik ez da zuzen eta bide.

Deianeire'k. — Aolkuak eder ez daitezenean, ordea atsegin izpirik dakarken uste onik ezin diteke.

Abeslari-talde-buruak. — Bere olde gabe uts egin dutenen aurka, ordea, aserre arin izan bear ; alakoa dagokizu zuri.

Deianeire'k. — Bere baitan lorrik ez dunarena duzu alakoak esatea, ez, ordea, gaitzaren kide danarena.

Abeslari-talde-buruak. — Beste are itzik ixiltzea dagoki-kezu, zure semeari berari itz egiteko ezpada, beintzat ; or duzu aitaren galdez ioan zan bera. (*Itoxa larrian badator Ila*)

Ila'k. — Ene ama ! Au korapilloa ! Irutatik bat aukera nai izango nuke : bizitan zu ez izatea, edo bizitan zeralarik, beste norbaiten ama izendatu al izatea, edo, orain daukazun biotz ori obe bearrez nolarebait bestelakotu al izatea !

Deianeire'k. — Nitaz zer duzu, enetxo, orren gorroto izateko ?

Ila'k. — Zure senarra, beingoan iakin ezazu, nere aita alegia, egun bertantxe il egin duzu.

(112) *Keiron* : Tesali'ko zaldi-gizon edo kentaura, Askelepi ta Aikil'eri sendakuntza irakatsi ziena.

Deianeire'k. — Ene bada ! Zer berri dakarkidazu, enetxo ?

Ila'k. — Ez burutu izana ezinkizun da. Ageri dana ez gertaraztea nork egingo luke ?

Deianeire'k. — Zer diozu, enetxo ? Norengandik ikasia duzu, arlo beltz ori nik egin dudala esateko ?

Ila'k. — Nere begiz ikusi dizut aitaren zoritxar aztuna ta iñoren aotik entzun bearrik ez dut izan.

Deianeire'k. — Nontsu urbildu ta arkitu al duzu ?

Ila'k. — Dana ialkiko dizut, zuk ere iakin bear ba'duzu. Etorri zetorren garaipenaren oroitarri eta asikiñak ekarki, Euri-tu'ren uri ospatsua illaundu egin ondoren. An, Euboi'n, badago lur-mutur bat itsasoak baranoan ureztatua, Kenai morkaitza (113), alegia ; bertan ari zan Tzeu arbasoari opamaiak ta baso orritsua mugarrizten eta bertantxe aurrenik arkitu al izan nun pozarren izkolaka (114). Opagai kopuru andia lepo egiteko zanean, etxetik zure geznaria andi-andirik eldu zitzaion, etxeko Lika, arean, zure esku-erakutsia eramane, ots, longain ilgarria. Zuk eska zenionez, iantzi egin zun, eta amabi zezen beiñenak lepo egin zitun, bere gudakiñen asikin zurrian : guzitara, mueta guzietariko eun abelgorri naas maas opamaira eramane zitun. Ta asieran gaixoa, gogaroz ari zan opariak eskeintzen, iantzi ximenez illaraindurik. Opari gureneko gar odoltsua ler-egurrean irazeki zanean, soinetik izerdi iario asi ta saietsei alderen alde erabat itsatsi ta estutu egin zitzaion txirikon (115) osoa, irudigiñaren eskuz bezela, soingiltzen arauz (116) ; gero, ezur-atsiki dardara etorri zitzaion eta eden ark zitaltzen asi zun, suge gorri erioгарria bailitzan. Lika gaixoari buruzki deadarka asi zan, soineko ura ekarri ziolako maltzurkeria iaukiz, hura, ordea, zure makurraren errudun ez izaki. Gaixo onek, ordea, ezer iakiteke, zure esku-erakutsia besterik ez zala zuk bidali arakoa. Ark entzun baikoz ta erraietan erabateko dardara erdi-

(113) *Morkaitz* : arkaitz garai bat.

(114) *Izkolaka* : oinaka, lekaioka.

(115) *Txirikon* : lobe, tunika.

(116) *Soingiltz* : soin atalak elkartzen diran une igikorrak.

ragarriak oldartu-ala, oiñetik, orkatilla-txokotik ain zuzen ere, hari oratu, ta itsasoz inguratuta dagon arkaitz batetik buruzbera malkor erazi egiten du; adats artetik burmuiñak zuri zapart egin zitzazkion, txiki-txiki eginda burezurra, odoletan bleiblei.

Bata sumiñez ta bestea ilda ikustean, negar-marraskaz izuaren izuz garraxi egin zun erri osoak. Eta gizonaren aurrera ioateko bekokirik iñork ez zun. Iraulka auzpez zerraldo erori ta atzera aozgora iauzi egiten zun, oiuka, mingulinka. Baranoan arkaitzak eta Lokiri'ko tontor andiak (117) eta Euboi'ko lur-adarrak burrunba ateratzen zuten. Askotan bere burua auzpez iraulita, askotan auenez (118) deadar eginda gero, uko egin zunean (119), zoritxarreko zurekin izandako ezkontza galgarria eta Oineu'ri erosi zizkion ezteiak, — bere buruaren ausiabartza —, itzez itz zapuzturik, arean, begi ezkibelak iaso ta alboan zeuzkan ke-mordo gaindi gizoste artean negar-dario ikusi niñun eta begiak zorrotzurik dei egin zidan : « Enetxo, el zakit, ez ezazu igesik egin nere zoritxarrean, iltzen naizen onekin zuk berebat il bearrekotan ere. laso ta atera nazazu eta illen ume batek ere ikusi ez nakusken aldera, errukirik badidazu, lurralde ontatik len-bai-len irago nazazu, bertan il ez nadin. » Alako goraintziak egin ondoren, txalupa erdian ezarrita, engaraz bada ere, emengo lurraldeak artu ditugu soin dardaretan deadarka; ta bertantxe, edo bizitan edo il-berri dakuskezue. Alakoak, ama, nere aitaren aurka asmatzen eta egiten atzemanan zeran ezkeror, Zuzenbide apentzalleak eta Erini'k (120) ordaindu eragingo al dizue : aizu ba'nintz, arren eta arren dagiet ! eta aizu naiz, izan, aizua aurretik irautzi baituzu : lurgaiñeko gizonik bikaiñena eran

(117) *Lokiri'ko tontor andiak* : Melieu'ko itsasadarraren ondoko mendi-besanga.

(118) *Auenez* : ezpaz, aienez.

(119) *Uko egin* : abaildu, akitu.

(120) *Erini*, iainko apentzallea : noizpeinka bakarra zan, noizpeinka zenbait ageri dira; illen apena artzea beuren gaiñ oi zuten : iainkoengandiko apenak burutzera igorritako gizakumeak ere adierazten zuten izen orren bidez. Arrezkero, izurri apentzalea ere esan nai zun izen orrek.

baituzu ta beste alakorik egundaino eztuzu ikusiko (121).

(Deianeire'k ixillan alde egiten du.)

Abeslari-talde-burua'k. — Zergatik ixillik alde egiten duzu ? Ixilduz salatariakin bat jotzen duzula ez al dakizu (122) ?

Ila'k. — Alde-egiten utzizute ! Bestela-baitakoan ioan dana, berama nere begietatik urrun bere biziko aizeak. Iarduncan ama bezela ari ez danari, zer dala-ta alperrik erabilli bear amaren izen zabal eta ia ukala ? Ots ! Ioan bioa ! Agur ! lasoko al du orrek nere aitari eman dion atsegin bera !

ABESLARI-TALDEAREN ERESIA

Abeslari-taldea'k. — *Ora neskatxoak ! Iainkoen antxiñako igarkizuna beingoan bete zaigu. Irabio-ilabeteen kopurua amabi golde-urtetaraño eldukoxe, Tzeu'ren semeari lanbideen baia burutzea egokitu zitzaioala aldarrika baitzion : oriek, berriz, berebiziko aizeak gotor etengabe iota onik ioan doaz. Ikusi ez dakusanak (illak) ilda gero, ordea, nola oraindik ere iraun lezake lanen morroitzapean ? Balbeak sortarazi-ta suge gorri nabarrak azitako edena ixuriz, zaldi-gizonaren (123) alabear maltzurak erio itzalez saietsa io ba'dio, egungoa baiño beste eguzkirik nola ikusi lezake, sugearen iduri arrigarrenak urtuta ta Nesu adats-*

(121) Aitari gertatu zaion zoritxarraren errua Deianeire'ri egozten dio Ila'k argi ta garbi. Ala egiten du asieran eta azkenean, edozertariko zigorrak ari opa izanik.

(122) Semea aserre dala-ta, senarra laster datorrela Deianeire'k ikasi dunekoxe, ixil-ixillik alde egiten du. Ixillaldi orrek gaitz aundiren bat ekarriko du, abeslari-taldekoek nolarebait adierazten dutenez. « Oidipu Bakaldun » antzerkian ere, onelaxe alde egiten du Iokaste'k bere burua illeko. « Antigone »n ere Aimon'ek eta Euridike'k onelaxe alde egitea dute, txintik esateke, alegia.

Antzerki ontan berealakoan oartu dira abeslari taldekoek eta guzien izenean buruak auxe esaten dio : « Zergatik ixillik alde egiten duzu ? Ixilduz salatariakin bat jotzen duzula ez al dakizu ? » Arrezkero, semeak egotzi dion aitaren erioa nolarebait aitortzen du Deianeire'k. Ala dirudi, beintzat. Alderantziz onek hota dizkigun epelak !

(123) *Zaldi-gizon* : kentaur.

beltzaren itz malzurrez atondutako ezten erioagarriak balera sugarretan tirabira baitabil? Oldarrean amil-erazten ziran ezkontza berrien galgarri andi ta eragiña etxean ikustean, alakorik ez zitzaion burutara etorri gaixoari, ta arrotz baten aolkuz onezkoak egiteko iarduki ertungarrietatik datozkion dordoak zotinka adiakatzen ditu, noski, negar malxo ugari ixuri-bertien uroldea iarrio. Zoritxar andi ta maltzurra aldearez agertzen du datorren Balbeak.

Negar malxoen iturria lerturik da : eria barreiatuz doa, ene bada ! Etsaiengandik txurtenean io zun gizona oi ez bezelako dordoa baiño are errukigarriagoa ! Ene ! Aurren-lerroko aitzamakillaren iskillo beltza ! Oikali gorengotik neska zailu au beiñola erakarri zun aitzamakillaren buruak ! Guzion egille ta eragille Kipritar (124) argi ta ixilla ageri da.

BOSKARREN GERTARIA

Abeslari - lenengo talde - erdiak. — Etxean barna arestian oldartu dan zinkurin baten otsa entzuten al dut ? Ala okerrean ote nago ? Zer diot ?

Abeslari bigarren talde-erdiak. — Zerbait illunik ez, baña zinkurin argi ta garbia barnean, eta etxean oi ez bezelako zerbait dugu.

Abeslari-talde-burua'k. — Begira ! bekain zimur eta bekozko illun datorkigu atso ori, oi ez bezela, zerbait adierazteko, alegia.

Iñudea'k. — Erakel'i igorritako bezuzak erakarri dizkigun gaitzen lor andia, enetxo ok !

Abeslari-talde-burua'k. — Zer gerta-berri diozu, atsoa ?

Iñudea'k. — Oiñik erabilli gabe ioana da Deianeire bide guzien azkena barna.

Abeslari-talde-burua'k. — Illa ez ote ?

Iñudea'k. — Dana, entzuna duzu, noski.

Abeslari-talde-burua'k. — Illa ote da gaixoa ?

(124) *Kipiri'tar* : Aporodite, alegia, maitasuna.

Iñudea'k. — Bigarrenez badantzuzu.

Abeslari-taldea'k. — *Zoritxarreko gaizoa! nolatan, baña bera il zala diozu?*

Iñudea'k. — *Izan ere, alik eta ertungarrienik.*

Abeslari-taldea'k. — *Zein alabearrez oldartu zan, andre? esan.*

Iñudea'k. — *Berak, bere burua alderen alde sakaildu du.*

Abeslari-taldea'k. — *Zein gogok edo zein gaitzek eragin dio iskillo makurraren muturrari bera iltzeko? Zer-nola Eriogri erio asmatu al dio berak bakarrik buruturik?*

Iñudea'k. — *Aiotzaren ebakj galgarriz.*

Abeslari-taldea'k. — *Oldarkeri ori zorrak ikusia al duzu, gaixo orrek?*

Iñudea'k. — *Bai, neronek ikusi nun, beraren alboan bait-nengoan.*

Abeslari-taldea'k. — *Zer zan? Nola? Ots, esan.*

Iñudea'k. — *Berak bere eskuz burutu du dana.*

Abeslari-taldea'k. — *Zer diozu?*

Iñudea'k. — *Egi utsa, argi ta garbi.*

Abeslari-taldea'k. — *Neska etorri-berria erdi bi eginda, Eri-ni eskergaz etxeotan, erdi egin da.*

Iñudea'k. — *Aski da, noski. Alboan eta aurkez egonik, egin zuna ikusi izan ba'zenu, areago errukituko ziñake.*

Abeslari-talde-burua'k. — *Ta esku eme ezein batek alakorik egitea iasan al zezakean?*

Iñudea'k. — *Ta arrigarrero, ain zuzen ere. Entzun-ala, nere esanetara etorriko zera. Etxera bakarrik sartu, eta aitaren billa atzera irtetzeko tegietan oe barnea zabaltzen semea ikusi zune-koxe, bere burua inork ezin ikusi zezaken aldean eskutatu ta zinkurinka opamai aurrean auzpeztu egin zan : gaixoak len erabili zitun lanabasetatik ikutzen zuna zala-ta, negarrez ari zan; etxean barna ara ioan eta ona etorri, ta otsein laztanen bat ikusi-ala negarrari ematen zion gaixoak, bere buruaren zoritxarra ta aurrerantzean seme-gabe izango zala aldarrikatuz. Oiek eten zitunean, abazuzaka Erakel'aren oera oldartu zala ikusten du. eta ni zai nengoen, begiak itzalpean ezkutaturik. Erakel'en oean izarak eta estalkiak zabaltzen badakust. Ori burutu-ala, igo ta*

ezkon-oe erdian eseri ta negar malko beroak zurrustan zerizkiola, auxe esan zun : « Ene ezkon-oe ta tegia ! aurrerantzerako agur ! ezpainauzute oetan emazte zurrian atotsiko ! » Alakoak oiuztatuz, esku gogorrez ugatz gaineko urrezko lokamutik longaina askatu arin, eta saiets osoa ta ezkerreko besaburua erantzitzi egin zun. Nik, berriz, alik eta bizkorrenik ioan, eta egiten ari zana semeari ialkitzen diot. Banoa, berriz oniz ta berriz araitzuli gera ; saietsetik gibel zear biotz barneraño aopizar biko aiotzez alderen-alde sakailduta ikusi dakusgu. Semeak ikusi ta minduruka ekin zun : ez-egiteko ori burutzea bere aserre zuzienez ortaratu zula ezagutu baitzun gaixoak ; alakoak basapiztiak eraginda egin zitula etxekoren bati entzunda ikasi baitzun, berandu ba'zan ere. An zegon seme gaixoa minduruka, a'en baranoan alaka, ao-musuka laztanduz eten gabe : amaren alboan etzanda zegon, esku ta bide gabe salakizun beltza egotzi ziolazkoa amaikatxo bidar zinkurinka. Biziaren barrena, biok bage, aita-ama bage, alegia, umezurtz iraun bear izango zula-ta negarrez. Orkoak ala dira. Bi edo are egunetarako ere, norbait asmatzen ari izan ba'ledi, kaiku andi bat litzake : egungo eguna onik iasan baio len ez bait-da biaramona. (*Badoa Iñudea*)

ABESLARI-TALDEAREN ERESIA

Abeslari-taldea'k. — *Zeri zaizkio nere auenak aurrenik ? Zein ote dordo nagusia ? Ene bada ! Eztakit nik gaixo onek. Batzu etxean ikusterrean ditugu : bestetzu itxaroz ditugu : dauzlagunak eta izatekoak berdiñak ditugu.*

Sendorik io beza ipar-sartzaldeko aize onak aldeotatik atera nazan, Tzeu'ren seme gotorra ikusita bakarrik izu-ikaraz lazturirik ez nadin lotu. Itzuri-eziñeko atsebaketan etxeruntz datorrela baidiote. Ikuskizun lazgarria ! Urren zegon eta ez urrun, urretxindor zoliak lez, deitoratuz ari nintzana !

Badatoz erbestekoak. Nola ote dakarte ? Adiskide baten gana arduraz bezala, astiro ta zaratarik bage datoz. Ene ! Ene ! Txintik atera bage ekarri dakarte. Zer iritzi bear ? illik ala lotan ote ?

*(Ila sartzen da beste lagun batzukin zerraldoi
(125) bat ekarki.)*

(125) Zerraldoi : esku-oetxo.

IRTEERA

Ila'k. — Ene bada ! Zugatik, aita, ene ! Ene bada ! Lengoa berrituz, ene bada ! Zugatik ene ! Zer iasaten dut ? Zer egingo ote dut ? ene bada !

Agurea'k. — Zaude ixillik, enetxo, aitaren biotz beltzaren atsekabe gorriari ez eragiteko : bizitan bait-da, lur-iota, ordea : zure aolari, aginka egiñez, eutsiozu.

Ila'k. — Zer diozu, agure ? Bizitan ote ?

Agurea'k. — Ez ezazu iratzarri, erabat loak arturik datza : ioan-etorrika dabilkion zoroaldi miña ez ezaiozu lokatu ta gorbiztu, enetxo !

Ila'k. — Nere buruaren gain, ordea, itxasoa besteko dordo miñak io nau, ta odolak burua artu dit.

Erakel'ek. — Ene Tzeu ! nongo lurraldetara etorri ote naiz ? Etengabecko miñok iota zein gizakume artean al natza ? Ene ! ene ! Ni, bai, errukigarria ! Berriz ere kutsuak atsiki nau. Ondikotz !

Agurea'k. — Asmoak ixillean iraun-erazi ta bekaiñen mendeko loa ez urratzearen onturrea badañizu.

Ila'k. — Mañur au ikusita, zer nola burutu ezin ahal baitut.

Erakel'ek. — Oi ! Opamaien Kenai'ko (126) orubea ! Oi Tzeu, opari iorien aldera ene errukagarri oni erakarri diozun bestelako eskerra ! Zipert ikusi eragiñik txurtenean iota nauzu ! Erokeriaren gara-bete eztitu-ezin au goitik bera so ez-egiteko, egundaiño ez al zindudan begiz ioko ! Tzeu ez beste nor ote gaitz au itzuri daiteken zorarazle edo sendabidetan ikasia ? Aspaldidanik gelgarrizat begiak zoroztuko bainizkion ! Ene ! Ondikotz ! neu zorigaiztoko au, utzi nazazute loak artzen ! Zergatik ukitzen nauzu ? Non eratzen nauzu ? Ilko nauzu il ! Sogortua gorbizten ari zakit ! Atzeman nau dagoneko, ondikotz ! ezarian txirritatzen zait berriz ! Nongoak zerate eladetar mañurrenok, izan ere ? Txara guziok garbitzen gorriak ikusita, nereak egin du gaixo onek itsasoak barna ; orain, berriz, eri oni sua edo aiotz

(126) Kenai : Euboi'ko tontorra.

onuragarria eskuetaratuko dionik ez da. Ene ! Ondikotz ! Etorri ta karats oni burua indarrean erauzterik iñork ez al du nai ? Ene bada ! ene !

Agurea'k. — Nere kemenaren neurritz gairidikoa duzu egiteko au, gizon onen semea ! Zu ! eldu ezaiozu. Ni baiño bizkorrago zaude, noski, au begiratzeko.

Ila'k. — Neuk andi-andirik oratu diot, noski ; dordo-azkaririk edo aztugaririk ez du ez ene baitan ez eta alde ere, onen bizia miñetatik begiratzeko. Tzeu'k banatzen ditu alakoak.

Erakel'ek. — Enetxo, non zaitut ? lasotzerakoan, emendik, alde ontatik eldu nazazu. Ene ! ene bada ! Ondikotz ! Au zoritxarra ! Berriz ere eraso nau, eri basati mendera-ezin orrek damurik eraso nau, gu suntsiturik. Ene, Pala (127), berriz ere, gorri narabil onek ! Enetxo ! aitaren errukiz, aiotza atera iñoren mardailkizunen beldurrik gabe, ta io nazazu lepo-uztai pean : zure ama lainko-karatsuak suminerazi naun dordo ontatik iaregin nazazu. Abarrakitu naunez onelaxe lur iota ikusiko al dut ! Tzeu'ren senide Ade ezti ori ! Loak arteraziko al nau errukigarri au, erio egariñak iota.

Abeslari-talde-burua'k. — Ertunok entzunda lazturik nago, laztanok ! onelako iauna izaki onelakoetan gorria ikusten baitago. Erakel'ek. — Itzez, eskuz ta lepoz nik iasan ditudan ertun gorriak amaikatxo dira : ezta Tzeu'ren emazteak, ezta Euristeu (128) arerioak ere ez zidaten ainbestekorik egotzi, Oineu'ren alaba begi maltzurak nere bizkarretara eratxiki didan Erini'k eiotako soinpekoak beste : onek iltzen nau. Saietsei itsatsita erroetaraño nere aragiak mauka mauka irentsi ditu, eta alboko biri-zaiñak zurrupatzen ari da : dagoneko nere odol gaztea edana du, ta soin osoa ondaturik, eta billur ulertu eziñez uzkaldua dut.

Garbituz eldun nintzan lurralde orotan olakorik egundaiño ez zuten egin, ezta guduko aitzamakillak, ezta erraldoien guda-loste lurtarrak, ezta iize-indarrak, ezta Elade'k, ezta erbestekoek ere. Emea izaki, ez gizaki, emakume batek, ordea, marrauzik

(127) Pala : Azene'ren izengoitia.

(128) Euristeu, Mikenai'ko bakaldun.

gabe, berak bakarrik il egin nau. Ene seme, nere belauneko seme ziña bilakaturik, ez ezaiozu areago amaren izenari lotsarik izan. Etxetik zure eskuetara artu ta zure eskuz idazu, arenak baiña areago nere onek atsekabetzen zaitunez argi ta garbi ikusi dezadantzat, eskuz ta bidez aren irudia lorrindu ta mazkaldurik ikuski. Ots ! Zatoz, enetxo ! azartu zaite ! Askotzei errukigarri naizan au errukien ezazu ; neskatz bat bezelatsu bait-nago negarrez oi-u-txirriti urtika ; ta alde-aurrez gizon au onela bein ere ikusi zunik iñortxok ere ez dezake esan : mindururik gabe, ordea, beti nere gaitzei txil egiten nien. Orain, berriz, ortaraturik nauka zoritzarreko eme orrek. Zatozea aitaren albora ta zaude : ta nolako zoritxarpean gorriak ikusten ditudan auteman ezazu : estalkiok kenduta erakutsiko dizkitzut. Orra ! soin gaixo au so egizazute, zein errukarri nagon zoritxarreko au ikusi zazute. Ene, ene bada ! zoritxarreko au, ene ! ene bada ! zoraldiaren dardara onek, arestian ezkerro berriz io nau, ta sabelaren alderen alde igaro ta atsekaberik dastatu gabe ez nau uzten, antza, ta eri ertun onek mauka mauka ian egiten nau. Atotsi nazazu Ade'ko iaun orrek ! Tzeu'ren iñusturi orrek io ezak ! Erautsi iauna, iaurti, aita, iñusturi-tximistak ! oldarrean atxiki bait nau berriz, indar betean dago, kinkarik gorrienera eldu da. Ene eskuok, eskuok ! Ene sabelok eta galtzarrok ! ene beso laztanok ! Zuek al zerate beinola Nemei'ko lurraldetan bizi zan leoi — itzaien zigorra — basati, izugarri, beldurgarria birrindu zenutenok ? Lernai'ko sugea ta pizti-saldo bi iduritako zaldi izu. ezigabe oldarkoiak, nabarmenki indartsuak, eta Erimanzi piztia, Ade lurpeko txakur iruburudun abere garai-eziña, Ekigne arrigarriaren kumea, ta cren-sugea eskualdetako urrezko sagarren zaia ? (129). Beste aleun dordo txastatu ditut, eta nere eskueri buruz garailerik ez zan arkitu. Orain baiña, izarretako iaun dan Tzeu'ren seme aipatu au, ta amarik on-onenaren seme ospatsu au ezurak lokaturik, zarpilduta, akiturik illagiñean natza. Ots ! ongi iakin ezazue !

(129) Erakel'ek amahi lanbide buruturik zeuzkan : Nemei'ko leoi basatia birrindu, Lernai'ko sugea kali. Ade lurpeko-txakur iruburuduna menderatu, Erimanzi piztia garbitu, erensugea, azken eskualdetako urrezko sagarren zaia, alegia, bukatu, oiek dituzu garaienak.

utsaren urrena naizan arren, eta ibilli-eziñik ibilli arren, egon nagonez, guzion egillea txiki-txiki egingo dut gero. Etorri dedilla soillik, bizitan bezela illagiñean ere, gaiztoak apendu egin nitula ikasi dezan guzoi aldarrikatzen.

Abeslari-talde-burua'k. — Ene Elade deitoragarria ! Gizon au galdu ba'dezazu, minduru egongo zerala badakust.

Ila'k. — Erantzutea uzten baitidazu, aita, ixillari zaudela, entzuidazu berebat miñon artean, esku ta bide dana eskatuko baitizut : gogoz sumindu gabe, zauri-miñari eutsiozu ta zaite nere esaneko : bestela, alperrik samindurik zaudela ta gogoan darabilzkizun asmoak utsak dirala ezin ezagutuko zenuke.

Eraquel'ek. — Nai duzuna esanda, isil zaite ; aspaldidanik darabilzkizun kako-makoak ezpaititut ulertzen nik oien artean.

Ila'k. — Nere ama oraingoan zer nola dagon eta bere olde gabe uts egin zula esatera natorkizu.

Eraquel'ek. — Gizatxar alarena, ez bestea ! Ama aita-erraillea berriz aipatu al duzu, nik entzun dezadan ?

Ila'k. — Dagon ez egonda, ezpaitagokit ixiltzea.

Eraquel'ek. — Iñola ere ez, len egin ditun makurrak, noski.

Ila'k. — Ezta egungo egunekoetan ere, zerorrek berebat esan dukezunez.

Eraquel'ek. — Esan, ba ; begira. zure burua gizatxar ez dezazun agertu !

Ila'k. — Esan badasaizut : lepo egiñik orain orain illa da

Eraquel'ek. — Noren eskuz ? Ertun bidez arrigarria iragarri didazu, noski.

Ila'k. — Berak bere burua; eta ez beste erbesteko iñork.

Eraquel'ek. — Ondikotz ! Nere eskuz, bear zunez, illa izan baiño len !

Ila'k. — Dana iakingo ba'zenu, zure gogo ori bestera egingo zenuke noski.

Eraquel'ek. — Oi ez bezelako itzez asi zera : oldozten duzuna esazu.

Ila'k. — Itz batean esan ; on ustez itsusiturik uts-egin du.

Eraquel'ek. — Gizatxar uxea, ez bestea ! Zure aita il egitea ona ote ?

Ila'k. — Barneko emazteak ikusi zituneko, laztan irazkaia

ezartzen zizulakoan, bidea galdu egin zun.

Eraquel'ek. — Nor izan da Tarakin'dar artean alako zital-
aztia ?

Ila'k. — Zure maitasuna irazekiko zula alako irazkai bidez
aspaldiko Nesu zaldi-gizonak zuritu zun, erabat.

Eraquel'ek. — Ene, ene zoritxarrekoa ! Banoa, gaixoa ! Ne-
reak egin du ! Argirik ez dut gaurgero. Ene ! ondikoa atematen
dut. Zoaz, ene semea ! Zure aitarenak egin du. Ots-egin iezu zure
anai arreberi ! Ots-egin iozu Alkmene'ri, Tzeu'ren alperreko
emazteari ! Dakizkidan igarkizunen azken esanak entzun ditza-
zuten guziok.

Ila'k. — Eztago ama emen : Izpazterreko Tirintu'n dago
egotez ; bertan baitauka etxea. Aur zenbait eroan egin zitun
berak azteko : gañerontzekoak Zebe'ko urian bizi dirala iakin
dezakezu ; aurkez geran guziok, berriz, agintzen diguzuna, en-
tzun baikoz beteko dugu.

Eraquel'ek. — Egingoa entzuizu zuk, bada. Izenez zeranez
nere gizon zerala etorria zera, ain zuzen ere. Aspaldidanik aita-
gandik iasotako iragarkizun bat nun : arnasik artzen dun iñork
ez nindula ilko, Ade'ko bizilagun illen baten itzalez baizik. Zal-
di-gizon pizti orrek, iainkoen igarkizuna zanez, bizitan nengoen
au il nau, ildako orrek. Igarkizun zar-berriak elkaturik orobat
gertarazi dirala agertuko dizut. Lurrean etzanda lo egiten duten
Seloitar basatien basora sartu nintzaneko (130), aitaren aritz
mingain-ugariak esana idatzi nun. Nere gain leporatzen nitun
nekeen iareibidea, bizitan nengoaño aldi ontantxe burutuko nula
esaten baitzun : ta agitz zorionekoa izango nintzala uste izan
nun. Ori berriz, nere erioa besterik ezer ez zan, ain zuzen ere ;
ildakoei dordorik ezpaitzaie gertarazten. Oiek argi ta garbi be-
tetzen diran ezkerro, seme, gizon onen lankide izatea dagokizu,
ta nere esanetara etorririk sorotsi nazazu, aitaren esaneko izatea
agindurik ederrena dala gogora ezazu.

Ila'k. — Aita, onelako eztabaidara etorriaz lau-orritan laz-
turik naukazu : zure iritziak, beteko ditut, ordea.

(130) *Seloi'tar basatien* : Dodone'ko bizilagun zarrak.

Erakel'ek. — Lenengo ta bein, emaidazu eskubia.

Ila'k. — Zertarako, ordea, baikuntza au erabat galdetzen al didazu ?

Erakel'ek. — Ariñago ez al didazu emango ? Esaneko izango al zakit ?

Ila'k. — Tori, luzatzen dizut ; ezezkorik ezertan ez dizut esango.

Erakel'ek. — Sorterazi niñun Tzeu'ren buruagatik zin egidazu.

Ila'k. — Zer egiteko ote ? Au ere azalduko al didazu ?

Erakel'ek. — Nere esana beteko duzula, noski.

Ila'k. — Zin egiten dut neronek, Tzeu lekuko izanik.

Erakel'ek. — Saiets egingo ba'zenu, zigorrak iasatea eska zazu.

Ila'k. — Ez al ditut iasango : beteko baitut. Eskatu egiten dut, berebat, ordea.

Erakel'ek. — Tzeu'ri eskeñita dagon Oite'ko erpin zorrotza ba'al dazaguzu ? (131).

Ila'k. — Badazagut ; ainitzetan gaiñean egona bait-naiz opalari zurrian.

Erakel'ek. — Orain ba, bertaraxe iaso bear nauzu zerorrek zure eskuz, aukeratutako adiskideak lagun. Ta suster sakoneko aritzetik abar ioria autsi, piñu zuzia sugarretan artu ta txondarri irazeki ezaiozu. Negar zotiñik ez bedi, baña, minduru malkorik gabe egin ezazu, gizon onena ba'zera, beintzat. Ezean, birao aztun betikoz zure gain dirauket, naizta beitik izan (132).

Ila'k. — Aita, zer esan didazu ? Egitekoak egiñerazten dizkidazu !

Erakel'ek. — Egitekoak dira noski : osterantzen, beste aita baten seme zindeke ta onezkero ez zaitzatela izendatu nere.

(131) *Oite'ko erpin zorrotza* : Tarakin uriburuaren ondoantsu zutik zegon.

(132) Elade'ko elezarrek ziotenez, Oite'ko erpin zorrotzean, txondarra egin ondoan su emateko bekokirik ez omen zun izan Ila'k eta Piloktete ortaratu omen zan. Orren aldera beretu omen zitun Piloktete'k Erakel'aren iskilluak.

Ila'k. — Ene ! bein eta berriz ! eraile ta aita eraile gertaraz-
tera zirikatzen nauzu, aita.

Eraquel'ek. — Ez orrelakorik ! dauzkadan nere gaitzen sen-
dabide ta sendagille bakarra baizik.

Ila'k. — Nola, ordea, zure soiña irazekiz, sendatu ahal
izan ?

Eraquel'ek. — Ortarako beldur ba'zera, gaiñerontzekoak bete,
beñik bein.

Ila'k. — Eroateak eztingu gaitzik sortereziko, noski.

Eraquel. — Esandako txondarra eraikitzeak, bai ote ?

Ila'k. — Nere eskuz ukitu ez, beste gaiñerontzekoak, bai,
beteko ditut : nere eginkizuna ez dut nekagarri iritziko.

Eraquel'ek. — Aski ditut oriek. Agindu dizkidazun esker
aundiei eratziki iezu beste arin bat.

Ila'k. — Naiz ta erabat andi izan, beteko dizut, itz deritzut.

Eraquel'ek. — Euritu'ren neskata ba al dazaguzu ?

Ila'k. — Iole diozu, nonbait, aieru dezakedanez.

Eraquel'ek. — Baiki. Auxe dizut goraintzi, seme. Ni ilda
gero, seme on izan nai balin baduzu, aitarekiko ziñak oroitzuz,
ezkontidetzat ar ezazu. Etzaite gorbizi izan aitarekin ! Ta nere
saietsean etzanda egon dana, egundaino zuk ez bestek ez de-
zala ar. Zeorrek antola ezkon-oea, seme ! Zaitte esanekoa ! Aun-
dietan, noski, esaneko gertarazi, ta ñimiñoetan aier izateak
oraingo eskerra utsalerazten bait-du (133).

Ila'k. — Ene bada ! Gaitzi da noski, eri bat sumiñeraztea :
nork, ordea, egonarriz eroan lezake orrela asmatzen ikustea ?

Eraquel'ek. — Diozudanik ez duzula egingo adierazten al di-
dazu, ala ?

Ila'k. — Nork egin lezake, ordea, ama il ta zaudenez zu
egotearen errudun bakarra bera dala ? Nork aukera alakorik,
iainko apentzalleren batek iota eri ezpalego ? Obe il, aita. etsai
gorrienekin batera bizi baiño.

Eraquel'ek. — Illagiñean nagoen onen gogorik ez du onar-

(133) Bitxia, benetan ! Ila'k Iole ezkon erazi bear du, aitaren agin-
duz : ta neska ori dala-ta, umezurtz lotu da Ila. Aita baten burura ez
da etorri iñoiz olako gauzarik. Egia esan, Elade'ko zenbait aldetan Iole
omen zan Ila'ren emazte, Esparte'n adibidez.

tzen gizon onek, antza. Nere esaneko ezpadirauzu, bego zure gain iainkoen biraoa.

Ila'k. — Ondikotz ! laster bai laster eri bezela mintzatuko bide zera.

Erakel'ek. — Loak arturiko gaitza zeorrek gorbizten baitidazu.

Ila'k. — Noragabe amaikatxo buruausterik badut.

Erakel'ek. — Aitari entzuterik ezpaituzu aintzat artzen.

Ila'k. — Seme gaizto izaten erakutsiko al didazu, aita ?

Erakel'ek. — Nere gogoaz poz-crazten balin ba'duzu, seme gaizto izaterik ez dago.

Ila'k. — Ori erabat egiteko agintzen al didazu ?

Erakel'ek. — Bai, neronek agintzen dizut eta guzion lekuko iainkoak aitortzen ditut.

Ila'k. — Arrezkero, egingo dut eta ez dut bertanbera utziko, iainkoei zure iarduna iakinerazirik. Zure esaneko izaki, aita, egundaino gizatxartzat ezpainaute gaiztetsiko.

Erakel'ek. — Ederki amaitu duzu ; eta eskar guziori zailutasuna eratziki iezu, enetxo, dardarak edo bestelako iteuliak io baiño len, txondargaiñeratzeko. Goazemak ! leiatu zaitezte. iaso nazazute ! Gaitzon etenaldia bait-da, gizon onen azken muga.

Ila'k. — Ezerk ez digu tupust eragiten zure naiak betetzeko, zeorrek agindu ta ortaratzen baikaituzu, aita.

Erakel'ek. — Ots ! Goazen onezkerok, eri au gaizkiagotu baiño len. Gogo zurrun ori ! galtzairuaren aoko arresitua ezarri-rik mindurua alertu ezazu, gogoaz besteoko arloa buruturik alik eta gogokoan.

Ila'k. — Gora iaso, lagunok, guzion askespen aundia neri emanik eta arlo guziekioko sorario biurtu diran iainkoen sorgortasun aundia ikusirik. Izanez ta izenez guraso dirala, alako zigorak ez ikusiarena egiten baitute. Gerokoak inork ez ditu ezagun ; oraingoak, ordea, errukigarri zaizkigu guri, aieri alkekizun, eta gaitza iasaiten dun ori inori baiño mingarriago.

Abesti-talde-burua'k. — Batetik erio berri andiak eta bestetik aurreneko lanbide aunitzok ikusita, ez zaitez etxetik alde gelditu, neskatxa : orietan Tzeu beste inor ez dabil.

« PILOKTETE »

ANTZERKIAREN MAMIA

Amar urte aundi ezkerro, Lemno'ko izaro bañartian bizi da Piloktete gudal-burua : berau duzu Erañel'aren iskiñoen iabe. Kirise'ren suge zaintzaileak egindaño zauria gorbiztuz, oin-aztala zornakatzak iaten zizkion, ordea. Aren garraxi ta zinkurinak ziralata, bertan bera utzia zuten Elade'ko beste gudalburuek.

Orain, ordea, Eleno zeritzan aztiaren aoz, auxe ikasi dute : Ilión porrokatzeño noraezean bearrezko lirake Piloktete ta aren iskiñoak. Orrezkerro, Piloktete'kin adiskidezkoak egin bear dituzte, Troia'ra eraman dezaten. Arlo zail au bere gain artzen du Odiseu'k, eta bitarteko bezela, Akileu'ren semea dan Neoptolema darabil. Orra, labur-zur, antzerkiaren mamia.

ANTZEZ-LAGUNAK

PILOKTETE, Lemno'ko izaroan erbesteratua bizi dan gudari zarra, oinean zornakatza izaki.

NEOPTOLEMA, Akileu'ren seme gaztea.

ODISEU, Kepalenitarren buruzagia.

DIOMEDE, lagun mintzula.

SAL-EROSLE bat.

ERAKEL.

Zenbait lagun.

ABESLARI-TALDEA, Neoptolema'ren itsas-gizonak osotua.

ANTZEZTOKIA

Lemno izaroan gertatzen da antzerkia. Ikuslearen ezkerretatik sartzen dira Odiseu, Neoptolema, Diomede ta abeslari-taldea. Ondartzan dira : alde batera, barneruntz, bidexka oiartsua ageri da, ta goi-aldeko-ordekaruntz darama. Ordeka barnean arpe baten ataria ageri da : arpe orrek bestekaldean ere irtenbidea du.

Antzerkiaren asieran, beko ondartzan ageri dira antzez-lagunak.

SARRERA

Odiseu'k. — Neoptolema, Akileu'ren seme ta eladetarren arteko guraso kementsuenaren aldaska ori ! Itsasoak artu ta illenume batek ere zapaldu ez, ta inor ere bizi ez dan Lemno (1) eskualdeko izpazterra auxe duzu. Beinola, buruzagiek egiteko eman-aginduak beterik, bertan bera ementxe utzi nun Poianta'ren

(1) *Lemno izaroa basamortu utsa bailitzan agertzen du Sopokel'ek. Aldi-naste au berak berariaz asmatua izan zan. Omer'en alditan oilo-lur zala badakigu : andik ardoa zekarten itsasontzi ainitz aurkeztu baitziran (Iliarena, VII, 467) eta uri aundia omen zan (Iliarena XXI, 40). Dirudinez, Troia'n guduan ari ziran elendarrendako ardoa emendik eroan zuten. Aigei-itsasoko izaro au, Estalimene deritza egungo egunean.*

seme meliarra (2), oina zauri bizi zornatsuak iota zula ; ixuriketarik ezta oparirik ere narerik egiten ezpaitzigun uzten, gudari-zelai osoa, ordea, etenbageko zoritxarpean zeukan, alarao basatiz beti garraxika ta zinkurinka. Alabaina, zertako berriz oroiterazi dan ori ? Au ezpaitugu itzaldi luzeak egiteko garaia, nerau etorri naizela iakin eta beingoan hura atzeman uste dudan amarru osoa lorrindu ez dakidan. Zure egitekoa, ordea, osterantzekoetan lagun egitea duzu ; ta, ain zuzen ere, ortik zear bi zulodun arpe bat nontsu dan aurkitu ezazu, negutean eguzkiaren bi ager-aldi ukaiten dituna, ta udatean, alderen alde zulatu-leize zuloan zear aize-ozkirriak loa erakarten duna, alegia. Zertxobait beherago ezkerretara, edateko iturri bat ikusi dezakezu, onezkero agortua ezpalego, beintzat. Isilean urreratu zaite, ta keinuz adieraz ezadazu, toki artan berean oraindik bizi danentz, edota, beste norabait aldatu ote dan ; gainerontzekoa entzungo didazu gero, nik neronek azalduko baitizut, eta zuk eta biok egingo dugu egingoa.

Neoptolema'k (*Gora igota*). — Odiseu iaun ori, aipatu duzun egitekoa ez dateke urrutirakoa : diozun arpea ikusi-iduri baitizut.

Odiseu'k. — Goi-aldera, ala, be-aldera ? Ezpaitut autematen nik neronek.

Neoptolema'k. — Ementxe, gainean ; eta oin otsik bat ere ez da.

Odiseu'k. — Begira ! oial urdinetan (3) lotan dagon so egizu.
(*Arpera urreratuz Neoptolema*)

Neoptolema'k. — Utsik ikusten dut egoitza ; eztago inor.

Odiseu'k. — Ba ote dago barnean ongi izaiteko etxeko zerrik ?

Neoptolema'k. — Ostikopetutako orbela, norbaiten oerakoedo.

Odiseu'k. — Gainerontzean, utsik al dago ? ta besterik ez ote da arpean ?

Neoptolema'k. — Zur utsez egindako kutxarro (4) bat, antze

(2) *Poianta'ren seme melidarra*, Pjloktete, alegia. Onen aita baitzenun Polanta, ta meliarra zan sortzez, Tesall'ko Meli'n sortua, alegia.

(3) *Oial urdinetan* = aize zabalegara.

(4) *Kutxarro* = edontzi.

bageko norbaitek landua : astoak eunetan baino antze geiago etzeukan langile orrek (5). (*Egontxo*) Ots ! su-pizteko egurrak ere bai auspean.

Odiseu'k. — Aren urtegia adierazten didazu, orixe.

Neoptolema'k. — (*Arkaitz zulatuaren bestekaldetik*.) — Oste-
ra ? Norbaiten zorne iguingarriz blei-blei egindako piltzar batzu berotzen daude emen.

Odiseu'k. — Alderdiotan bizi da gizona, agerian dago, ta ezin daiteke urrun egon, nonbait. Zauri zarra aztalean dula, nola urrundu liteke gizon eri bat ? lateko bila atera da, nonbait, mina kentzeko landara gozagailu ezagunen baten bila, antza.

Aurreko lagun ori barrandan igorri ezazu, beraz, ezustean etorri eztakidan ; nerau atzematea areagotzat bailuke, Argeukume (6) guziak atzematea baino. (*Ezkerretara doa laguna*.)

Neoptolema'k. — Badoa ta bidexka zaipean dagoke. Zerbait opa ba'zeneza areago azaldu idakezu itz bestez (*Ordokira igoten du Odiseu'k*).

Odiseu'k (*Eskuturen bat bailitzan azalduaz*). — Akileu'ren seme orrek, etorri zeranari buruz adoretzu izatea bearrezkoenik duzu, soinez bakarrik ez, baina esanekoa izanik, zure aleginak ortaratuz, naiz ta len entzun bageko asmorik ustez uste bage entzun ba'dezazu ere, ausaz ; laguntzaile etorria baitzera, utsean betean (7).

Neoptolema'k. — Goazemazu ! Zer agintzen al didazu ?

Odiseu'k. — Piloktete'ri itz egin bear diozu, zure itzotan xedeban atzemateko (8). Nor zeran eta nondik zatozen galde egin dizukenean, auxe esaiozu, Akileu'ren seme. Au eztaukazu esku-tatu izanetik. Etixeruntz zoazela eratxiki, Akeu'tarren itsas-gudalostea bertan bera utzi, ta, gorrotoaren gorrotoz iguinduta, ain zuzen ere. Ilion'ez iabetzeko beste biderik etzutela, zure etxetik aien eskarietara zu eratorri ondoren, Akileu aita zenunaren iski-

(5) *Astoak eunetan baino antze geiago etzeukan* = norbait antze bageko dala adierazteko euskal-esaera. Itzez itz au dio : gizon antzekaitz batek egin-lana, ots, φλαουρουργού τινος τεχνήματ' ἀνδρός.

(6) *Argeukume* = eladetar.

(7) *Utsean betean* = azkenik.

(8) *Xedeban atzeman* = maltzurkeriaz oratu, tranpaz artu.

loak zuri ematerik onartu etzutela, naiz ta zuk esku ta bidez eskatu, Odiseu'ri esku-erakutsiz emanak baitzizkioten. Onetan, nere aurka nai aina esateko iauki, inon diranak esan, orrek gaitz aundirik ezpa'tit ekarriko. Onela, egin ezpazeneza, Argu'tar guziei lorra ekarriko zenieke. Orren iskiloen iabe egingo ezpagina, Dardanu'ren zelaia (9) xehakatzerik ezin baitezakezu.

Abespeluan (10) eta eskierrik gizon orrekin zuk itz egitea bai, ta nik ordea, zergatik ezin dudan entzuidazu. Itsasoz zu onaratu zinanean, etzinan etorri norbaiti autsi-mautsiak zin egotziz, ezta alabearrez ere, ezta lenengo bidealdian ere. Nik, berriz, orrelakorik ukatzerik eztut. Arrezkero, bere iskiloen iaun eta iabe bera izanik, aurkez aurke autemango ba'ninu, nereak egingo luke, ta zu berebat galdua zinake, izan ere. Auxe da, ain zuzen, asmatu bear dugun bidea, ezin-garaituzko iskilo oiek isil-ostuka nola lapurtu ditzakezun, alegia.

Badakit, enetxo, ariurriz etzerala onelako itzak erabiltekoa, ezta gaiztakeririk asmatzekoa ere; gurenda irabaztea ta ezta bat dituzun ezkerok, ekin! Gerokoan, zindo ta zintzo agertuko ditugu gure buruak. Orain, ordea, egun bateko epe laburrean, lotsarik bage, nere esanetara zure burua iarri ezadazu, ta gero, zure bitzitza arteko enparauan, laguneren artean zindoeneren izena emango dizute.

Neoptolema'k. — Inola ere ez, Laerti'ren (11)) seme ori! Egitea gorroto dudanik, ezpaitzait gogoko entzuterik ere. Ezer gaitz-bidez egitea iguingarri zait, eta amaren sabeleko kutsua dut ori; neri bezala, sorterazi ninun aitari ere, diotenez. Azpikeririk bage, nai ta nai ez, ezin bestean gizon ori eroateko gerturik nauzu. Oin-bakar izaki, onenbeste geranon aurka, txarrean zer egin dezake?

Baiki, zuri lagun egiteko igorria nauzu; saltzailatzat beztua

(9) *Dardanu'ren zelaia* : Tzeu'ren seme zenun Dardanu ori, ta Dardania erria eraiki zun; erri oni Dardanu'ren biloba zan Tros'ek bere izena ipini zion; arrezkero, Dardanu'ren zelaia = Troia.

(10) *Abespeluan* = entzitez, konfiantzaz.

(11) *Laerti* zeritzan Odiseu'ren aita.

izateko beldur naiz, ordea. launa, naiago nuke ongi eginda atzeko orma io (12), txarkeriz garaile izan baino.

Odiseu'k (*Zear-mintzoz*). — Aita zindoaren seme ori ! nik ere, gaztetan, mingaina motela ta eskuak eraginak nitun. Orain, ordea, ikusiaren ikusiz, argibide auxe ikasi dizut : eskuak bage, mingainak darabilela dana, gizakume artean.

Neoptolema'k. — Gezurrak esateko besterik agintzen al didazu ?

Odiseu'k. — Zuri-murian ari izanda, Piloktete xedeban atzemateko diotzut, besterik ez.

Neoptolema'k. — Ziria sartuta zergatik eraman, gure esanetara ekarrita orde ?

Odiseu'k. — Ezpaituzu zure esanetara ekarri al izango, ta nai ta nai ez, ezina dukezu.

Neoptolema'k. — Orrelako abespeluan egoteko, eskutuko indarren bat ote du ?

Odiseu'k. — Urrundik erioz sarizten duten ezin-itzurizko geziak.

Neoptolema'k. — Orrezkero, argana buruz-buru urbiltzea ez ote da eskier ?

Odiseu'k. — Ez, lakatz ederrik sartuko ezpazenio, esaten dizudanez.

Neoptolema'k. — Gezurrak esaten ari izatea ez al deritzazu lotsagarri ?

Odiseu'k. — Ez, atsa ere gezurra izaki, uraren gaineko bitsean eta aren gaineko sitsean bizi al izan ezkero (13).

Neoptolema'k. — Atozea : ta nola bekokirik izan, orrelakoak ciuz esateko ?

Odiseu'k. — Dagikezunak irabazia dakarkitzunean, bildurrik ez izatea dagokizu.

(12) *Atzeko orma io* = porrot egin.

(13) Sopokelek itzez itz au dio : « ez, gezurrak burua onik ateratea ekarri ezkero », ots, Οὐκ, εἰ τὸ σωθῆναί γε τὸ ψεῦδος φέρει.

Neoptolema'k. — Ta au Troia'ratzeak zer onturre dakarkit?

Odiseu'k. — Iskilo oiek soilik artuko dute Troia.

Neoptolema'k. — Neronek suntsitu bear nula ez al zenidan, ba, esaten ?

Odiseu'k. — Zerorrek, bai, baina, aren iskiloz, aiek eta biok.

Neoptolema'k. — Orrela ba'daite, eizatu egin bear.

Odiseu'k. — Bi esku-erakutsi ditukezu, ori egin ezkeru.

Neoptolema'k. — Nola ? ori iakingo ba'nu, enuke ukorik egingo.

Odiseu'k. — Beingoan iakituntzat eta ontzat aipatuko zaitute.

Neoptolema'k. — Ederra da gero ! Egitera noa, bada ; utikan kezkok !

Odiseu'k. — Azaldu dizkitzudan aolkuak gogoan al dituzu?

Neoptolema'k. — Argi ta garbi, euki ezazu begia bezelaxe, zure esanetara bat etorri bainaiz erabat.

Odiseu'k. — Zaude, ba, orain, eta hura bertantxe atotsi ezazu. Ni banoa, emen nagon lurrinik artu eztezan ; ta iagole au berriro itsas-ontzira igorriko dut. Luzetsirik ba'nengo, ordea, gizon berau eratorriko nuke berriro, itsas-ontzi-ugazabaren antzera mozorroturik, ez-ezagun gerta dedin. Ark enetxo, kikirriki (14) itz egingo dizu ; zuk, baina, aren esanetatik beti dagokizuna atera. Ni, berriz, banoa itsasontzira, dan au zure esku utzirik. Igorri gaitun Erme (15) sabelpetxuriak bidaroz eramango al gaitu, baita Gurendak ere, erriko Azene'k, (16) alegia, betiko ene iareigileak.

(*Odiseu ta Laguna ieixten dira : aurrena, ordokiaren egian gelditzen da, abeslari-taldearen eta ikusleen ikusterrean ; ordokian daudenak, berriz, ezin dezakete ikusi.*)

(14) *Kikirriki* itz egin : *ποικίλως* = *ñabar, ñibirri-ñabar, abigar-rado.*

(15) *Erme*, Tzeu'ren semea ta itsaso-legorrez ibillaldien iagolea, ango elezarren esanetara.

(16) *Azene*, Atenai'ko babesle zan Pala'ren goizizena : Tzeu'ren alaba, ta buru-burutik sorterazi omen zun, iskiloz iantzita.

ABESLARI-TALDEAREN SARRERA

Abeslari-taldea`k (Beitik). — Zer egin bear dut, ene iaun ori, zer bear dut nik, atzerrian arrotz naizen onek, estali edo esan, zearretara begiratzen dun gizon orri ? Adieraz ezadazu : autsak daukan au beste norbaitek gaintitzen bait-du, ta aren baitako asmoa Tzeu`ren iauraga iainkotiararak darabil nagusi. Ahal dan au Ogigo belaun-etxez datorkizu, enetxo ! Zertan lagun egin bear dizudan, esadazu, ba.

Neoptolema`k (Goi-aldetik). — Urrundik, bederen, bizi dan bazterra ezagun nai bide duzu-ta, oraingoan gibel-beldurrik bage begira ezazu. Alabainan, egoitza au barna bidazti itzala ageri izan dadinean, eskuz esku alkartuik, zaite beti nere esaneko, orainaldiari begiratzuz lagun eginik.

Abeslari-taldea`k. — Aspaldidanik dudan eginbidea leporatzen didazu, iaun orrek, nere begiak zure onerako zorrotzurik izatea batez ere, alegia.

Orrezkero, esadazu : or barruar, nolatsu du egoitza, alegia, eta nondik nora ote dabil ? Neronek ere iakitea, izpidezkoa baiteritzat, ori etorrienean, ezustean nondik datorken iakiteko. Nola esqualdea da ? nolakoa du tegia ? Nontsu dira aren urratsak ? Barruan ala lekorean ?

Neoptolema`k. — Ona emen bi atariko etxea ta beraren etzauntza-toki dan arkaitza.

Abeslari-taldea`k. — Orain, ordea, noratsu io ote du gaixo orrek ?

Neoptolema`k. — Nere ustez eztabil oso urrun, iateko bila-edo, aren oinatza erakusten dutenez. Onela bizi omen bait-da errukigarria, gezi egalariz iizia zaurtuz aldean beste, ta inortxo ez omen zaio urreratzen gaitzen sendatzaile.

Abeslari-taldea`k. — Errukien dut, benetan ! Gizakume batek ere arenganako arretarik ez izanik, lagunen begitarterik egundaino ikusteke, beti bakar-bakarrik zorigaitzekoa, gaitz gogorrez eri izanik, bear dunaren bila ortik zear norabage, durdurika ta alderrai ibilki. Nola lezake gaixoak gogor egin eta iraun ? Iainkoen ukaldiak ! Neurritik alde beren bizibidea darabilten ilen umeen izangoaren latza !

Or datza ori, belaunetxez inori zorriq eztion ori, bizi izateko on guzietaz bageturik, bakarrik eta lagunik bage, basabere iletu ta kikirrikien artean, minak eta goseak erabat akiturik deitoragarria, kezka sendagaitzen lorpean lur-iota bagiturik; eta oiar-tzun mingain-luzeak minduru garratzei erantzuki, urrundik kuka du.

Neoptolema'k. — Bat ere etzait arrigarri; ezeren apurrik ulertu ba'dezat, beintzat, iainkoren batengandik eiorri zitzazkion zorigailz aiek, Kirise (17) biotz-gogorragandik, alegia; ta orain ere, inoren eskuarterik bage iasaten dun ontan, iainkoren batek daragoio enura bage, Troia'ren aurka gezi iainkotiar eta garaituzinak erauzi eztizan bildurrez, gezion eraginez uzta-peratu bear omen dun aldi arte, alegia.

Abeslari-taldea'k. — Ixo, eutsi mingainari, enetxo!

Neoptolema'k. — Zer, ba?

Abeslari-taldea'k. — Nekearen nekez leherturik datorren norbaiten oiko otsa entzun-iduri dut; emendik edo andik eztaikit, arean. Engaraz bere oinak narrazean darabilzkin norbaiten benetakoa mintzo ozenak io nau, ta antsi eiagora mingarriak urrundik entzun dantzuzkit; oiu minak argiago ots egiten dute, bai al da!

(Arpearen barneko goenetik agertzen da Piloktete dingilidangolo ta nekez bada ere, aurrerantz etorri dator.)

Abeslari-taldea'k. — Enetxo, ostera! zaude!

Neoptolema'k. — Zer? esan.

Abeslari-taldea'k. — Asmo berriak artu; gizona eztabil lekorean, bertan baizik; ta txibilituen otsak larrean artzaina bezala ateratzen ez, baina, txiriti luzeak orroaka, minez errenka damurik aburikatu dalako, nonbait, edo, abegi txarreko legorrean ontzia ikusi dulako; bildurgarriak dira aren aiuriak, izan ere.

LENENGO GERTARIA

Piloktete'k. — Eup! arrotzok! Nortzu ote zerate? Ditxo on

(17) Kirise zeritzan (egungo egunean Strati) Lemno egoaldeko izaro txiki bat. Bertan gelditu bearra izan zuten eladetarrek iainkoei opari egiteko; izaroaren izen bera zun ango iainko babesleak.

bageko ta bizi-lagun bageko lur ontara zer bearrek erakarri zaituzte ? Zein erri, edo, zein enda izendatu bear ote dut zuena igarteko ? Ene Elade laztan laztaneko iazkera duzue, noski ; zuen mintzoa entzun nai izango nuke. ordea. (*Egontxoia egiten du.*)

Onen basati nagoenetan ikusita, ez al zaituzte bildurrak ezta lau-orriak ere artuko. Arrenean bizi dan gizon batez erruki zaitetzte : bakar-bakarrik, bertan-bera utzita ta adiskiderik bage, gorriak ikusten egon ere. Mintza zaitetzte, adiskide zurrian balin ba'zatozte, beintzat ; erantzun ezazue, ontan zuek ere niri ez. ta nik ere zuei utsik egingo eztizuedanik baiteritzat zuzen eta bidez.

Neoptolema'k. — Ederki, ba ! Aurrenik auxe iakin ezazu ; eladetarrak gaituzu, izan ; orixe iakin nai baitzenun.

Piloktete'k. — Ene itzik laztanena ! Zer ote onako mintzoa, onako gizon oni ta onenbesteko betaz gero entzutea ? Zein bearrek zakar, enetxo ? zerk erakarri zaitu ? zein zoriketak ? zein aize-legun laztanek ? lalki dan ori, nor zaitugun iakin dakidan.

Neoptolema'k. — Nerau, iatorriz, Eskir (18) izarokoa nauzu, izan ; eta etxeruntz ioan noa itsasoz. Neoptolema dizut izen, Akileu'ren semea. Dana badakizu, onezkero.

Piloktete'k. — Oi ! aitarik laztanenaren seme ori ! Ene lur laztaneko ori ! Likomeda (19) zarraren biloba laztana ! zer itsasaldik lurralde-ontaratzen zaitu ? Nondik nora zatoz ?

Neoptolema'k. — Ilion'dik (20) etorri nator, eta oraintxe legorreratu naiz, ain zuzen.

Piloktete'k. — Zer diostazu ? Gurekin batera zu ezpaitzinan itsasontziratu Troia'rako lenengo ioanaldian.

Neoptolema'k. — Zer ? buruauste artan tarteko izan ote zinan ?

(18) *Eskir* izaroa (Skyro deritza egungo egunean) Euboiaren sortzalderra dago.

(19) *Likomeda* izana zan Eskir izaroko errege. Akileu bederatzi urteko aur koxkorra zalarik, errege orren etxera igorri omen zun Teji amak, alabearra itzurteko : errege aren alaba artean azi ta ezi zuten Akileu, beraz. Deidamie laztan zun Akileu'k, eta ixilean senar-emazteen artu-emanak izan zituzten alkarrekin eta seme bat ekarri, Neoptolema, alegia.

(20) *Ilion* = Troia'ren izen zarra.

Piloktete'k. — Ene mutil ! Nor dakuzunuik eztakizu, antza.

Neoptolema'k. — Egundaino ikusi bagea nola ezakutuko dut, ba ?

Piloktete'k. — Nire izenik ere ez al duzu aditu, ezta lur-io-erazten nauten zoritxarren berririk ere ez al duzu ?

Neoptolema'k. — Egia esan, galde egiten didazun tautik ere eztakit.

Piloktete'k. — Amaikatxo zorigaitz iasan ditut iainkoen karats onek ! Nagoenetan egonarren, berririk ere ez da etxeratu, ezta Elade'ko inongo bazterretara ere, antza. Dongaro iausti ninutenok, ordea, nere lepotik irri-parrez ari dira ixilean, ta nere gaitza etenbage aundituz ta gero ta areagotuz doa, noski. Enetxo, Akileu aitaren seme ori ! Emen izketan ari nauzun au, Erakel'en iski-loak dauzkan iabe arakoa nauzu ; entzuera baituzu, nonbait ; Poianta'ren semea, Piloktete, alegia. Lotsarik bage, bi gualburuek (21) eta Kepaleni'tarren buruzagiak (22) oildu ta emen izaro soil ontan, bertan bera utzi zutena basa-zauriz usteltzen, suge galgarriak ausiki gorriz iztatua. Itsasoko Kirise'tik itsas-ontziz ona etorri ziraneko, bakar-bakarrik, nere zauri ta guzti, enetxo, emen bertan nere gisa utzi ninuten aiek, eta ioan ba'lin ba'ziran, ioan ziran. Uhain asalduak agitz aserre erabili ta gero, izpazterreko arkaitz uztaitupean zorioneko loak arturik ikusi ninuteneko, bertan bera utzi ta alde egin zuten, gizon gaitz-etsiari dagokiona utzirik : soineko zarpil zenbait soilik, eta iateko emendioa doi-doi. Beste ainbeste opa diet ! Zuk, enetxo, iduri al izango duzu, aiek ioanda gero, lotatik nere iratzartzea nolakoa izan zitekean ! Nik egin nitukean negarrak, nik deitoratu nitukean biraoak ! Nire agindupean ibili ziran itsas-ontziak oro ioanik zirala, eta emen inortxo ere lagungarri ez nula, ezta nere eritasunaren kinka gorriean arduradunik ere ez neukala ikustean ! Ikusi-ala begiratu, ta ezertarako esku-arterik enun idoroten, atsekabea baizik : ontaz bai, enetxo, eskumenean orni ugaria. Egunak ioan, egunak etorri, neronek bakar bakarrik nere buruaren sehi izan bear nun arpe

(21) *Bi gualburuek*, Agamenon'ek eta Menela'k, alegia.

(22) *Kepaleni'tarren buruzagia*, Odiseu, alegia, Izake, Kepaleni ta Akarmania baitziran aren menpeko.

txiki ontan. Sabelaren asegarria, bai, uztai onek ematen zidan, egaz zioazten usoak aurdikiz ; ta lokarriz iaurretako geziak egozten zuna atzemateko, an ninoian aztal madarikatu au narrazka, bertara eldu arte. Zerbait edateko uretan ioan bear izaten ba'nu, edota izotza zabaldurik zanean, neguan bezala, egurren batzu ebaki bearra izaki, neronek, errukarri onek narrazean burutzen nun. Surik enun, gero, ta arria arriz igortziz, nekez bada ere, gar kukutuari gora eragin nion, eta onek bizierazi nau arrezkero : sua dun egoitzak dana errez ukan-erazten bait-du... neri gaitz au kentzea ez, baina.

Orain, ba, gazte, izaro onen berri emango dizut. Onara ez da urreratzen itsas-gizon bat ere bere gogotik : aingura-lekurik ezpaita, ezta aldera salgaiak saldurik irabaziak non eskuratzerik ere, ezta arrera onik non egin ere. Senik duten gizonen ezte onara ioten itsasoz. Ori gora-bera, beti ere nor-edo-nor bai edo dator oartzaka : orrelako zerak gizonen bizitzarteko luze-zabaleran gerta litezke. bai. Orrelakoak etorri-ala, itzez, bai, erruki izan didate, enetxo, ta biotz-erdiraturik iateko apurren bat, naiz soinekoren bat utzi izan dizkidate. Alabainan, nere etxera eroateko aipatzen nuneko, ezezko biribila ematen zidaten guziek.

Ta emen nauzu, errukigarri, goseak eta ezak ezindurik, ires-ten naun gaitz au gizenduz, amar urte ezkeru. Onelakoak Atereukume eta Odiseu adoretuak egin dizkidate, enetxo ! Beste onenbeste oinaze emango al diete Olinpu'ko iainkoek nere buruaren apengarri ta oinazeen ordain !

Abeslari-taldeak. — Lenago etorritakoek bezalatsu, ni ere errukiturik nagokizu, Poianta'ren seme ori !

Neoptolema'k. — Ni, berebat, itzon lekuko egiten naiz, egi-tiak dirana baitakit : neronek ere Atereukume gaizto alaein oiekin eta Odiseu adoretuakin buruz buru egin-bearra izan baitut.

Piloktete'k. — Zuk ere Atereukume galgarri oien aurka ele-pideak dituzula, ta aien irainen aldera aserrez sumindurik zaudela egia ote ?

Neoptolema'k. — Bein-edo- bein aserre au ase al nuke nere

eskuen indarrez ! Eskir lurraldea ere aitorsemeen ama dala balekuskete Mikenai'k (23) eta Esparte'k.

Piloktete'k. — Balinba, gazte ! Ta zer dala-ta, minu zera, orrenbesteko gorrotoa orien gain emateko ?

Neoptolema'k. — Poianta'ren seme orri, ialkiko dizut, nekez bada ere ; bide-aldi ontan oiengandik ukan ditudan irain beltzak eztizkitzut isilduko. Alabearrak Akileu'ren erioa erabaki zunean...

Piloktete'k. — Ene bada ! Besterik ez esan, auxe iakin baino len. Zer ? Peleu'ren semea ilik ote da ?

Neoptolema'k. — Il zan eta ez giza-eskuz, iainkoren baten eskuz baizik : Poib beraren gezi batek ioa omen, alegia (24).

Piloktete'k. — Ila bezain zindoa erailea, noski. Biotatik zer egin eztakit, ordea, enetxo : aurrenik zure minen berri galdetu, ala, aren erioa deitoratu...

Neoptolema'k. — Zerorren berebiziko zoritxarrak aski dituzu, gizon gaixoa, inorenak deitoratzen iarri baino, nik uste.

Piloktete'k. — Izpidean zaude ; goazemazu, ordea, zuri gertatua ta nola beztu zinuten ialki idazu, berriz.

Neoptolema'k. — Itsas-ontzi brankak kikirriki, Odiseu iainkotiarra ta nere aitaren aurtzaia (25) etorri zitzazkidan auxe esaten, egitan ala gezurretan eztakit nik : nere aita ilik zan ezkerro, nik ez, beste inork ezin zezakela atzeman gaztelua, iainkoek ala naita. Esanak esan, arrotz, luzaroan begira egoterik ez nun izan, len-bait-len itsas-ontziratzeko, bait'ik bat lurra eman baino len ila ikusteko irrikan, oraindik ezpainun ezaguna ; gero, ioan eta Troia'ko gaztelua menderatu bearrekoa eder zitzaidan, baldin-bait ere.

Itsasoz bi egun egin ondoren, itsasaro ona endaiak (26) izaki,

(23) *Mikenai* edo *Mikene*, Peleponese'ko erri bat.

(24) Paris'en gezi batek il omen zun Akileu, Omer'ek dakarrenez, baina, ustailariaren eskua Poib Apolon'ek adoretu omen zun (Ilia'rena XXII, 339 ta abar).

(25) Akileu'ren aurtzaia Poinik zeritzan eta Amintor'en semea izan zan (ikus Ilia'rena IX, 481-ta).

(26) *Endaia* labe-aga-laua, ortik arraunaren alde-laua, arrauna esan bearrean, pars pro toto, alegia.

Sigeion (27) ertzera eldu nintzan. Legorreatu-ala, beingoan baranoan inguratu ninun gudari-talde osoak eta guziek laztanka agurtu ninuten, Akileu ila berriro bizitan neregan ikusi zekustela-ta, zin egotziz.

An zetzan bera ilotzik, eta negar-malkoz garaztatu (28) ondoren, bereala Atere'u tarrengana io nun, bidezko zanez, adiskide egiten baitzuten beren burua, ta aitaren iskiloak eta enparaua eskatu nizkien. Bestelakoek ! erantzunenik ezain- ezainena biurtu zidaten : « Akileu'ren seme orrek », badirauste, « aitarenak oro artzea zuzen eta bide duzu ; iskiloak, ordea, beste norbaiten esku dituzu onezkero, Laerti'ren semearenean, alegia ». Beingoan negar baten asi, aserrearren gori-gori iaiki, ta muturrez mutur garraxi egin nun : « Donge alaenok ! Neri ezer esateke, beste norbaiti nere iskiloak emateko bekokia izan al duzue ? » Odiseu'k berak iausi egiten du, antxe aurkez baitzegon, auxe esanik : « Bai, enetxo, ta esku ta bide osoz eman dizkidate eman ere, neronek andi-andirik iaregin baintun aiek eta ilotza ». Berealakoan, aserretan irakiten, esan-alako arao - urtika asi nintzairen guzior aurka, ezer utzi bage, ark nere iskiloak ostu zizkidan ezkerok. Ontara elduki, naiz ta hura samurkor ez izan, amorruez esteak iaten, aurkez aurke iarrita auxe erantzun zidan : « I ez bai engoan gu geunden aldean, egon bear uan aldetik aldendua bai engoan : eta ao beroz itz egiteko larrua izan dukan ezkerok, eskukok bost beatzak bezain eskier (29), auxe iakin ezak : iskilo oien iabe, i ez aiz itsasoratukok Eskir'untz ». Inon diranok entzunda irainez bezturik, banoa etxerantz, Odiseu donge alaen orrek eta dongeen seme orrek nereaz bagetuta, Ta hura baino areago agintariak salatzen ditut : agintariak nolakoak, alakoa da beti erria ta gudari-talde osoa ere, izan. Bear eztiranak egiten dituzten ilen umeak oro, gaiztotu irakasleen esanek gaiztotzen dituzte. Orra ipuin dana esanik. Atereukumeok gorroto dituna, nere ta iainkoken adiskide bedi.

Abeslari-taldea'k. — *Oi lur ! erabateko ianaritzaille mendi-*

(27) *Sigeion*, Troia'ko lur-burua.

(28) *Garaztatu* = busti busti egin.

(29) *Eskuko bost beatzak bezain eskier* = begia bezelaxe, ziur-ziur.

kari, Tzeu berberaren ama, Paktol (30) andi urretsuaren iabe zerrana. An bertan gorarik oloitz egin nizun, ene ama agurgarri ori! onen aurka Atereu'tarrek irain beltza bururatuz — zezen-eraile leoiak lasterkaraziz leiatzen zeran lo (31) zorionekoa! —, aitaren iskiiloak eskutik eskura eman zituztenean, Laerti'renarentzako ospe larregia, noski.

Piloktete'k. — Atsekabearen agiri argia gurekiko ekarki, dirudinez, itsasoan zear ibiliak zerate, arrotzok! eta nerekin bikondean (32) itz egiten duzue, guziotan Atereu'tarren eta Odiseu'ren egikuntzak erazaguteko ginoan. Ezaguna dut hura, edonolako zipoizkeri ta itsuskeritan bere mingaina darabilen arako gizon hura, ortik zear txarkeriren bat eragiteko azkenik gai dana. Orrek, ordea, ez nau orrenbeste balditzen, Aiatz nagusiak, aurrez aurre izanik eta ikusia ikusiz, ez-ikusiaarena egin zulakoak baizik.

Neoptolema'k. — Bizitan ezpaitzegon, arrotza. Hura bizirik izan balitz, egundaino ez litzazkidakean kenduko.

Piloktete'k. — Zer diozu? Ori ere ilik ioana ote da?

Neoptolema'k. — Argitan bizi dagonik etzazu uste, onezkero.

Piloktete'k. — Ene! nere buruaren zoritxarra! Tideu'ren (33) semea ez da il, antza, ez orixe, ezta Laerti'ri saldutako Sisipu'rena ere (34): oiek, ez, elukete bizirik iraun bear.

Neoptolema'k. — Ez, inola ere; arro-arro eginda, ordea, orri-loan dira orain Argu'tar gudari-ozte artean.

Piloktete'k. — Zera? eta oraindak bizi al da aspaldiko nere adiskide zan Pilo'ko Nestor agure ona (35)? Onek bere aalku zугurrez aien gaiztakerietan atzera-eragiten zien.

(30) *Paktol* = Lidi'ko ibai bat.

(31) *Io*, Inako'ren alaba, bei bilakatu zana, ango elezarrak zionez.

(32) *Bikondean* = a duo, binaka, bi batera.

(33) *Tideu'ren semea*, Diomede, alegia: gogoz kartsu zan, basati xamar eta arroa, ordea.

(34) Laerti'k Antikleie'kin eskontzeko itza eman baino len, Antikleie Sisipu'k aurdun utzi omen zun, eta Odiseu maltzurra omen zan aur ori, bala-bala zabaldu zanez.

(35) *Nestor* ori gerta zan Eladetarren artean erakusmeneko agure gurbil, iakintsu ta mintzalariaren eredu.

Neoptolema'k. — Gaizki dago orain, lagun egiten zion Antilok semea, il egin zaio-ta.

Piloktete'k. — Ene, ene ! ildakotzat egundaino entzun nai ez nituken bi gizon aiputan artu dizkidazu. Bestelako alabearra ! Nora begiak zorrotzu bear al ditugu, oiek il dirala iakin, eta, oien ordeztzat izendatua bear luken Odiseu, enparauak baino zoriontsuago ortik zear dabilela ikusita ?

Neoptolema'k. — Burrukalari maltzur-burutsua hura, noski ! Alabainan, burubide begiratuak berebat beaztopatu egiten dira bein-edo-bein, Piloktete !

Piloktete'k. — Ots, esadazu, iainko-arren, nontsu zan garai artan Patrokol, zure aitaren laztanen zan arakoa ? (36).

Neoptolema'k. — Au ere ilik zegoen. Itz gutxitan auxe esango dizut : guduak beranez zantar bat ere ez, baina, beti onak eran oi ditu.

Piloktete'k. — Zurekin bat natorkizu. Orretxegatik, beste auxe galde egin nai nizuke : nola dago ezain urlia, mingainez izugarri ta iakitun zan arakoa ?

Neoptolema'k. — Odiseu ez, beste nor aipatu dukezu ?

Piloktete'k. — Ez, ori eztizut esaten ; bazan an Zersite (37) urlia, naiz ta inork ere ez utzi, bera an ari zan itza ta pitza zeriola etenbage : bizi danentz ha ote dakizu ?

Neoptolema'k. — Ikusi eztut egin, baina, oraindik bizitan omen da.

Piloktete'k. — Baliteke, makurrik il ez dan ezkerok : orrelakoak ongi babesten dituzte iainko txikiek. Izan ere, zantar, mal-

(36) Lokrida'ko errege baten seme zan Patrokol : ez-ustean norhait il omen zun eta erbesteratu bearrean arki zan eta Peleu'ren iauregitara io omen zun : an Akileu'ren adiskide mamitsu gertarazi zan. Biok biotara gudura ioan ziran eta adiskidetsu iokatu zuten. Akileu'ren habeskinenez iantzita Ektor'ek il zun azkenik. Patrokol'en eriotzean upa bete negar egin eta aren gorazzarrez kirola ospatsuak ezarri zitun Akileu'k (II. XXIII).

(37) *Zersite* (II., II, 242-278) itsusi, betoker, herritsu, erren eta konkorra nagusien aurka esatekoak esaten ari da etenbage Ilia'renean.

tzur eta gaiztoz ar-ioa, Adetik itzultzea gozagarri dute (38), ta on eta zindo dana, berriz, beti ara iaurti oi dute. Nontsu ezarri bear genituke orrelakokeriok ? nola ontzat eman, lainkockikoak goresteko naizenetan, lainkoak berak gaizto kausitu ezkerok ?

Neoptolema'k. — Oite'ko aitaren seme ori ! Aurrerantzean, nik, beintzat, begiratuko dut, Ilion'dik eta Atereukume oiengandik urrun-bai-urrun ibilteko. Ona baino are altsuago makurra izaki, zindoak suntsitu ta doilorrak nagusi diranen artean, orrelako gizatxarrik ez nuke egundaino adiskide nai izan. Aurrerantzean, Eskir arkaittua naikoa bekit, etxean zorioneko naiten. Orain, berriz, banoa itsas-ontzira. Zuri, Poianta'ren seme orri, agur, eta obekien ibili ! Ta zuk opa-ala, zure gaitz ori kenduko al dizute iainkoek ! Goazen, onenbestez ; eta iainkoak itsasaroa eman dezakigunean, bideari egingo diogu.

Piloktete'k. — Enetxo, ioan al zoazte dagoneko ?

Neopolema'k. — Urrundik ez, baina urrendik begiratu bear baitugu itsasorako dei-aldia.

Piloktete'k. — Orain, ordea, zure aita-amaren izenean, etxean laztanen ditukezunen izenean, eskabera otoitz egiten dizut, enetxo, arren ! ez nazazu utzi bakarrik nere gisa, ikusi ta entzun dituzun onenbesteko gaitz artean lur-iota. Alabainan, ipini nazazu gainerakotzat, otoi ! Nere zama onen gogaikarria badakit ; alare, iasan ezazu : bere aldiko aitorsemeei bezkeriak ezaingarri zazkie izan, ta zindo dana ospagarri. Utziko ba'ninuzu, lotsagarri gertatuko litzaizuke, ez eder ; eta egin ezkerok, enetxo, Oite'ko lurraldera nerau bizirik elduko ba'nintz, osperik aundiena izango zenuke. Ots ! Egun beteko lanaldia ere eztukezu, izan. Biotz on ! Azkortu ! Eroatekotan, nai dukezun aldean ezarri nazazu, sastegian, brankan, txopan, itsas-gizonek gutxienik poxolatu ditezken aldean, alegia. Idazu baiezkoa, otoi, eskarien Tzeu beraren izenean, nere esanetara etorri zaite : doi-doi erabili darabilzkidan belaunotan belaunikatuta eskatu egiten dizut, naiz ta

(38) Zearka Sisipu'ren malmuzkeria aipatzen bide du : elezarrek ziotenez, ilterakoan andreari agindu omen zion lurrik ez emateko, ta Ade'n Pluton'i zinkuri egin omen zion bere ilotza eortzi bage zetzala-ta. Baimena iritsi omen zun lurrera berriz etorteko, alargunari akar egiteko aitzekian. Etorri-ala, ez omen zun itzuli nai izan egoitza ilun aietara.

ezindua ta errena izan errukarri au (*Nekez bada ere, belaunbi-
katu egiten da Piloktete*). Alabainan, ez nazazu bertan bera utzi
basamortu ontan, gizakume guziengandik alde; bizirik, ordea,
eraman nazazu eraman zure etxera, edota, Euboi'ko Kalkodon-
ta'ren (39) mugetara, beinik bein; andik, Oite'rako ta Tarakin'go
mendi lerroetarako ta Esperkeio'ko ur-lasterretarako bidea ez da
luzea, nere aita laztanari aurkeztu nazakezun: naiz ta il egin ote
dan bildur izan nerau aspaldidanik. Amaika bider gaztigatu izan
diot etorrien bitartez, arren bai arren, berberak ontzi bat igorri
ta etxera biurtu nendin eskean. Baina, alperrik! Ilda dago non-
bait, ala, nerekihoa ezer gutxian edukirik, mutil gaztigatzaileek
beren etxerako bidea artu zezaketen, nik uste: gauzak dakarre-
na da. Orain, berriz, zuregana ioten dut, nere lagun eta otsemaile
onengana, alegia: onik atera nazazu, erruki zakit, auxe baita-
kizu: bai zorionean, bai bestetara izan, gizakume arteko gauza
guziak bildurrez ta galurrenez iosirik dauntzala, ots. Lorretatik
alde dagonak, ez-ustekoa begira bear du, ta uraren gaineko bi-
tsean eta aren gaineko sitsean bizi (40) oi danak arretaz begira
beza, azpitik zoritxarra sartu ez dakion.

*Abeslari-taldea'k. — Erruki zakio, iauna! Anitz eta gorriak
ikusi omen ditu, damurik: orrelakorik ez nioke opa izango nere
adiskide batxori ere. Atereukume latz aiek ezkerreko begiz ikus-
ten dituzun ezkerro, aiekiko gaitza onen irabazi gertaraziz, nik
beinik bein, berak nai denez, beraren etxera eraman egingo nuke
zure itsas-ontzi arin eta ongi ornituan, iainkoen aserreari iges
eginik.*

*Neoptolema'k. — Begira, orain etzaitez izan esku-zabalegia,
ta itsasontzian eritasunez gogait andi eginda gero, itzetan bestela-
ko agertu etzaitezen.*

*Abeslari-talde-buruak. — Ez orixe: egundaino ez ezakidake
iauki orrelako zantarkeririk esku ta bidez.*

Neoptolema'k. — Ots, garaia izanda gero, aitortz oni bear

(39) *Kalkodonta*: Kalki'ko errege ta Erakel'aren lagun alkartu bat.

(40) εὖ ζῆ « onik bizi » dio itzez itz ta « uraren gaineko bitsean
eta aren gaineko sitsean bizi » euskal-esaeraz eman dizut, biok hate-
ratsu esan nai baitute.

izanetan lagun egiten zu baino ezago izatea lotsagarri litzaidake, benetan. Onela iduri ba'zaizu, goazen itsasoz, onezkero, len-bailen ekin bideari : gure itsasontziak eroango zaitu, ta inoren ezezkorik bage eroan ere. Lurralde ontatik onik aterako al gaituzte iainkoek, ai letsa, ta emendik itsasoz ioan nai dugun araino.

Piloktete'k. — Ene adiskide laztanen ori ta itsas-gizon maitagarri-maitagarriok ! Au bai, zorioneko eguna ! Agerbideak erakutsi al ba'nezazkizuite nola adiskidetu nauzuten adierazteko ! Goazen, bai, enetxo, zu ta biok egoitza bizi-ezin omi agur egitera, zertaz elikatuz ari izan naizen iakin, eta orretarako bear izan du dan biotz onaren berri dezazun : begiz ikusiz ere, nik beste inork ezin bailuke egari, nik uste. Orrenbeste gaitz onartzen, ordea bear gorriak irakatsi dit.

(*Arpera sartzen dalakoa egiten du Neoptolema'k.*)

Abeslari-talde-buruak. — Gel, nor datorren iakiteko. Bi gizon etorri baitatoz ortik zear, bata zure ontziko itsas-gizona, ta bestea, erbestekoren bat : zertarako urbilerazten diran iakin, eta gero, barneratuko zerate.

(*Odiseu ta Diomedea sartu egiten dira : aurrena saleroslea iazkeraz, bigarrena itsas-gizonen soinekoz iantzita.*)

Sal-eroslea'k. — Akileu'ren seme ori ! Non zinan erakusteko agindu diot zure bidaide onako oni, beste biekin zure itsasontzia zaitzen zegola arkitu baitut, zuk aingurak egotzi dituzun izpazter bertan, nik ere, ez-ustean ondartza artu bearra izaki

Itsas-ontzi txiki batean nagusi, Ilion'dik etxeruntz ioan noa, Peparezu'ra (41), mahats-mordo ederdun aldera, alegia ; eta itsas-gizon guziok zurekin ostera egiten ari zirala entzun-ala, nereko auxe uste izan dut : zuri itz egin baino len ta zertxobait adieraztera emateke, ez noala itsasoan barrena, arean. Ardietsi ta berdinean sariztuko nauzu orobat. Zurekikorik iakin eztakizu, nonbait, zuri buruz Argeukumeeak dituzten asmo berriak, alegia ; asmoak bakarrik ez, gaudeneko egin dituztenak baizik.

Neoptolema'k. — Arrotz ! Zure eskerraren aldera, zurekin adiskide iraungo dut, ezpainaiz gizatxar, izan. Aipatu didazuna,

(41) *Peparezu* egungo egunean Skopelos deritza ta Euboi'ren ipar-sortzaldera datza.

ordea, azaldu ezadazu, Argeukumeengandik zer asmabide berri dakarkidazun ikas dezadan.

Sal-eroslea'k. — Itsasontziz zure atzetik irten dira Poinix agure zarra ta Teseu'ren semeak.

Neoptolema'k. — Indarrez ala esanez ara berriro nerau eroateko ote ?

Saleroslea'k. — Eztakit arean ; entzunaren berri-esale etorri natorkizu.

Neoptolema'k. — Ta Atere'u'tarren ederragatik Poinix-ta alkarren leian ori egitekotan ote dira ?

Saleroslea'k. — Egiteko asmo utsetan eztituzu, noski, egiten ari dira onezkero, nere eskuko beatzak bezain eskier.

Neoptolema'k. — Ta Odiseu bera andi-andirik zergatik ez da itsasoratzeko gertu izan, berri ori berberak ekarri zezakidan ? Bildurrak-edo eragotzi ote du ?

Saleroslea'k. — Aize-oialak edatzen ari nintzanean, bera ta Tideu'ren semea beste gizon baten bila zioazten.

Neoptolema'k. — Odiseu bera noren bila ari ote zan, ba ?

Saleroslea'k. — Bazan urlia izan... Orrako ori, ordea, nor dugu ? orixe esadazu lenik ; diraustazuna, baina, etzadazu gorarik esan.

Neoptolema'k. — Arrotz ori ! Auxe duzu arako Piloktete ospatsu nura.

Saleroslea'k (*Neoptolema'gana urreratu ta isilpekotzat belarri-ra esaten*). — Gel ! Orain ez esan geiagorik ; len-bai-len, ordea, ingira zaitez ta iges egizu lurralde ontatik.

Piloktete'k. — (*lakin minez*). Zer dio orrek, enetxo ? Neri buruz zer sal-erosketa eskeintzen dizu isil-misilka itsas-gizon orrek ?

Neoptolema'k. — Zer dionik ere eztakit, arean ; esanena argitara esan beza, zuri ta bioi ta guzioi.

Sal-eroslea'k. — Akileu'ren seme ori !, bear eztudanik esan al ba'nezakizu, gudalozteari etzenezakioke salatu ; gizon beartsu naizen-arren, egiten dizkiedanen ordainez aiengandik ainitz ta agitz iasoten baitut.

Neoptolema'k. — Atereukumeen etsai nauzu nerau, ta ona-

ko au nere adiskide laztan laztan dut, Atereukumeak gaitzesten ditu-ta. Arrezkero, nigana adiskide ba'zentoz, zuk entzundakorik etzeniguke isildu bear.

Salerosle'k. — Begira zer dagizun, enetxo.

Neoptolema'k. — Aspaldidanik ikusia dizut nik neronek.

Saleroslea'k. — Guzion errudun zerau ezarriko zaitut.

Neoptolema'k. — Zertaz diozu ?

Saleroslea'k. — Mintzatzera noakizu, ba ; onako onen bila itsasora dira dantzuzkizun bi gizonok, Tideu'ren semea ta Odiseu adoretsua, alegia, baietz eraman zin egotziz, edo onez onean beuren esanetara erakarrita, edo gogoaz bestera gogorrean. Odiseu'ren esanok Akai'tar guziek entzun dituzte argi ta garbi, beste baina erabakiago baitzegon hura ori burutzeko.

Neoptolema'k. — Orren luzaroan bazterrean euki ta gero, zer dala-ta, orain onengana beren begiak itzuli dituzte Atereu'tarrek ? Nolako leiak artu al ditu ? ala, egin txarrak zigortzen dituzten iainkoen adore ta asperkundearen bildur ote dira ?

Saleroslea'k. — Dana azalduko dizut nik, oraindik ezpaituzu entzuna, nonbait. Bazan iatorri oneko azti ezein bat, Priamu'ren semea izan ere, izenez Eleno zeritzana. Gau batean. Odiseu maltzurak, bakar-bakarrik atera, ta atzeman egin zun, inon diran itzik beltzenak entzun ditun onetxek, ain zuzen ere. Burnitan lotuta ekarri ta Akeu'tarren erdi-erdian ipini zun, eiza ederra gero : an bertan, amaika gertakizun aztiak iragarri zizkien eta auxe baitik bat : Troia'ko gaztelua egundo soiltzerik ezin izango zutela, orain bizi dan izaro au utzita, ara ioatea onako onek ontzat ez eman artean. Aztiaren esanok Laerti'ren semeak entzun-ala, auxe agindu zien berealakoan : ots, onako gizon au eroan eta Akeu'tarren aurrez-aurre aurkeztuko zula : aren ustean, onez onean ortaratuta, nai ezpalu, ordea, ezinbestez, gogoaz bestera. Ta berak nai izan-arren, ala gerta ezpaledi, beraren burua mozteko aizu izango ziralda, alegia. Dana entzunik duzu onezkero, enetxo : zuri ta onako oni, berriz, leiaka ibiltea aolkatzen dizuet, ezereen kezkarik ba'zenezate, beintzat.

Piloktete'k. — Parregarri bear dut gaixo onek, izan ! Akeu'tarregana eraman egingo nauela gaizkin uts ark zin egin bait-

du, ta onez-onean eraman ere. Etorrea dauka : aren esanetara ekarriko bainau, ilda gero ere Ade'tik argitara itzuli nindeke eta onez-onean, aren aita bezalatsu.

Saleroslea'k. — Ortaz tautik ere eztaikit nik arean. Alabaina, ni itsasontzira ioan noa. Geien dagokizuen burutara emango al dizue iainkoek (*Badoaz saleroslea ta itsas-gizona*).

Piloktete'k. — Mutil, ez al da gogorra benetan, Laerti'renak bere itz koipeetan uste izanda, Argeu'tarren erdian agertuko nauela itsasontzian eroanda gero ? Alaba'nan, oina eri ipini, ta zalditik astora ta astotik lurrera emen erabili narabilen nere etsarik gorrienari, sugeari, alegia, lenago adituko diot. Gizon aurrera hura, ordea, txakurrenak esan eta ez-egitekoren bat egiteko buruda, izan, gero ; ta badakit, etorri egingo da, izan da ta izango. Ots, goazen, mutil, Odiseu'ren itsasontzitik itsaso zabalak mugatu al gaitzan. Goazen ! Ito bear eta ito ezin ibili ta gero, lanarekiko atsedena, loa ta egotaldia ekarriko dizkigu garaizko leiak, alegia.

Neoptolema'k. — Bai, branka aldetiko aizea atertu-ala, irten-go gera ; orain bertan, aurtzaka (42) bear genuke-ta.

Piloktete'k. — Gaitzak itzuri al izatekotan, aize guziak eder lirake, izan.

Neoptolema'k. — Ez orixe, aiei ere aurka ioten die : antzina zan berandu (43).

Piloktete'k. — Aurkako aizerik ez tute izaten lapurrek, lapurretakorik edo indarrez eramatekorik izan ezkeru.

Neoptolema'k. — Orreña baderitzazu, goazen bide artua barna ; ta bearren eta naien dukezuna, ar ezazu or barruskotik.

Piloktete'k. — Baitezpada, zerbaiten bearrean nauzu, noski, naiz ta aukera aundirik ez izan.

Neoptolema'k. — Nere itsasontzian eztaukakezun zerbait ote ?

Piloktete'k. — Badaukat landare bat, zauri onen minetan lo-eragingarri ta erabateko azkarri.

(42) *Aurtzaka*, aizeak aurka io.

(43) *Antzina zan berandu* : zer-edo-zer bear baino aldiz aurrerago egina dadinean esan oi da.

Neoptolema'k. — Eraman, ba ! Besterik areago artu nai al zenuke ?

Piloktete'k. — Oarkabea, bear bada, eskuetarik geziren bat erori ta erabat ahantzirik utzi dizut ; oien iabe inor izaterik ez nuke nai, inola ere.

Neoptolema'k. — Ori ote duzu arako ustai ospatsu hura ?

Piloktete'k. — Eskuetan daramadan auxe ta besterik ez.

Neoptolema'k. — Alde-alde begiratu, eskuetara iaso ta mun eginda iainko bat bezala agurtu al dezaket ?

Piloktete'k. — Zuk, bai, noski, enetxo ; au ta atsegin izan litzaizkizuken nereak oro zure lirake.

Neoptolema'k. — Auxe esango nizuke, ba : onako au irrikaz irrikatzen dut. Zilegi ba'lit, idakezu ; ezinean, ordea, beude.

Piloktete'k. — Itzaltsu mintzo zera, enetxo ; zilegi zaizu. Eguzkiaren argia ikustea zerorrek bakar-bakarrik eman baitidazu ; Oite'ko lurra, nere aita zarra ta adiskideak berriz ikustea zuri zor baitizut ; eta nere etsaien azpian zapalduta nengoenean, zuk atera nauzu aien esku-eskutik alde. Biotz on ! Artu ta gero, eman dizunari ematea nai-erara duzu ; ta zerau zerala gizakumeetan bakarra ilarraindu zindeke : nik, neronek ere, on eginik, neretu bainun.

Neoptolema'k. — Zu ikusi zaitudaneko, onen adiskide zaitudala-ta, ez nauzu atsekabetan, noski. On egina on egitez ordaintzen zait, ain zuzen. Barnera zaitezke, onezkero.

Piloktete'k. — Ta zu ere barneratuko zaitut ; zerau laguntzaitzat artzea, irrikaz galdetzen baitzaitu eri nagoen onek (*Piloktete ta Neoptolema arperatzen dira*).

ABESLARI — TALDEAREN ERESIA

Abeslari-taldea'k. — *Entzutez badahit, naiz ta egun eta eguzkian egundaino ez ikusi izan neronek, beinola, Tzeu'ren oeraino ondoratu Ixion (44) ta Koronu'ren seme guzi-altsuak gurpil-ardatz arinari lotu ziona : ilen ume batek ere, ordea, orrek baino zoritxar*

(44) *Ixion*, Tesali zarreko errege : odei baten iduria artu ta Era'kin batu omen zan elezarrak zionez.

gorrologarriagorik inoiz leporatu dunik eztakit, aoz-belarri ere ezlut entzun : inori ezer egiteke, inori ezer ostu bage, zuzenekin gizon zuzen izan-arren, orren beltz lur-io bait-du. Izpazterra zeatzen duten olatu dunbotsak entzuten, bakarrik, berau beretara, amaika aldiz agin artean bealza sartuta eramán dun bizitzaldi negargarriak arri ta zur eginda nauka. Bakarrean bere burua mugaturik, zirkin egin ezinik, beraren gaitz-min-aldietan zauritrik — iresle ankerra — ixuri odolak eragiten zizkion antzi ta negarrei durundika arri-bizi egiten zion bertako lagunik bage bizi izan da. Oin minduaren zauri irakinak odol-iario zekarkion zornakatzatza zol-ditu bearrean, lur emakorretiko landare azkarriz eztitu ezinik. Oinaze ozkaria endurtu oi zitzaioneko, berriz, eroso bide egin zezaken norabait, narrazean ibili zebilen ara ta ona azparkari, inude laztanagandik alde eragindako aurra bezala. Lur onetsia-ren ekarririk iateko izateke, ogia iaten dugun gizonak elikatzen gaitun besterik bage, gezi egalariz ustai arinak atzeman zezaken gosearen soroskiren bat ez, beste bage. Bizibidearen negargarria! Amar urte aunditan ontzi bete ardo txastatu bage, baizik ere ur ilaren bila beti iardungo zukean, begiak zorrozuz nonbait izan ba'lu. Azkenik, ordea, zorioneko azkendu ta bere aldiko gertatuko da, guraso zindoen aitorsemeakin alkar egin bait-du : ainbeste ilabete ondoren, itsasoan zearka igaroko dan enborrean, gurasoenera eramango du orrek, Meliar neskatxen egoitzara, alegia, ta Esperkeio'ren uraldetara, an borontzezko babeskindun gizurena (45), iainko guziengana ondoratu zan, iainkotiar-sugarretan dirdaitsu, Oite'ko izarrak gora.

BIGARREN GERTARIA

(*Neoptolema ta Piloktete arpetik ateratzen dira, bigarrena lenengoarengan zurkaiztatuz.*)

Neoptolema'k. — Aurrera, ba, nai ba'zenuke (*Egortxoá egiten dute*). Zertan zaude, baina, ao bete itz esateke, orren isil, arri ta zur eginda, sorreridun baitzina ?

(45) *Borontzezko babeskindun gizurena*, Erakel, alegia, Oite'n txondar errea.

Piloktete'k. — Ai ! Ai !

Neoptolema'k. — Zer duzu ?

Piloktete'k. — Ezer ere ez. Bidean iarrai, mutil !

Neoptolema'k. — Minerazten zaitun gaitz-aldiak io al zaitu ?

Piloktete'k. — Bai zera ! Arinduz doala deritzat, onezkero
Ene iainko oiek !

Neoptolema'k. — Zinkurin oien bidez, zer ots egiten diezu
iainkoei ?

Piloktete'k. — Iareigile adiguritsu etorri dazkigun. Ai ! ai !

Neoptolema'k. — Zeri dira garraxiok ? Ez al didazu esango ?
ez zaitez izan orren isilkor. Mina gorbiztu bide zaizu.

Piloktete'k. — Nereak egin du, enetxo ! Ezin nintzakizuteke
eskutatu nere gaitza. Txut ! txut ! Atx ! atx ! Alderen alde bada-
tor, badator. Ene errukarria ! ene bada ! Nereak egin du, enetxo !
Ortz-karraska narabil min biziak, mutil ! Atx ! atx ! atx ! atx !
atx ! atx ! atx ! atx ! atx ! Iainkoen izenean ! ar ezazu, esku-
eskuan ezpata bat ba'zeneza, ta io oin-buruan ! Moztu len-bai-
len ! Nere biziak ez errukirik ukan. Tira, mutil !

Neoptolema'k. — Ezustez zerk artu zaitu, orrelako zinkurin
eta orru eragiteko ?

Piloktete'k. — Badakizu, enetxo !

Neoptolema'k. — Zer da ?

Piloktete'k. — Badakizu, mutil !

Neoptolema'k. — Zer duzu ? Ezpaitakit arean.

Piloktete'k. — Nolatan ez iakin ? Atx ! atx ! atx ! atx ! atx !

Neoptolema'k. — Gaixoaldi gorriak eraso zaitu.

Piloktete'k. — Ikaragarriak ! ezin esan alakoak ! Erruki za-
kit, alabaina.

Neoptolema'k. — Zer egin dezaket, beraz ?

Piloktete'k. — Bildurrarren ez lau-orritu ; ez nazazu saldu :
eri au noizean bein baitatorkit, ortik zear alderrai ibiliz laztuta
gero, nonbait.

Neoptolema'k. — Ene ! ene ! errukarria zu, benetan ; neke
guziok errukarri agertzen zaituzte. Eskua luzatu ta alderdia ekarri
nezakizun nai al zenuke ?

Piloktete'k. — Orrelakorik ez, noski. Alabaina, aurtemein

eskatzen zenidanez, ustai-geziok artu ezazkidazu ; ta gaixo-aldia-
ren kinka larri au igaro arteino, zaitu ta babestu itzazu. Loak
artu oi bainau, gaitz au ioaten daneko : lenago eztu atertuko
minak : narerik lo egiten utzi bear nauzu, beraz. Tarte ontan
aiek etorriko ba'lira etorri, iainkoen izenean auxe eskatzen dizut,
ez izkiezu eman iskilo oiek, ez naiarren, ez indarrean, ezta beste
inola ere, zu ta biok galdu ezkaitzaten, orixe eskean nagokizu.

Neoptolema'k. — Biotz on ! iakinaren gainean egon zaite-
ke : zuri ta bioi ez, beste inori ez dira emanak izango. Zori onik
izkidazu, beraz.

Pilokte'k. — Tori, ar itzazu, enetxo : ta Bekaitza otoitz eza-
zu, samin-iturri gerta ez dazkizun, neri, ezta nere aurreko iabeari
ere izan etzazkigunez.

Neoptolema'k. — Iainkoek auxe bekizkigute : itsasora ezke-
ro, itsasaro ta bidaroa ditzagula, alegia, Iainkoek erabaki ta gure
bideak begiz io dun alderaino aizete ona ta arina egokieraziz.

Piloktete'k. — Orren iakitun zaude, noski : zure eskaria,
ordea, alperrik ez ote daiteken bildur naiz, enetxo : tantaka zauri
barrutik odol gorri beluna dario, ta zer-edo-zer berriren bat dator-
kidala deritzat. Atx ! atx ! ene bada ! atx ! atx ! agitz ta ainitz !
ene oina, ekarten dizkidazun gaitzen mina ! Badator, geroago ta
urrenago dator. Ene errukarria ! buruaustea duzue, izan ? Igesik
ez egin, inola ere ! Atx ! atx ! Kepaleni'ko urlia, saietsen alderen
alde zearkatuko al zaitu min onek ! Ai letsa ! Ene bada, atx !
atx ! atx ! atx ! Ostera ! Bi gudalburuok ! Agamenon ! Mene-
lau ! Nere ordez, zuek io al ba-zintzae min onek, ni besteko lu-
zaroan ! Ene errukarria ! Erio ! Erio ! Amaikatxo aldiz egunoro
dei egin arren, egundaino ez al ator ? Enetxo ! aitorseme orrek !
ar nazazu, ta Lemno'ko su aipatuetan kiskali nazazu, laztana !
Nik ere orrelako zerbait Tzeu'ren semeari egitea onartu bainun,
or orain zaitzen dituzun iskilo oien ordainez.

Zer diozu, enetxo ? zer diozu ? Zeri zakio isilik ? non zaude
egon, mutil ?

Neoptolema'k. — Aspaldidanik, zure gain dituzun gaitzon
minez minduru nauzu.

Piloktete'k. — Enetxo, ezazu biotz on ! sostean etorri ta be-

reala ioaten baitzait. Eskari bat egiten dizut egin : bakarrik ez nazazula bertan bera utzi.

Neoptolema'k. — Biotz on ! emen gelditzen gera.

Piloktete'k. — Geldituko zera, ala ?

Neoptolema'k. — Argi ta garbi gogoan ezazu.

Piloktete'k. — Zin eraginez ez nizuke eskatu nai, enetxo !

Neoptolema'k. — Zu bage ioaterik etzait zilegi, izan ere.

Piloktete'k. — Idazu zure eskuaren gaudimena (46).

Neoptolema'k. — Eutsi, geldituko naiz.

Piloktete'k. — Aruntz, orain ni, aruntz...

Neoptolema'k. — Nora diozu ?

Piloktete'k. — Gora.

Neoptolema'k. — Berriz ere zoroak ote zarabil ? Goiko ortzi-sapaira zerren begiak zorrozten dituzu ?

Piloktete'k. — Utzi, utz nazazu.

Neoptolema'k. — Non utzi zinduzket ?

Piloktete'k. — Utz nazazu nonbait.

Neoptolema'k. — Etzaitudala utziko esaten dizut.

Piloktete'k. — Ikutuko ba'ninduzu, nereak egingo luke.

Neoptolema'k. — Utzi zaitut, ba ; areago zure senera bide baitzatoz.

Piloktete'k. — Nagoanetan, ilteko atotsi nazazu, oi lur ! zutik ibilten ere ezpainau uzten gaitz onek (*Luze bezain zabal lurrean etzaten da ; egontxo*).

Neoptolema'k. — Luzaro baino len, gizona loak artu du, antza : burua okerretara etzan du ; izerdi-patsetan blei-blei du soin osoa : orpotik gora zarra-zarra odol beltza dario, zainen bat lertuta. Adiskideok ! utz dezagun narerik, lozorroak ar dezaino.

ABESLARI - TALDEAREN ERESIA

Abeslari-taldea'k. — *Loa ! Oinazeen ta nekeen ardurabako zeran loa, onik etorriko al litzakiguke, zoragarri-zoragarri, ene iauna ! Orain zabaldu zaion ortz-argi onek ez bezaio alde egin azbegietatik. Atozkit ! Atozkit sendatzaile ! Enetxo !* (*Neoptole-*

(46) *Gaudimena* = garantia, solvencia.

ma'ri) zertaratzen zeran begira ! nora ta nola ioteko zeran adi egon ! Badakutsu, onezkeru. Zeren begira gaude egitekoa egiteko ? Aolku guzien buru dan abaguneak agitz ta ainitz gurenda irabazten ditu beingoan.

Neoptolema'k. — Onako onek entzun eztantzu ezer, noski ; nik neronek auxe badakust, ordea : berau bage itsasoraturik, alperrik litzaigukela iskilo oien bila irrikaz ari izatea, alegia. Onako onek du artzeko buruntza ; berau andi-andirik eroateko iainkoak esana baitugu. Lotsa gaiztoa, benetan, gezurretan eta egika danaz ilarraintzea !

Abeslari-taldea'k. — *Enetxo ! ori iainkoak du ikuskizun. Berriz erantzuten didazunean, ordea, zure itzen otsa emaro emaro igorri idazu, eri guzien loa, lo arina izaki, begi-zorrotz oi da-ta so egiteko. Ahal dukezun luze bezain zabal, baina, isil-ostuka arako egingo hura nola egin, gogoan ar ezazu. Zertaz ari naizen badakizu ; onako onen gogaide ba'dirauzu, burutu ezin alako gaitzak zor eta lor metalzen ari zera.*

Onezkoa dugu aizea, enetxo, onezkoa ! Begiak itxita, lagun-tasunik bage, gaupean datza gizona ; sargoria logiro baitago : esku-oinen adorerik bage, Aide'tan (lurpean) luze ainbat zabal etzandako gizonak bezala ikusten du. Begira, mugonez mintza ! Nere gogoak ulerterrez du auxe, enetxo : bildurrik bageko lan-keru, onen-onena, alegia.

IRUGARREN GERTARIA

Neoptolema'k. — Isilik ! eta aitzak bakarrik entzutekorik ez esan (47). Begiak zirkin egin, ta burua iaso du.

Piloktete'k. — Oi argia ! loaren ordetailu ta arrotzen ustez uste bageko zaitzea ! Orrenbesteko errukiz, nere nekeok zerorrek iasan eta aurki egotez lagun egingo zenidan usteaz, ez nukean nere burua andi egingo nik neronek. Erakusmeneko buruzagi aiek, Atereukumeak, alegia, orrenbesteko egonarririk izateko ta orrela eroateko aukeran etziran izan, ez orixe ! Zuk, berriz, iato-

(47) *Aitzak bakarrik entzutekorik ez esan* = gauza gogor eta ez esatekoa esan.

ri oneko ta zindoen aitorseme orrek, dan au eramatea gauza erreza iritzi diozu, garrasiz ta kiratsez asebeteta gogait gaizto eginda egon-arren. Oraingoan, berriz, gaitz onek azkarri ta egontxo eg'in bide dun ezkeru, iaso nazazu zerorrek, zutarazi nazazu, ta mina aldendu dakidaneko, itsasontzi aldera ioko dugu, eztezagun itsasoratzea atzeratu.

Neoptolema'k. — Ustez ustekabean, minik bage zaudela begiratzuz ta oraindik asnas artzen duzula ikusirik, pozarren nago, noski. Orain-urrengo ondoezean ageri zanez, izan ere, ez zinaren antza zenun. Iaiki zaitez, onezkero : laztanago ba'deritzazu, ordea, oiek eramango zinduteke ; ori egitea zure ta bion gogoko dala ba'lekite, lanaren bildur ez lirake.

Piloktete'k. — On deritzat, enetxo, ta iaso nazazu, burutan duzunez. Oiek, ordea, utzi itzazu, bear baino len kirats gaiztoz ok egin eztezaten ; itsasontzian nerekin egotez bizi izateko naiko lan izango dute, izan ere.

Neoptolema'k. — Zure esaneko nauzu : agondu baina, ta ostikoz iarri zaite zerori (48).

Piloktete'k. — Biotz on ! zutik iarten oiturak lagunduko nau, noski.

Neoptolema'k. — Txut ! txut ! zer egin al dezaket neronek gaurgero ?

Piloktete'k. — Zer duzu, enetxo ? nora ioten dute itzok ?

Neoptolema'k. — Ateka gaitz ontan itza nola irabiatu bear ere eztakit.

Piloktete'k. — Zertaz zaude keko-meko ? etzazu esan orrelakorik, enetxo !

Neoptolema'k. — Ementxe nago bien arteko, zeri nakio.

Piloktete'k. — Nere txarraminuak (40) gogait eraginda, zure itsasontzira ez eroateko ginoan zertu al zera ?

Neoptolema'k. — Dana gogaikarri oi da, bear ez danen bat egitearren, nork bere biziko ariurriari uko egin dezakionean.

Piloktete'k. — Alabaina, gizon eskugarbi bati lagun eginik, zure esan-eginetan eztiarduzu zure aitaren bestetara.

(48) *Ostikoz iarri* = apoyar.

(49) *Txarraminu* = úlcera.

Neoptolema'k. — Bete betean, nere burua kiskil agertuko dut : orretzek naigabearazten nau aspaldion.

Piloktete'k. — Zure eginetan eztuzu zerik ; zure itzak diralata, ordea, bildur nauzu.

Neoptolema'k. — Ene Tzeu ! zer da egitea ! zer egiter nauzu ? Bigarrenez gaiztotzat ioko al naute, bear ez diranak kuku-tuz, ta itz egitekoan ao-betekoak esateko bekokian zazpi azal izan ditudalako ?

Piloktete'k. — Go'anengotik eginda ezpanago, nerau azpika saldu ta emen bertan bera utzita, gizon onek itsasoratzeko antzadu, izan.

Neoptolema'k. — Emen bertan bera utzi etzaitut egingo neronek, ez orixe ; gogoaz bestera zerau eroan bearrak, orretzek naigabearazten nau aspaldion.

Piloktete'k. — Zer diozu, mutil ? tautik eztizut ulertzen, arean.

Neoptolema'k. — Eztizut ezertxo isilduko, egia garbi esateko : Troia'ra itsasoz ioan bearra duzu, Akeutarrengana ta Atereu'tarren gualostera, alegia.

Piloktete'k. — Ene bada ! zer esan duzu ?

Neoptolema'k. — Etzaite mindu, iakinean iarri arte.

Piloktete'k. — Zertzaz iabetu ? Zer egin gogo didazu ?

Neoptolema'k. — Aurrenik, gaitz ontatik zerau atera, ta gero, zurekin ioan eta Troia'ko bazterrak txarpil-txarpil egin.

Piloktete'k. — Baina, benetan zaude gero, ori egiteko ?

Neoptolema'k. — Alabear gogorak agintzen baikaitu ta etzaite sumindu au entzunaz.

Piloktete'k. — Galdu baino obe ez naiz errukarri au ; nereak egin du. Saldu egin naute. Zer egin didazu, arrotz orrek ? Beingo-beingoan itzul izkidazu iskilo oiek.

Neoptolema'k. — Ezin ditzaket ; agintarien esanetara egon bearra baitut, eskubide ta atsegin-sariak ortaratuta.

Piloktete'k. — Su orrek, erabateko izukari alen orrek, gaitz uts bera baino buruen buruko zeran gaizto-gaizto orrek, ezin esan alako beltza egin didazu ! Zure babesera eskari ta eskeko io dudan nerau arpegiz-arpegi ikusirik, lotsarren etzera utu donga

ori ! Bizia kendu didazu, iskiloak kenduta. Itzul izkidazu, eskean nakizu, itzul izkidazu, arren bai arren, otoitzean nauzu, enetxo. Zure gurasoen iainkoarren, ez idazu erauzi bizia !

Ene errukarri au ! Erantzunenik ere eztut onezkero, ta begiak ere bestekalderatzen dituzu, egundo ez itzultzekotan baitzengoen. Ateok ! lur-buruok ! basa-piztien lagunartea ! Arkaitz malkartuok ! nori esan, beste inor ezpaitzagut, zuei arnaska diotzuet, aurkez aurke oi baitzaituet, Akileu'ren semeak egin didan egitekoa ! Etxera eramango n'nula zin egin eta Troia'ra eramán narama ! Sinispera eskubia luzatu ta mun eginda artzeko nere iskiloak iasorik, — Tzeu'rengandiko Erakel' enak baitira — beretzakotu egin ditu ta Arkeukumeei aurkeztu nai dizkie. Gizon zangarra bainintzan atzeman eta gogorrean eramán narama, ildako bat, edo, kearen itzala, iduria besterik ez dana sarraskitzen dula iakiteke. Onik egon izan ba'nintz, orrelako ziririk etzidan sartuko, ez orixe, ezta na-goenetan egonda ere, azpikeriz izan ezik. Adarra iota, aoa bete ortz-aginez utzi naute, onako errukarri au. Zer da egitea ! Itzul izkidazu ! Lengo aitorseme izateko garaian zaude oraindik ! Zer diozu ? Isilik egon zaude, ala ? Utsaren urrena nauzu, errukarri au ! Ate biko arkaitz dalako ori, zuregana berriz etorri natorkizu, iskilorik bage eta iatekorik bage : arpe ontan bakar bakarrik agortuko naiz larriarren ; aurrerantzean, égazti egalaririk, ezta basapiztirik ere eztitut egotziko ustai-gezi oiez : elikatzen ninutenen ianari gertatuko naiz ilda, ta len eizatzen nitunek nerau eizatuko naute orain : errukarri au ilik, ildakoaren zorrari erantzungo diot, eta dan ori gaitzen berririk etzula zirudinagaitik. Arren, ondatuko al zera ! oraindik ez baina, burubide ori aldatzen duzunentz iakin arte : ezezkoan, ilgo al zera gaizkin ori !

Abeslari-talde-burua'k. — Zer egin al dezakegu ? Zure esku duzu, iauna, gu itsasoz ioatea, ta onako onen esanei alki egitea.

Neoptolema'k. — Gizon au errukien dut oso, eta erruki au ez da atzokoa, aspaldidanikoa baizik.

Piloktete'k. — Erruki zakit, enetxo, iainkoarren ! ta gizakumeen artean ez iozu zure buruari lotsarik erakarri, nerau salduta gero.

Neoptolema'k. — Ene bada, zer egingo dut ? Eskir egundo ez nun utzik'zunik ona etorteko : oraingo estu ta larrialdietan lur jota nabil arrezkero.

Piloktete'k. — Etzera gaiztoa zu, izan : gizon gaiztoek, ordea, burutara eman dizkitzuen irakatsiz, galgarrietara io bide duzu : besteen gain utz ezazu ariketa ori, aiei baitagokie, ta zu itsasora zaite, neri iskiloak utzirik.

Neoptolema'k. — Zer egin dezakegu, gizonok ? (*Sostean Odiseu sartzen da, estu ta larri : bi lagun dakartzki*).

Odiseu'k. — Donga alen ori ! zer egiten ari zera ? Ustai-gezok neri emanda gero, ez al zera utikan ioango ?

Piloktete'k. — Ene bada ! nor ote da au ? Odiseu'ren mintzoa ez ote dut entzuten ?

Odiseu'k. — Odiseu'rena, noski ; orren iakitun egon ; begiz begi begiratzen duzun onako onena, alegia.

Piloktete'k. — Ene bada ! Saldua izan naiz ta nereak egin du ! auxe da, beraz, atzeman eta iskiloak ostu dizkidana.

Odiseu'k. — Nerau, iakinean egon, ez beste inor : dana aitor-tzen dizut, egia garbi esateko.

Piloktete'k. — Itzul, utz izkidazu iskilo oiek, enetxo !

Odiseu'k. — Nai ta ere, ori ezin egingo luke. Zerorrek ere oiekin batera etorri bearra duzu, bestela, azken beltzean, gogorrean eroango zaitute.

Piloktete'k. — Nerau gogorrean eroan oiek, gizagaizto-gaizto ta lotsabage ori ?

Odiseu'k. — Gogo bete betean ezpazentoz, beintzat.

Piloktete'k. — Lemno'ko lur ori, ta Epaista-k egindako su guzialtsu ori ! iasangarri ote dira oiek ? baitik bat, onako nerau zuengandik indarrean erauziko ba'ninu ?

Odiseu'k. — Tzeu da izan ere, iakinaren gainean egon zaitez-en, Tzeu lur onen iauna, Tzeu da erabaki au ontzat artu duna ; ni berriz, aren esanari lagun nagokio.

Piloktete'k. — Iguingarri-iguingarri orrek, nondik nora asma-tzen dituzu esateko oiek ? lainkoak erakutsiz aldeko, lainkoak berak gezurti ateratzen baitituzu.

Odiseu'k. — Ez orixe, egiti baizik ; eta bide au egin bear.

Piloktete'k. — Ezetz diotzut.

Odiseu'k. — Nik, berriz, baietz diotzut. Zerorrek benetara egon bear duzu gero, ori egiteko.

Piloktete'k. — Ene errukarri au ! Badakutsu : iopu izateko sorterazi ginun aitak, ta ez gure buruaren iabe izateko.

Odiseu'k. — Ez orixe, andiki andikien kide izateko baizik, oiekin zerorrek Troia atzeman eta indarrean soildu bear baituzu.

Piloktete'k. — Egundaino, naiz ta makur guzietan ito bear eta ito ezin, estu ta larri ibili bearra izan : inoiz ere ez, lur oni mendi erpin onen oinarriak eutsi bitartean, beintzat.

Odiseu'k. — Zer egiteko darabiltzu gogoan ?

Piloktete'k. — Beingoan, arkaitz onen goitik bera nere burua iaurti ta naizen au beko arkaitzetan birrindu.

Odiseu'k. — Lotu ezazue, ez-egitekoren bat eztezan egin.

Piloktete'k. — Ene eskuok, ustai laztanaren bear gorrian izaki, zipertu bear duzuen, gizon onek uzkaldua ! Burutara inoiz asmo on edo zindorik etorri etzaizun orrek, ziri ederra sartuta atzeman eta eizatu egin nauzu, ez-ezagun nun mutil au zure apeukotzat arturik ; zuretzat ezain eta neretzat aintzakoa izanarren, agindua besterik egiten etzekin : agerian iarten du orain, bere oker eginak eta nik iasanak saminki eramanez. Zure gogo makurrak, ordea, exkutu zear beti kirika egonik, bear eztana egiteko gai ez zanari ta orrelakorik nai ez zunari, okerretan burutsu izaten ongi erakutsi diozu. Ta orain, lotsabage orrek, izpazter ontatik nerau uzkaldua eramateko asmatzen diarduzu, len, ordea, bazter ontara egotzi ninuzun adiskiderik bage, soil-soilik, eta erri-rik bage, bizien artean ildako bat bezela. Ene bada ! Ortxe ondutuko al zera ! Amaikatxo bidar zuretzat auxe opa izan dut. lainkoek, ordea, gogozko zaidanik eztizute erabakitzen, eta zu bizi-rik eta eztitan zaude ; neri, berriz, eri-exurrak ianerazten d'izk'itate, eta zinagoak eta gorriagoak ikusi — arren, auxe zait mingarri-rik : zuretzat, eta esaneko zaizukuen Atereukume bi buruzagientzat parregarri naizela, alegia. Ta, zu, bestela-baitakoan eta azken-beltzean uztarturik, itsasoratu zinan aiekin batera ; nerau, berriz, txurtenean iotako onako au, gogoan gogara zazpi itsason-tziz itsasoratu nintzan itsas-gizon au egotzi ninuten, aiek zuk dio-

zunez, aien esanez ordea, zu omen zaitut errudun. Ta orain, zer dala-ta, eroaten nauzue ? Zertako naramazue ? Zeren esker onez ? Utsaren urrena izan, eta zuentzat ila nauzue aspaldidanik. Iainko-karats orrek ! Orain ez al nauzu erren, eta kirastua ? Nerau itsa-sontzian ioan-arren, iainkoei opariak erre ta ixuriketak egin al di-tzakezu ? Apuko auxe agertu baitzenun, andik alde ni iaurtiteko. Gaizki bai gaizki ilgo al zerate ! Onela gertatuko zaizue, onako gizon oni egindako zuzenbageagatik, iainkoek zuzenaren ardura-rik ba'dute, beintzat : baietzean nago, badakit. Alderantziz, etzi-nakean itsasoz ibiliko gizon errukarri bat dala ta eztala, iainkotiar akuluren bat zirikagarri izan ezpazeneza nere galde etorteko. Ene gurasoen lur eta dana dakuskezuen iainko oiek ! Zigorkatu, zi-gorkatu itzazue guziok, berandu bada ere, nerekiko erruki-izpirik ba'zenezate, beintzat. Errukarri bizi naiz, noski, oiek, ordea, lur-iota ta ilda ikusiko ba'nitu, nere eritasunez sendatua nindeke, nere ustean.

Abeslari-taldea'k. — lasangaitza da, benetan, arrotz au, ta egari ezin alako itzak berarenak, Odiseu, ta makur oietan txil egiteko antzik eztu ematen.

Odiseu'k. — Egokitzen izango ba'nu, amaika esakizun izan-go nituke : itz bakar bat aski izango dut, ordea. Izan ere, bearre-koan, onelakoxea nauzu ni, izan ere. Itzeko gizon zuzen eta onen norgeiagoka dadinean, ni baino gizon iainkozaleagorik etzenezake arkitu. Alare, zutzaz ez, beste guzietan nere burua garaile atera bearreko gizona nauzu, ain zuzen : zuri, berriz, nere oldez alki egingo dizut. Utz ezazue, beraz, ta ez ukitu : bere gain bego, dagoak egiten. Zure bearrik ezpaitugu, izan, iskilo oiek gure esku izaki. Gure arteko dugu Teuker, ontarako autsak baitauzka (50) onek : ona emen nerau ere, ontan zu baino txarragoa ez naizen onako au, alegia, ustaia erabili ta adoziaz egozten. Zertako bear zaitugu, beraz ? Agur ! or gelditu zaitez, Lemno au ostikatuz : gu, berriz, goazen. Zure izan bear zukean andizurena (51), laster nere ospe gertatuko da.

Pilokete'k. — Ene errukarri au ! zer egingo dut gaixo onek ?

(50) *Autsak euki* = asko iakin.

(51) *Andizurena* = omen, ospe, entzute.

eta zu azalak artu ezinik (52), Argeu'tarren aurrean aurkeztuko ote zera, nere iskiloz ederturik ?

Odiseu'k. — Ez idazu ezer erantzun, arean, ioan bainoa.

Piloktete'k. — Akileu'ren seme ori, zure mintzoz nerau agurtua izateke, onela al zoaz ?

Odiseu'k. (*Neoptolema'ri*). — Bideari ekiozu ekin ! Ez begiratu : onegia izanik, gure zoria alperrik galdu ez dezakiguzun.

Piloktete'k. (*Abeslari-taldeko itsas-gizonei*). — Zuek ere alde egin bearra izango al duzue, ni bakar-bakarrik utzita ? n'zaz errukirik ez al duzue ?

Abeslari-talde-burua'k. — Gazte au dugu gure itsas-ontzi nagusi : berak esan lezakizukena, guk ere berorixe genizuke esateko.

Neoptolema'k. — Errukiz betea naizela-ta, entzungo dut entzutekoa onengandik : ala guztiz ere, emen gelditu zaitezketekete, gaixo onek ala nai ba'lu, beintzat, itsasontziko itsas-gizonek ornitu, ta iankoei guk eskariak egin arteino : berorrek, bitartean, guruganako asmo onezkoagoa ar lezake, bear bada. (*Odiseu'ri*). Zu ta biok goazen. (*Abeslari-taldeko itsas-gizonei*). Zuek, berriz, guk ots egin-ala, etorri arin-bai-arin !

ABESLARI-TALDEAREN TA PILOKTETE'REN ARTEKO ERESIA

Piloktete'k. — *Oi, arkaitz barneko arpe bero ta izoztu ori ! Beraz, egundaino etzinudan bertan bera uztekoa, il-zorian lagun egingo didazu, ordea, gaixo oni. Ene bada ! Ene ! Nere atsekabe minez gainezka zauden etxola ori, egunean eguneko zer izango zait ? nondik nora atera al izango dut elikaren arreta ustetik ? Asnas-oska larrian, ortzi goietatik egazti arrapariak oldartuko zazkit, adorerik ezpaitut.*

Abeslari-taldea'k. — *Begi txarrak iola zauden orrek, zerorrek aintzakotzat erabaki baituzu, noski, ez beste inongo zori gogoragoak : zugar izan zenezakean-arren, zori obearen orde txarrena zureganatzea onartu baituzu.*

(52) *Azalak artu ezinik* = arroputz.

Piloktete`k. — Ene errukarri - errukarria ! atsekabeak txurte-
nean iota nagon au ! gaurgero inorekin egoteke, gizonengandik
urrun bizi bearrez, emen bertan ilgo naiz, ene bada ! ene bada !
iatekorik ere irixteke, nere esku zaintsuz gezi egadunak eutsi ezi-
nik ! Baina, uste ezin alako itz zuriek, azpikeriz uxarka uxarka,
ziri ederra sartu didate : olakokerioak asmatu dituna, aldi berdi-
nean nere elorrio ta lor oiek beretzakoturik, ikusiko al nuke !

Abeslari-taldea`k. — Alabear gorri au iainkoen batek era-
bakia dizu ; nere esku-lanen azerikeriak, beintzat, etzaitu atze-
man : inoren lepoetara itzazu, beraz, birao ikaragarri ta ainen
galgarriok. Gure adiskidetasuna — gogokoan baitut — etzazula
utikan alderatu.

Piloktete`k. — Ene bada ! ene bada ! Nere bizirako ianaria
ekarten zidana eskuz dardarizatur — oraindino inork eskutandu
bagea —, itsaso urdinaren izpazter ondar-piloan eserita, nonbait,
nere lepotik parrez ari zait. Ene ustai laztana, esku laztan oietatik
indarrean erauzitako ustai ori ! errukitan urtuta zaude nonbait,
adimenik ba`zeneza, beintzat, Erakel`aren laguna onela txurte-
nean iola, aurrerantzean zerau erabilteko ezindurik ikustean !
Zerau, berriz, masti-aitzurlari (53) baten eskuetara aldatuta, gi-
zon orrek dardaraz erabilirik, azerikeri ezainak ikusiz, gizon iguin-
garri itzala, alegia, bezkeriz ainbatu ezin alako buruauste eraori
dituna, inork gure aurka azpika asmatu ditun gaitz-ala, asmatu
ere.

Abeslari-taldea`k. — Gizonarena bakarrarena da, noski, zu-
zen eta bide dana esatea ; esanak esan, ordea, baita bekaizkeriz
ao beteko esanak ez esatea ere. Ark, berriz, guzien arteko agin-
duz, bakarra aukeratua izaki, adiskideei agizko ona ekarri die.

Piloktete`k. — Bazter eta mendiotan larratzen zeraten eizaki
egalari ta basapizti begi dirdaitsuok, nere arpetik igesari ez eman
onezkero, lengo gezi-indarraren eskuarterik ezpaitaukat nere esku-
etan. Ene errukarria ! Bere gain utzia da bazter au, etzaizue bil-
durgarri izango dagoneko. Atozte, narrioz iositako nere aragiz,
naierara aoa asebeteteko apenaldi ederra duzue oraintxe. Gezu
baten nereak egin du ; nondik nora atera dezaket bizi-bearra ?

(53) Masti-aitzurlari = nahas-makil, nastutzaile.

Lur bizigarriak dakarrenaz ere iabetu ezinik, egurats ulsez nor elikatu al daite ?

Abeslari-talde-burua 'k. — Iainkoarren, erabateko ongi-nairik onenaz urreratzen zaizun arrotzarengana urreratu zaitez zu berebat, aintzat artu ba'zeneza, beintzat. Iakinaren gainean egon zaitez, ordea : zure gaitz au itzurten ongi iakitea zure gain dago : ez-iaquinean aleun atsekabez bizitzen egotea, errukirenak larraztea bait-da.

Piloktete 'k. — Ostera ! zauri zarra berriz burutara ekarten didazu, len ere bertaratuen artean bikainen zeran orrek ! Zergatik ondatu-arazten nauzu ? Zer dala-ta, ortara eragiten didazu ?

Abeslari-taldea 'k. — Ori zergatik diostazu ?

Piloktete 'k. — Troia lurralde gorrotogarrira nerau eroateko ustetan balin ba'zaude.

Abeslari-taldea 'k. — Orixo uste dut egokien.

Piloktete 'k. — Berbertatik utz nazazue onezkeru.

Abeslari-taldea 'k. — Egiteko adieraztera ematen didazuna lastana dut, benetan, eta gogoz egin ere. Goazen, goazen itsasontzian ezarrita dugun aldera (loatekoa egiten dute).

Piloktete 'k. — Ez, eskariaren Tzeu'ren izenean, etzaitez ioan, arren bai arren eskatzen dizut.

Abeslari-taldea 'k. — Zure buruaz iabe zaite.

Piloktete 'k. — Arrotzok ! geldi zaitezte, iainkoarren !

Abeslari-taldea 'k. — Zeri dira garraxioak ?

Piloktete 'k. — Ai ! ai ! au alabearra ! nereak egin du ! errukarria ! Oin, oin au ! Zer egingo dizut emendik aurrera nere bizia-aren enparauan ? Arrotzok, berriro itzulirik atozte !

Abeslari-taldea 'k. — Lengo asmoaren iruntzietara eginaz, zer adieraztera ematen diguzu ?

Piloktete 'k. — Negu gorria bezain atsekabe itzalak erauntsita, ez-esatekoren bat oiu egitea, ez da, noski, errudun izatea.

Abeslari-taldea 'k. — Orain bideari ekin, ba, errukarri orrek, guk agindu bezala.

Piloktete 'k. — Egundaino, inola ere ez ! Onen iakitun egon, gotorrik baitago : ostosketa-inusturi artean tximista-urtika Tzeu sudunak nerau kiskaldu al ba'nintza ere, ezetz ta ezetz. Lur-io

bezate Ilion'ek eta aren bean nere oin-lokazurra urruneraztea iasan zutenak orobat. Alare, arrotzok, eskakizun bakar bat idazue.

Abeslari-taldea'k. — *Zein esanen esango diguzu ?*

Piloktete'k. — *Ezpataren bat, or ba'litz, edo aizkora bat, edo geziren bat iaurti idakezue.*

Abeslari-taldea'k. — *Ez-egitekoren bat egin dezazun ala ?*

Piloktete'k. — *Nere eskuz burua ta lokazur guztiak mozteko : sarraskia, sarraskia lazta dut, orra nere gogoa.*

Abeslari-taldea'k. — *Zertako ?*

Piloktete'k. — *Aita bilatzeko.*

Abeslari-taldea'k. — *Nontsu ?*

Piloktete'k. — *Ade baitan : bizirik ezpaitago onezkeror. Ene erri ori ! ene arbasoen erri ori ! ikusi al ba'zintzat neronek, txurtenean iotako gizon onek ! Zure iturriko ur gurena utzirik, Danaotar gaitzelsion laguntzaile etorri nintzan. Arrezkeror, izan ere ez naiz (Arpera egiten du ta datozenak ez ditu aditzen).*

IRTEERA

Abeslari-talde-burua'k. — Odiseu ta Akileu'ren semea gureganantz urbilean datoxtela ikusi izan ezpanitu, ni ere ontzira urreratua izango nintzakean aspaldidanik, zerau bertan bera utzita.

(Ustaia dakarrela Neoptolema atxintxika dator, atzean Odiseu datorrela.)

Odiseu'k (Neoptolema'ri). — Bidez itzulita, zertarako onen arin larriarren berriro zatozten ez al dezakidakezu esan ?

Neoptolema'k. — Lengo okerra zuzentzearren.

Odiseu'k. — Itz bitxia diozu, noski. Zein oker da ori ?

Neoptolema'k. — Zure ta gudalozte osoaren esanetara etorrita. . . .

Odiseu'k. — Adinon etzaizun zer egin ote duzu ?

Neoptolema'k. — Amarru ezainez ta ziri ederrez gizon bat atzeman dut.

Odiseu'k. — Nor ? Ostera ! asmo berriren bat auznarrean al darabiltzu ?

Neoptolema'k. — Berririk ez ; baina, Poianta'ren semeari...

Odiseu'k. — Zer egingo diozu ? Bildurra linburtuz ari zait.

Neoptolema'k. — Neronek iskilo oiek arrapatu dizkiot, bai, ta oraintxe bertan, berriro...

Odiseu'k. — Ene Tzeu ! zer esateko zera ? itzuli nai ote dizkiozu, nonbait ?

Neoptolema'k. — Bai, iruzurrez ta zuzenbagez eskuranduz neretu baititut.

Odiseu'k. — Iainkoarren, istaz nere lepotik parre egitearren ote diozu ?

Neoptolema'k. — Bai, egia esatea, inakaz inoren lepotik parre egitea ba'litz.

Odiseu'k. — Zer diozu Akileu'ren seme orrek ? Zer esan duzu ?

Neoptolema'k. — Lengo esana neronek birritan eta irutan berriz esatea nai al zenuke ?

Odiseu'k. — Bein ere entzuterik ez nizukean nai.

Neoptolema'k. — Orren iakitun egon, ba, esana entzuna baituzu.

Odiseu'k. — Bada urlia, izan, egitea eragotziko dizuna bea-rik.

Neoptolema'k. — Zer diozu ? Nor dugu nerau alderatuko naun ori ?

Odiseu'k. — Akeu'tar erri osoa, ta oien artean, nerau lenen.

Neoptolema'k. — Izatez burutsua zeran arren, itz zugurrik eztiozu.

Odiseu'k. — Zuk, berriz, ez esan, ezta zure egingoetan ere, eztuzu zure burua agertzen zugur.

Neoptolema'k. — Zuzenak balin ba'dira, ordea, obe ditut zugurak baino.

Odiseu'k. — Nere naieraz arrapatutako iskiloak berriz itzul-
tzean, nola dateke zuzenbide ?

Neoptolema'k. — Makurkeri ezaina egin nun, bai, ta gar-
bitzeko aleginak egingo ditut.

Odiseu'k. — Orrela eginda, ez al zera Akeu'tar gudaloz-
tearen bildur ?

Neoptolema'k. — Zuzenbidea nere alde, zure bildurak ez nau izutzen.

Odiseu'k. — *v-v-v-v-v-v-*

Neoptolema'k. — Baina, zure ukabilak egitera ez nau ekarriko.

Odiseu'k. — Troia'ren aurka ez, baina zure aurka ari izango gera guduka, arrezkero.

Neoptolema'k. — Egingoa egizue.

Odiseu'k. — Ezpata-eskutokian eskubia eskuztatuz ez al nakuzu ?

Neoptolema'k. — Zuk berebat begira : berberaxe egiten ere nerau ikusiko nauzu ikusi ta eztut luzatuko, onezkero.

Odiseu'k. — Or uzten zaitut. Ioan eta gauzok gudari-talde osoari aditzera emango dizkiot : berak ezarriko dizu zigorra, alegia.

Neoptolema'k. — Onik asmatu duzu. Gainerontzean beti orren burutsu ari izan ba'zina, zure burua negar egin bearretik alde ikusiko zenukean.

Zu, berriz, Poianta'ren seme ori, Piloktete, ots, atera zaituz, aitezko aterpe ori utzita !

Piloktete'k. (*Arpetik atera egiten da*). — Zer mazamorra-ots darabiltzue emen arpe ondoan ? Zergatik deitzen nauzue atera ? Zeren eskez zaudete, arrotzok ? Eup ! eup ! egiteko txarra ! Lengozoritzarrak nora eztirala, lor berriak ekarriz al zatozte ?

Neoptolema'k. — Biotz on ! esatera natorkizun itzok entzun izkidazu, otoi !

Piloktete'k. — Bildur-ikara nauzu : len ere, zure esanetara etortearren, itz ederrez zoritzarreko gertatu bainaiz.

Neoptolema'k. — Damukizunik ezin ote diteke, ala ?

Piloktete'k. — Onelakoxea zinan itzetan, iskiloak ostu zenizkidanean, sinisgarri, alegia, bestelakoa, ordea, azpitik.

Neoptolema'k. — Orain, ordea, ez. Auxe baina, entzun nai nuke zugandik : emen gelditzeko erabakian iraunkor zauden, ala, itsasoz gurekin etorri zatoztenentz, alegia.

Piloktete'k. — Gel, murtik ez egin areago : zuk esan-ala esan-arren, alperrik esanak bailirake.

Neoptolema'k. — Ortan daragoiozu ?

Piloktete'k. — Nik esan-ala baino areago, ain zuzen : iakinaren gainean egon zaite.

Neoptolema'k. — Nere itzak onartzera zerau ekarri nai zinu-kean, egia esateko : baina mugonez ezer ere ezpadut esan, isildu egingo naiz.

Piloktete'k. — Zure esanak oro alperrik esanak lirake, gezurak irtengo baitizu. Txori errea etortiko zaizu aora, iruzurrez biziã kendu didazun ezkerok. Orain, berriz, aolkuak burutara ekarriz etorri zatoz, aita andienaren seme gaitzetsien ori ! Ilgo al zerate, Atereukumeok lenik, eta Laerti'ren semea ta zerau, gero !

Neoptolema'k. — Birao-urtika iardunean buka ezazu : orra zure iskiloak, nere eskuetatik ar itzazu.

Piloktete'k. — Nola diozu ? bigarrenez iruzurtara ekarriko al gaituzu ?

Neoptolema'k. — Ezetz, zin egiten dizut, goi-goiengo Tzeu gurenaren izenean.

Piloktete'k. — Laztan-laztanak esaten dituzun ori, egia ba' diozu, beintzat.

Neoptolema'k. — Egiteak agerian daude : aurrera ekarri eskubia, ta tori zure iskiloak.

Odiseu'k (sostean sartuz). — Nik, ordea, eragotzi egiten diot, iainkoek lekuko, Atereu'tar eta gudari-talde osoaren izenean.

Piloktete'k. — Enetxo, noren mintzoa ote dantzut ? ez ote Odiseu'rena ?

Odiseu'k. — Orren iakitun egon zaite ; urrean ikusten nauzun onako au, alegia ; ta neronek andi-andirik indarrean igorriko zaitut Troia'ko ordekaraino, Akileu'ren semeak nai ta nai ez izan.

Piloktete'k. — Etzinake poztuko, noski, gezi au zuzen ioango ba'litz, beintzat.

Neoptolema'k. — (*Bion artean tartetuz*). Ez, inola ere ez, iainkoarren, alderatu ezazu gezia !

Piloktete'k. — Iainkoarren, askatu ezadazu eskua, seme laz-tan orrek !

(*Odiseu'k iges egiten du*)

Neoptolema'k. — Eztezaket.

Piloktete'k. — Ene bada ! nere ustai-geziz nere etsairik gori-riena garbitzen, zergatik eztidazu utzi ?

Neoptolema'k. — Etzitzaigun eder, ez zuri, ezta neri ere.

Piloktete'k. — Auxe beinik bein iakin ezazu : gudari-taldeko beinenak, Akeukume gezur-ontziok, alegia, burrukarako oilo, ta itz egiteko gizon irtenak dirala.

Neoptolema'k. — Demagun. Zure iskiloak, ordea, zure esku dauzkazu, ta nere aurkako aserrekizunik ezta elepiderik (54) ere ez bide dezakezu, onezkero.

Piloktete'k. — Zurekin bat nator ; gurasoen odolari dau-tsazu, erakutsi duzunez ; ez, baina, Sisipu aitarenari, Akileu're-nari baizik ; au bizien artean andikien ederretsia izan baitzan, ta orain ilen artean berebat.

Neoptolema'k. — Nere aita ta nerau goretsiz, gogo-betegar-riak aditu dizkitzut bearrik : zuregandik iritxi irrikaz nai nuke-ana, entzun, ordea. Iainkoek leporatzen dizkiguten lorrak, nora ezean eroan egin bear ditugu gizakumeok oro : soin bat lor (55) beren baitarik daroatenek, berriz, zuk bezela, ez dira barkaki-zun, ezta urrikalkizun ere, zuzen eta bidez. Suminduz armin ego-ten (56) zera zerau, ta aolkurik eztuzu onartzen : onginaiak era-ginda, zer-edo-zer esanik, norbaitek oartaraziko ba'lizu, ezker-reko begiz begiratuko zenuke, etsai gorritzat arturik. Alare, itz egingo dizut nik neronek, Tzeu lekuko ezarririk : iakinaren gai-nean egon eta gogo barnean iosi ezazu : zerau saminarazten zaitun gaitz au iainkotiar alabearrak eraginda gerta zitzaizun, Ki-ri-se zainarengana urbildu zinalako, alegia, agiriko esparru gure-nean kukuturik bizi dan suge atzarria zaitzen dunarengana, ain zuzen. Iakinaren gainean egon zaite, ots, eguzkia emendik sortu ta andik sartu dedino, zure eritasun aztunaren aterraldirik etzai-zu gertaraziko, zerau zure oldez Troia'ko zelaietara ioan, gure

(54) *Elepide* = ele-bide, zer esan.

(55) *Soin bat lor* = lor-zama.

(56) *Armin egon* = larri egon, estu egon, lur-iota egon.

arteko, Asklepidarrak (57) arkitu, ta gaitz ori gozatu-ala, iskilo oiez ta nerekin gaztelua soilduz andi-andirik agertu baino len.

Nondik nora iakin dudan ori esango dizut, alegia. Badugu atxiloturik Troia'ko gizon bat, ots, Eleno azti bikain-bikaina : dana onela gertarazi bear dula esan du argi ta garbi. Areago oraïndik : uda urrenean Troia osoaz iabetu egingo gerala alaberrak erabakia omen da. Berak esana gezurra ba'ledi, bera ilteko gerturik legoke. Oiek iakinaren gainean zauden ezkeronaiarren etsi ezazu. Eskuratze berri au ederra baituzu, noski, Elendarren artean beinena aukeratua izaki, esku osasungarrietara eldu, ta Troia oinazetsuaz iabetuta gero, osperik gorengoena irixtea, alegia.

Pi'oktete'k. — Oi bizi-bearraren iguin orrek, zergatik naukazu begiak zabalik emen goian eta Ade'ra ioaten ez nauzu uzten onezkero ? Ene bada ! zer egingo dut ? Onenbesteko onginaiatz aolkatzen naun esanei nolatan ez sinetsi ? Txil egingo ote dut, beraz ? Ta ori eginda gero, nola argitara agertu errukarri au ? nori itz egin dezaioket ? Nere baranoko dana ikusten duzuen begiok ! lur io eragin didaten Atereukume guziekin nerau ar-emanka ikustea iasan al ditzakezue ? nola Laerti'ren seme galgarriarekin ? loandako gaitzak nora eztirala, auxe dut mingarrien : oraïndik oiengandik gorriak iasan bearra aldezaurre ikusi-iduri izatea, alegia : gogoa makurkerien ama gertarazten zaienek, gainerakoan ere makurrak azten ditue.

Ta zure onek nerau arriturik nauka : inoiz Troia'ra zerorrek ta biok ioaterik eragotzi egin bear baitzenuke, aitaren eskerakutsia kenduz, iraindu zinuten ezkeron : oiekin alkartuta gudu lagun egin nai al diezu ta ortarakoxe ni ere beartu ? Ez orixe, enetxo, alabaina, agindu didazunez, etxera igorri nazazu ; eta zerau Eskir'en gelditurik, utz itzazu makurrok makur ondatu ditezana. Ta onela, nigandiko esker bikoitza irabaziko duzu, baita aitarengandik ere ; ta gaiztoei lagun eginik gaiztoen kide zeranik eztute uste izango.

(57) *Asklepidarrak*, Makaon eta Polidara, alegia, Asklepio'ren semeak.

Neoptolema'k. — Izpidean zaude, noski. Alare, lainkoen ta nere esanetara etorrita, adiskide duzun gizon onekin lurralde ontatik itsasora zerorrek egitea nai nuke.

Piloktete'k. — Zer ? Troia'ko zelaietara ta Atereu'ren seme-rik gorrotogarriarengana oin errukarri onez nerau aurkeztu ?

Neoptolema'k. — Zure oin zornatuaren mina kenduko di-
zuengana ta gaitzetik onik eta bizirik aterako zaituengana, alegia.

Piloktete'k. — Aolku arrigarria ematen didazun orrek, zer diozu ?

Neoptolema'k. — Zuri ta bioi bikainen gertatuko zaiguna, egin ezkerro, eskuko beatzak bezain eskier.

Piloktete'k. — Ta itzok esanik, iainkoen aurrean lotsaren lotsez ez al zera gorritzen ?

Neoptolema'k. — Lagungarriarena eginik, inor lotsatu al daite ?

Piloktete'k. — Atereu'tarren ala nere onerakoa diozu ?

Neoptolema'k. — Zuretzakoa, noski, adiskideari dagokiona baituzu nere esana.

Piloktete'k. — Nola, ordea, etsaienganatu nai nauzu ?

Neoptolema'k. — Adiskide orrek ! gaitzetan nabarbenez ez ari izaten ikasi ezazu.

Piloktete'k. — Ezagun zaitut ezagun, itzok, ordea, ilgo naute.

Neoptolema'k. — Nik neronek ez, beintzat ; zuk eztakizula diotzut, ordea.

Piloktete'k. — Ona iaurti ninutenak Atereu'tarrak izan zirala nik eztakidala ?

Neoptolema'k. — Iaurti ba'zinuten, iaurti zinuten ; orain, berriz, iaregin nai zaituten begira.

Piloktete'k. — Troia ikusteko egundaino ez, nere baitarik beintzat.

Neoptolema'k. — Esan-alak esan-arren, gure esanetara zu ekarterik ezin ba'dugu, zer besterik egin dezakegu ? Errezena li-
tzaidake itzok eten, eta zerau osasunik bage, bizi izan zinanez bizi izaten uztea.

Piloktete'k. — Utz nazazu zipert ikusten, zipert ikusi bear

ba'dut. Nere eskubia ikututa agindu zenidana, ordea, etxera bidaltzea, alegia, bete ezadazu, enetxo, ta etzazu atzera egin, ezta Troia'renik oroiterazi ere. Zinkuririk naikoa egina dizut, ori dala-ta.

Neoptolema'k. — Ba'deritzazu, goazen !

Piloktete'k. — Esan didazun itzaren andia !

Neoptolema'k. — larri, ba, zure oinok ibilteko.

Piloktete'k. — Al dezakedan ginoan, beintzat.

Neoptolema'k. — Akeu'tarren salakizuna, ordea, nola txuliatuko dizut ?

Piloktete'k. — Etzaite artegatu.

Neoptolema'k. — Nere errialdeari lur io-eragitera etorri ba'letoz, zer, ordea ?

Piloktete'k. — Nerau aldean egonik...

Neoptolema'k. — Zer alderdi emango didazu, ba ?

Piloktete'k. — Erakel'aren geziz...

Neoptolema'k. — Nola diozu ?

Piloktete'k. — ... urreratzen eragotziko diet.

Neoptolema'k. — Lur oni mun eginda, aurrera, ba !

Erakel'ek. — (*Arpetik irten eta ordeka goienetik itz egiten du Erakel'ek*). Oraindik ez, ordea, Poianta'ren seme ori, gure esanok aditu arte, beintzat. Zure belarriz Erakel'aren mintzoa entzun eta aren begikera ikusten duzula esatea daukazu. Ortziko egoitza utzirik, zure ederragatik natorkizu ta Tzeu'ren burubi-deak zuri adierazirik, ekin diozun bidean geldi-arazteko. Zuk, ba nere esanok adi-adi entzun itzazu. Ta aurrenik, ortik-emetiko nere zoriketak oroiteraziko dizkitzut ; ainbeste iasan, eta nekeak aldean beste igarorik, adore il-ezina daukat, ikusi nazakezunez. Orretxen zain zaude zu ere, begia bezelaxe (58), iakinean egon : ueke oien ondoren, andizuren-bizia aintzat artzea, alegia. Troia'ko gatzelura orrako gizon orrekin ioanda, gaitz nekagarri ortaz gozatu ta osatuko zera lenik ; eta zure adorez gudari-taldeko bei-

(58) *Begia bezelaxe* = ziur egon.

nen aukeratua izanik, gaitz guzion errudun dan Paris'i nere gezi oiez bizia kendurik, Troia suntsituko duzu, gero. Ta etsaiari artuak — gudari taldeko bikainenak, — etxera igorriko dituzu, Poianta aitari, arbasoen Oite'ko zelaira, alegia ; ta zerorrek gudari-taldeko etsaiari artuak, nere iskiloen oroigarritzat nere oparrietara eramán itzazu. Akileu'ren seme orri, zuri ere aolkuok ematen dizkitzut : zuk, ba au bage, Troia'ko zelaiaz ezin baitezakezu iabetu, ta onek ere ez zu bage. Alabaina, leoi ugazkideak bezala, alkar zaindu bear duzue, zuk au ta onek zu. Asklepico, berriz, Ilión'a neronek bidaliko dizut, gaitza sendatu dezakizun : Troia'z iabetu bear dutenek, bigarrenez, nere iskiloz egingo dute. Auxe gogoan euki, ordea : lurra suntsi duzueneko, iainkoekikoak iau-resteko oroitu : beste gainerontzekoak bigarrenekotzat dauzka Tzeu'k ; iainkoekiko itzala ezpaita ilten gizakumeekin batera : bizitan nai ilik izan, ez da bera galtzen.

Piloktete'k. — *Oi bialtzen didazun mintzo opagarria ta berankor agertua ! Zure esanoj sinisgogor ezin nañie izan.*

Neoptolema'k. — *Nere erabakia berebat orixe da.*

Erakel'ek. — *Ez zaitezte izan berankor egiteko, onezkero ; giro ta itsasaroak txopa-aldeñk eragiten baitizue (Erakel lekutu egiten da).*

Piloktete'k. — *Ots, orain, ioan noala, lurralde au agurtuko dut. Agur, lagun zaitudan arpe ori ! ta uretan bizi zeralen ninfa soloi oiek ! eta itsasoaren dunbots mando ori ! ta barnean eskutatuko nere burua maiz ego-aize ukaldiz busti eragiten ninduzu lur-mutur ori, ta neri, ekaizpean nengon oni, nere oiuañen zinkurin-arribizia birritzultze zenidan Erme'ren mendi ori, agur ! Liki'ko edari ta iturriak or uzten zaituztegu, ustez uste bage baikoaz. Agur, Lemno'ko lurralde ori, itsasoak inguratua ! ta itsasaroñ ta gogoerara igorri nazazu, alabear andiak eta adiskideen erabakia eta erabateko lainko ezleak naraman alderaino, orrek burutu baititu gauza oiek.*

Abeslari-taldea'k. — *Goazen guziok taldean, itsasoko ninfaei arren bai arren eskaturik, osteraren iareigile el ditezan !*

Amaia.

Zenbait itz azalgarri

A

- Abarrakitu* : txiki-txiki egin (AN, G-and, R-uzt).
Abazuzaka : kazkabarra bezain arin (AN, B-a-o-tx, G).
Abetaldu : laztanez artu, abegi ona egin, atotsi.
Adar-abere : adardun abere.
Adar-makats : adarkatx, adar-okar (B, BN-s, L, R).
Adar-sarde : corniveleto, de cuernos levantados (B-i).
Adats-txerlo : buruko ilea (B, BNc, Sc).
Adei : gizon-lege (BN-baig).
Adiakatu : erosta egin, mindurikatu (G).
Aier : ez-esaneko, gorbizi (AN-b, L, BN, S).
Aieru : zaioak eman, antz eman, conjeturar (L, Ax.).
Ainitz esnetako gaztai izan : eltze askotako burduntzalia, entre-
metido (R).
Aiotz : maketz, ezpata txiki (Bc., G-goi).
Aitaren urak euki : aitaren antzeko izan (B).
Aitzak bakarrik entzutekoa : gauza gogor eta ez ustekoa entzun
(B-derio).
Aitzak dantzutela : aitzak entzun dezatela, ez orrelakorik esan
(B-mu).
Aiurri : ariurri : carácter (AN-oy, G-ber).
Aizu : z'legi izan (BNc, L, S).
Akar : agiraka egin (AN-elk, BN-s, R).
Akuran artu : alogerean artu, eraenez artu : tomar en arriendo
(BN-baig).
Ala-iainkoka : zin-urtika, zin egotzika.
Alaka : minez (AN, Bc).
Alaz egin : arrantzu-tokian txalupak tinkatzea, berez : ortik,
gudariak erribaten baranoan gelditzea, eraso ta porroka-
tzeko : acampar, asediar (B, G).
Albetan : asnaska, atsandika, arnas-estuka (G-and, B-m-otx).
Aldartez : oldez, umorez (AN-b, B, G, L-ain, R).
Aldaskatu : motatu, muskildu (AN-b).

- Aldera egin* : itzuri, bota, atzeka egin (B, G, AN).
- Alderdia euki* : laguntza izan (G-orm).
- Alderrai* : an-emenka ibili, an gozo, emen gozo ibili : errante, nómada (B).
- Aleka* : akats, eten noku, uts (Azkue, Euskalerriaren Yakintza).
- Al eta ezin* : indarrean, besterik ezean (R).
- Aleun* : zireunka, amaika, makina bat (Orixe).
- Alki izan* : artara iarri, etsi (G-and).
- Aillara* : koroï.
- Andi-andirik* : dena den, personalki (Bc).
- Anteak egin* : antolak egin (G-and).
- Aobetean* : argi ta garbi, bete-betea (B).
- Aoko* : sarrantxa, balazta, frenu.
- Aopizar* : aobizar (BN, L, S, G-and)
- Aozkara* : ao gaiztoko (Azkue, Euskalerriaren Yakintza).
- Aotik atera didazu* : esatekoa asmatu didazu (B-l-mu).
- Aparabear* : iobear, igarri bear, infalible (B-g-mu-tx).
- Apentzaile* : vengador (G).
- Ar-emanka ari* : artu-emanka iardun (B, BN, L).
- Ari-arian egon* : gertu-gertuan egon : estar a punto de (B, Altube).
- Ari-arikoa* : bete-betekoa (B-tx).
- Arinak arin* : arineketan, antxintxika (B-mu).
- Arrainari igerika erakusten* : inozekeriak esaten edo egiten, noctuam Athenas doces : mosoiloari Atenai erakusten, latindarrek ziotenez (L).
- Arri ta makila erabili* : inozo bailitzan norbaiti lan eragin (AN-Araiz : Intza).
- Arriabar* : zoritxar (AN, Bc, G).
- Arte-edatzaile* : lakirioak exkutuan ezarten dituna (AN-b-lez, BNc, L).
- Artitz* : arriko itz : inscripcion (Oih).
- Artzaia makoarekin* : Otseme izarpilo : Ostorga-izarpilo (R-uzt).
- Asikin* : asierako igali (B).
- Astandu* : egotzi, utzi (BN, L).
- Ataizean* : lorratzean, kuzkuzka.
- Ateman* : oartu, konturatu (AN-b).

- Atingabe* : bizitzarteko gora-beretan ez-ikasia edo ez-oitua (S).
Atotsi : gizabidez artu, adeiz artu (G, Lard.).
Atsegin-bitsetan : poz-pozik (B).
Atze : etxeko ez dana, arrotz, bage (G).
Atzendu : aztu (AN-b-elk-goiz, G-al).
Atzera mardo egin : azkenerako indarrak gorde (B-l-tx).
Atxilo-talde : lotu-talde (B-on).
Atzindu : ezabatu, ezeztu (B).
Auen : aiene, ezpa (G, L, BN).
Auendatu : mindurutu, espatu, lamentar (L).
Aurkintza : alde, lurralde, eskualde (L).
Aurpetik pot eman : esku-azpiz musu egin : pozarren (BN-am).
Ausi osoak : zoriaren goraberak (B, G).
Auteman : aztertu, oartu (BNc, L, S, R).
Autsak batu : burrukan egin (B-on).
Ausiabartz : lur-iotzea (G).
Autsi-mautsi egin : acomodo, transaccion o convenio (BN, L).
Auzka : burrukan (B).
Azalak artu ezinik : arroputz (Azkue).
Azkarri : aztugarri, lenitivo (Kardaberaz, B-a-d-o-tx, G).
Azka-puzka : aleginka, lerrenak eginka (G, Arrue).
Azterrenak artu : ikusmiatu, ikertu (B).



B

- Bagetu* : kendu (B, G, R, BN-s).
Bagitu : astun egokitu, astun etorri, astundu, berankor gertatu
 (B-arrasate, oñ. G-azp).
Bahi : bahitu : prenda, garantia (AN, B, G).
Baikoz : ala : a luego de (BN-s, R).
Baikuntza : embargo, prendamiento (AN, L, G-and).
Bala-bala ibili : aoz-ao erabili (B).
Balbe : erio nor eginik (B-a-ber-o-tx-urd).

- Balditu* : arrituta gelditu (Duvoisin).
- Bapikatu* : bat bikatu : exagerar (BN-haz).
- Baranoan* (S, itzumela) : inguruan.
- Barrandari* : salatari, espia, centinela (AN-b).
- Bat-bederak* : bakoitzak (BN, R-uzt)
- Batekoitz* : bateko, simple (Altube, Arrasate).
- Bat etorri* : avenirse, concordar (G).
- Bat io* : reducirse a lo mismo, resolverse en lo mismo (Bc, Gc, Lc).
- Bat zein bat* : bata naiz bestea (B-mu).
- Begia bezelaxe* : seguru, segurki, ziur-ziur (B-I).
- Begia itxekei* : adi egon (R-uzt).
- Begi argia egin* : begi zuriak egin, mirar con agrado (G, B, L-ain).
- Begi-ezurra bezain maite izan* : maite-minez maite izan, zoroki maitatu (BN).
- Begi-bete ezkerro* : aiztian (B-I-mu-tx).
- Begitan artu* : gorrotatu (AN-b, B, BN, G, L, R).
- Begioko fitsa* : barne-kexka (BN).
- Begi txarrak io* : zoritxarrak io (B-derio).
- Begiz io* : aukeratu (B, G).
- Bein bata eta bein bestea* : alternativamente (B).
- Beingoan* : bat-batean, bat-batera, itzetik ortzera (B).
- Bein ez bein* : inoiz ere ez (B).
- Bekoiki izan* : tener tupé (BN, Sal., S).
- Bekoiz beko* : arpegiz arpegi (Duv.).
- Beldur-lauorritan* : beldurrarren larri-larri eginda (Bc, AN-b).
- Beltza egin* : beltza sakatu, ziria sartu : enganar (B-arrasate).
- Beltzak entzun* : berri ilunak entzun (BN, L, S).
- Bere aldioko liskarra* : egundoko liskarra, liskar aundia (G-as-teasu).
- Bere baitarik* : bere gogoz, bere oldez (BN, L, R).
- Bere buruz* : bere kasa (B, BN).
- Beredin* : asko (AN, G, B).
- Berme* : garantia (BN, Lc, Sc).
- Bertan berako lanbide* : berezko lana (B-i).
- Bertatik bertara* : urren egon (G-t).
- Bestela-baitakoan* : ixilean, ezerian-baierian (Bc).

- Beti ta bete* : nai duzunez (B-lem).
Beztu : itsusitu, gerendu (G).
Bezusa : esku-erakutsi, opari, atsegin-sari (B-o).
Bidaide : bide-kide, bide-lagun (Oih.).
Bikonde : a duo, binaka, bi batera (B-bedia).
Bikun : bikoitz (Oih.).
Bilbatu : gertu, irazi (BNc, Sc).
Billur : lotailu, esteka, lokarri (AN-b, BNc, Lc, S).
Birloratu : liluratu (B-a-m-o-ond).
Birundan : inguruka (L, Larreg.).
Bost : *bai bost* : baita zera ere : norbaiti ezezko biribila emateko.
Bular-oskol : peto (Olabide).
Buru eman : gogor egin (B, G, S).
Burutara etorri : burutandu, otu, buruak eman, burura etorri
 (AN-lar-ziordia).
Burtzoratu : burua galdu (Duv.).
Buruz-buru : bekoz beko, aurrez aurre (BNc, S, L-côte).
Buruz gainetikō : norberaren indarren gainetiko (B-m, Gc).



D

- Darda gainean erabili* : parregarri erabili (B).
Deitoragarri : negargarri (BN, L).
Deitore : minduru, zinkulin (BN, L).
Deztera-arri : zorrozteko arri (B-otx, G-and-aya-ern-us).
Ditxo : kai (B-b).
Dixidu : eskainka, amenaza (L, Duv.).
Dordo : neke, lor, korapilo, durdu (B, Mog. Olab.).
Dundu : urdin (R-bid-uzt.).

E

- Eden* : ponzoña (B, An., Mog.).
Egingoa : egiteko dan zer-edo-zer (B-g-mu).
Egin zan zelaikoa : san se acabó (B-mu).
Egitekoa : egitekoren bat (Bc).
Egitsari : egin aundiren bat (B-mu).
Eguna bioa eta gaua betor : batera ez besterakoa, indiferente (B-mu).
Egun eta eguzki : beti, menderen mende (R-uzt.-Duv.).
Eguzki-alde : sortzalde (Bc).
Eguzki epeletakoa izan : mizke azia izan (G-astig).
Eioan mintzatu : eioan berba egin : itz asko egin (B-g).
El : eldu, socorro (L, S, BN).
Eleketan : izketan (BN-baig. L).
Elepide : elebide, zer esan (AN-b, L).
Elorrio : atsekabe (B-i-m-arrasate-mu-tx).
Eltzagortu : xortu, sogortu (G).
Ematu : emetu, bigundu, buperatu (AN, BN).
Endai : labe-pala, ortik arraun-pala (AN-b, G-bid-etx).
Endurtu : gutxitu, laburtu (BN-haz).
Engaraz : nekez, gogo txarrez, gogoaz bestera (Bc).
Enuxu-banuxu : ezmezean egon (AN-b).
Eraiki : iaso, eragi (G, L, S).
Eran : il erazi (B).
Erdibi egin : ume egin (BN-gar).
Erkide : comun, partcipe (L).
Erlastu : enronquecerse (AN-b, BN, L, R).
Ertungarri : zoritxarreko (B).
Erraldoi : gigante (B-i-mu, G, lzt.).
Erreki : kinka gaizto (Lard., Test 497-30).
Eskualdeka : norbaiten alde ari izan, alderdika (BN-haz).
Esku-aldi : esku-arte ugari, mantxunga (Bc, Gc, R).
Eskuko : berenez beren izan, azke, nor bere buruaren iabe (BN, L, R, S).
Ezago : gutxigo.

Ez baizik ere : Ez, zera. Bear luke. (B).

Ezean : ez egitekotan, ezezkoan (B).

Ez-egitekoren bat egin : bear eztanen bat egin (G).

Ez-ikusiarena egin : ez-ikusi egin (BN, L).

Ezkibel : arisco, hurano (AN-b, L-ain).

Ezpaitauka nere itzak orraginoko aillarik : nere ordua bakuna da ; berriro esaterik eztut nai ; ez da nere itza ain urruti iristen (B-mu).

Eztago ama etxean : gaza daude oraindik ; bazegok oberik (B).

Ezur utsaz utzi : beldurrak iota ibili (B-derio).



F

Funtsak ioanak izan : burua galdu (Aezkoa).



G

Gainetu : eraso, iabetu (B-o-a).

Gaitzitu : m'indu (BN, R, S).

Ganguren-manguren ibili : or-an-emen ibili ; dilingo dalango ibili (G-ond).

Garbaikide : atsekabeen lagun (B).

Gardiz : ir'iziz, aburuz (B).

Gaurdanik gora : gaurtik aurrera (AN, B, G).

Gero da biar : luzeren luze iakingo dugu (B-mu).

Giberri : aberexe. ganado lanar (B-m).

Gogaide : copensante, conforme (Oih).

Gogonduri : desconcertado (Oih).

- Golde-mutur* : mingain zorrotz (AN-lar).
Gorapenean sortua : aza salda ederrik arturik dagon gizon aundiari buruz esan oi da, ortik, neurritz ez bezelakoa (L-ain).
Gorbiztu : gorribizitu, gaizkiagotu (B-eib).
Goroite : lokarri (AN-b).
Gotorrik : sendorik (Duv.).
Guketz : gure aldetik (BN, S).
Gurbil : zuhur, neurritsu (BNc).
Gurenda : garaipen (B-itzumela).



I

- Iaiki-bearra* : aserrekoia (B).
Iaiki-bide : osasun (G).
Iainko-karats : lainkoak gorrotatua (R).
Iakille : lekuko, testigu (BN-am, S).
Iakinean iarri : iabetu (G), zerbaiten berri iakin.
iakitun ipini : iakinerazi (B).
Ian-txakur : iateko baizik on eztana (B-l).
Iauki : egotzi, larderiatu (BN, Sal.).
Iauzika : ikotika, saltoka (BN, Sal.).
Idabiur : idaur, zaharo (B-m-arras-on).
Idoki : atera (R).
Ikusterrean izan : begien aurrean ukan (BN-s, R).
Illarraindu : arropuztu (G).
Ilki : atera, irten (L, BN).
Illen ume : ilkor (B).
Inon diranak esan : bereak eta asto zarrarenak esan (B).
Iraizeko gizon : egun beteko gizon (B-m-on).
Isil-ostuka : isilik ostuka, apizean a hurtadillas (B).
Istikatu : ostikatu, zapaldu (AN-elk, BN-ald).
Itaitu : itaiz moztu (Gc, B).
Ito-aginean : itobearrean, itoka (B-g).

Itoltza : gerrikoa (L).


Itz deritzut : benetan diotzut, itz darotzut (BN).

Izan da eta izango : a pesar de los pesares (B, Altube).

Izaro : isla (B).

Izkolaka : oiuka, lekaioka (Duv.).

Izpildun : pintadun (B, a-d-l-m-on).



K

Kako-mako : argucias, tiquismiquis (G-and).

Kari : zergatikakoa, causa, motivo (L).

Kinka gaizto : une larri (BN-ald).

Kuku-otzara : persona de poco fuste, oial gutxiko gizon (B, mañaria).

Kukutu : ostendu, eskutatu (L-ain, AN-b, BN-am-gar).

Kunquin : bete bete (S).



L

Lakatz ederra sartu : ziri ederra sartu (B-m).

Lanabas : tresna (L-donib-get).

Lankoi : lankor.

Laster da emen : laster etorriko da (Bc).

Lau-orritan : bildurrez ikaraka (B).

Laztu : izutu, bildurtu (BN, L, Z).

Legor : luri sendo edota ludi-zati aundia, tierra firme, continente (B, G).

Lemazain : endaizlari (L, Duv.).

Lleba : arreta, ardura (B-ma).

M

- Maķer* : contrahecho, desabrido (B).
Mamu : monstruo (L).
Mando urdinak iota ibili : hacerse el remolón (G-and).
Mardailķizun : mardail, mardailbide, murmuración, objeto de murmuración (Z).
Marrauza : espata (L).
Marruskatu : exprimir (G,L, ANc, BN).
Masti-aitzurlari : nahas-makil ; nastutzaile (B-l).
Masti-aitzurretan izan : nasten ibili, itxulasten ari izan, intrigando (B-l).
Mindurikatu : planir (L).
Minduru : endecha (L-itzumela).
Mingaina idarrausi : inon diranak esan (BN-s).
Moltzoan : sailean, taldean (AN, BN).
Morkaitz : peña saliente (G-orri, AN).
Muķulu : volumen (R).
Muķuru : bete-bete (G, L, BN, AN).



N

- Naiak egin* : asean eta betean, ots, asebete (B).
Nere baitarik : nere gogoz, nere oldez (BNc, Lc, R).
Nerekin baterakoa : laguna, ikaskidea (B-berriz).
Nor noraginokoa dan : nor zeinbesteko dan (B).
Noraezeko : bearrezko (B).
Nora eztirala : aintzat artu bage (B).
Noragabe : nora io iakiteke, alderra: (B).
Norarik ez egon : nora ezean (B).
Norbera da bein : norbera da lenago (B).
Norik : txikitxorik, nimirik (R).

G

- Obo* : circulo, ciclo (B-eib-el-on).
Oial gutxiġo gizona : gizon makala, gizon exkaxa (B-m).
Oildu : bota (BN-s, -am).
Oiloaren ipurdia ian dun ik (AN-lar) : itz - iario bizi dan emakumeari esaten zaio.
Omenġa : diotenezka, eika (G, L, AN).
Onaurġi : zerbaiteko gauza (B-m, G-and).
Ondare : herensia (Azkue).
Ondiġo : zoritxar (AN, BN, L).
Ondiġotz : zoritxarrez (AN, L).
Onez eztaukazu zuġ azġeniġ : onez eztaukazu ertzik (B-bedia).
Onezġoak egin : adiskidetu (G-and) ; adiskidezkoak egin.
Oraintxe gogorrago : bai zera ! B-l). —
Or-ara : orra ta ara, batera ta bestera (B).
Orduz-ordu : ain zuzen ere oraintxe.
Orġatila-txoġo : articulacion del tobillo (Bc, G).
Orpo-gorri : zango-gorri, crio, niġo (B-a).
Osaro negar egin : negar batean ari (B-mu).
Oso ezinean egon : estu ta larri ibili (G-legazpia).
Ote dan ba. : izan ez ? bai orixe (B).
Otsemaile : bide aurreko (BN,L).
Otseman : zuzendu, bide aurreko ibili (BN,L).
Otsetan ibili : oiuka ibili (G-mutiloa).
Oxeski : laiotz, sartzalde (R-uzt).



P

- Peto egin* : poto egin, uts egin (BN-ald-gar,Lc).
Poxelu : beaztopo, beazarri (BN).

- Sakaildu* : desolar, exterminar (B,L).
Sarraski : mortandad, matanza (BN, L).
Sarraskitu : degollar (BN, L).
Sastatu : zerbait txorrotzez zauritu (L.).
Senean egon : estar en su juicio (Bc, R).
Soin-giltz : soin-atalak alkartzen diran une igikorrak, articulación (G, B, BN, AN, Z, R).
Soinhari : cargador (AN-b).
Soxor : terrón (G-and).
Soraio : apático, insensible (AN-b-lez, G-tx, L-ain, R-uzt).
Sorbatz : filo de un instrumento cortante (B-a-o-otx-tx).
Sorgor : enagenado, arrobado (G, B).
Sordeia baino sordeiago gauntza orain : gaizki baino gaizkiago gaude (Z).
Soroski : laguntza (B).
Sorotsi : lagundu (B).
Sostean : bat-batean (AN-arak, G-and).
Suntsitu : porrokatu (BNc, Lc).
Supizgu : sukalde, sutondo, sute (BN-gar, Z).
Sutarri : cuarzo (BN-s, R).



T

- Takela* : disputa, alboroto (G, BN).
Tosta : banco (B).
Tuta : turutaren aoa (BN).
Tutorretik itaitu : sustraitik moztu (B).
Txaqurrari ipurdian mun egin : atzetik putz egiok, zakurren putza iretzat, vete a la porra. (B-a).
Txaqurrenak esan : olako ta alakokeriak esan (B).

Txapelean euki : ziur-ziur euki (B-l).
Txautu : eralgi, erre, gastatu (G).
Txil egin : burrukan etsi egin (B-mu).
Txirikon : lobe, tunika (B-arrasate).
Txirriti : oiu zorrotz.
Txondar : pira (B-o-on, G-and-zeg).
Txonpelaka (BN-s) : zibuka, alderoka, balantzaka.
Txurtenean io : zoritxar andiak io (G-leaburu).



U

Uieldu : blai-blai egin, busti busti egin (B-i-l-m).
Uko egin : abaildu, akitu (B-m-arrasate-tx, AN-b, BN-am-s, L, R, Z).
Ume-gorri : umekondo (G, B, L).
Unai : artzai, bei-zai, idi-zai (ANc, BN-s, G, R, B-arras-on).
Upa bete negar egin : llorar un mar de lágrimas (B-mu).
Uraren gaineko bitsean eta aren gaineko sitsean bizi : zorioneko bizi, erabat gogatsu bizi (Azkue).
Uretan gozatu-burnia : hierro al temple (Bc).
Urguri izan : ser discreto (BN).
Ur ohea eman : areago urreratu (B-mur).
Urolde : ugolde (BN).
Ustel atera : ustel irten, porrot egin, uts irten (AN, B).
Ustez uste bageko : ez-ustekoa (Bc).
Utikan iaurti : alde bota (G, B).
Uxea, ez bestea : alarena ez bestea (AN, G).
Uzkaili : irauli (BN, L-ain, R).
Uzkaldu : oin-eskuak lotu (Gc, L, AN).

X

- Xehakatu* : txiki-txiki egin ; astindu bat eman (AN-b, BN-s, R).
Ximen : txukun, garbi (AN-b, L-ain-s).
Xixku : ezpata-zorro (BN, L).

Z



- Zain txarra euki* : adu txarreko izan (B-tx).
Zaldi-gizon : kentaur.
Zapart egin : ler egin, estanda egin (G-and, AN-b, BN-am, L-ain-zug, R-uzt).
Zarpildu : alperrik galdu, andeatu (L, G).
Zarrekitu : zarraren zarrez okitu, zar okitu, zahar akitu (B.).
Zearo ta mearo : zain eta muin, ots, ipi-apa, zertzelada guziz (G, B).
Zein-lenka : zeinek arinago, zein lenagoka, zein geiagoka (R-bid).
Zergatikako : zergati, causa.
Zertakobait : zerbaiterako (AN, G).
Zerraldo erori : caerse de bruces (G).
Zerraldoi : esku-oetxo (B-arb-i-m-ond).
Zildo : silu.
Zin-egotzi : zin egin, lainkoaz abatu (R, Z).
Ziper ikusi : gorriak ikusi (G, BN-haz).
Ziria sartu : iruzur egin, beltza sakatu, beltza egin (B).
Zoar : argi (Duv.).
Zokotik argi : gutxienik uste dugularik zerbait gerta zaigunean esan oi da (G-tol).
Zor nai lor : beti ere, aldez edo moldez (B-l-m-olaeta).
Zotal-txar : zori-txarreko, patu txarreko.
Zozoilo : koldar, uzkur (BN, Sal.).
-Zur : galde, -zulo (AN-b).
Zure ederra irabazi : congraciarme contigo (G, B).
Zurrian : a fuer (G-and, L-ain).
Zurupatu : zurrut egin (c).
Zurrustan : adarraka, txinboka, a cascadas (BN-s, R).
Zuzitu : lur-io eragin, destruir (AN, B, BN, G, L).

